



**Nafarroako Eskola Kontseilua**  
**Hezkuntzako Batzorde Nagusia**  
**2012-2013 ikasturtea**

## I.- SARRERA


Nafarroako Eskola Kontseiluak, 2013ko abenduaren 18ko osoko bilkuran, Nafarroako unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemaren gaineko txostena aurkeztu zuen, 2012-2013 ikasturtekoa. Horrela, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia arautzen duen 12/1997 Foru Legean jasotako legezko aginduarekin bat egiten du, eta erakundearen helburu nagusia laguntzen du, hain zuzen ere, hezkuntzan inplikaturako gizarteko sektoreen parte-hartzea, Nafarroako gizarteari Foru Komunitateko hezkuntzaren errealitatearen deskribapen oso, sinesgarri eta ordenatua eskainiz.

Aurreko ikasturteetan bezala, txostenaren edizio honetan datuak azaltzeko orduan ikuspegi sistemikoa hartu dugu. Uste dugu ikuspegi honek lagunduko digula hobeki ulertzen zein den gure hezkuntza sistemaren funtzionamendua, sistemari egiten zaizkion *ekarpen* multzo baten konbinazio gisa deskribatuz. Horiek, barneko *prozesu* jakin batzuen bidez, erdietsitako *emaitza* edo lorpen bihurtzen dira eta errealitate sozial eta ekonomikoan eragiten dute. Hori guztia *testuinguru* batean gertatzen da eta sarreretan eragiten du, prozesuetan ondorioak ditu eta *emaitzak* baldintzatzen ditu, era berean, *testuinguru* berri bat sortuz. Funtsean, hezkuntza sistema harreman zirkular baten gisan aztertu daiteke. Bertan, *ekarpenak* eraginkortasunez kudeatzen badira hezkuntza prozesu eta politika egoki eta iraunkorren bidez, eginahal horren emaitzak hobetu egingen dira eta horrek era berean bere eragina izanen du testuinguruaren baldintzak hobetuko dituelako eta, ondorioz, gizarte garapena eta aurrerabidea sortuko dituelako.

Ikuspegi horrek badu abantaila bat, bat datorrela ELGAK ondoz ondoko *Panorama de la Educación. Indicadores de la OCDE* txostenetan jasotako oinarritzko eskemarekin eta hezkuntzako adierazleen Estatu mailako zein nazioarteko sistema gehienekin eta, orobat, Estatuko Eskola Kontseiluak egindako Espainiako Hezkuntza Sistemaren Txostenarekin. Horrela, erraztu egiten du Nafarroako Foru Komunitateko datuak Espainiako, Europar Batasuneko edo ELGako gainontzeko estatuetakoekin erkatu ahal izatea.

Ondoko irudian modu eskematikoan azaltzen da hartutako egitura.

1. irudia



Giza baliabideak Zerbitzu osagarriak		kanpo ebaluazioa Aitorpen eta sariak
---	--	---

Txostenaren tenporalitateak bat egiten du 2012-2013 ikasturtearen hasiera eta bukaera formalarekin. Nolanahi ere, zenbait kasutan, ikasturteari edo aipaturiko denbora mugei egindako erreferentzia gainditzen da.

Adibidez, 4.1 atalean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean edo Estatukoan argitaratutako arauak jasotzen dira, eta horien artean egon daitezke 2013-2014 ikasturteari dagozkion arauak. Izan ere, ezinbestekoa da arauak dagokien ikasturtea formalki hasi baino lehen argitaratzea. Beste kasu batzuetan, informazioak lotura du informazio hori eman duen iturriak berak erabiltzen dituen erreferentzia tenporalekin. Hori da, hain zuzen ere, Hezkuntza Departamentuak gauzatutako gastuei buruzko atalarekin gertatzen dena, datu horiek Nafarroako kontu orokorretatik hartuak baitira eta kontu horien izaera urtekoa baita. Hala da Parlamentuaren eta Arartekoaren jarduerari dagokien atalean ere, bi erakunde horietako memorietatik jaso baitira datuak.

Inguruabar bereziek mugatzen dute Hezkuntza Ministerioaren estatistiketatik eta adierazleetatik datorren informazioa (eskuragarri diren azkeneko datuak 2010-2011 ikasturtekoak dira) eta Nafarroako ikasleen promozioari buruzko informazioa 2011-2012 ikasturtekoa da. Esan behar da hori dela eskura dagoen azkena, ikastetxeek emaitza akademikoak emateko datengatik eta Nafarroako Eskola Kontseiluak INSEa prestatu eta onesteko indarreko xedapenak bete beharragatik.

Nafarroako ikasleek ebaluazio diagnostikoko prozesuetan, dela Nafarroako hezkuntza sistemak egindakoetan dela Estatu mailakoetan eta nazioartekoetan, lortutako emaitzak modu deskribatzailean azaltzen diren atala zabaltzen ahalegindu gara, duela bi urtetik hona egin dugun bezala. 2012-2013 ikasturteari dagokionez, Nafarroako lurralde esparruan kanpoko ebaluazio bakarra egin da, hots, Lehen Hezkuntzako 4.eko eta DBHko 2.eko ebaluazio diagnostikoa eta, hartara, ebaluazio horren emaitzak soilik emanen ditugu. Hala ere, abenduan, txosten hau oneste bidean dagoenean, PISA 2012ren emaitzak zein diren jakinen dugu (esan behar da Nafarroak modu berezitan parte hartu duela). Nazioarteko ebaluazio garrantzitsu honen dossier zabala eginen da 2013-2014 ikasturteko INSEan.

Maiz, aurreko urteetako erreferentziekin osatu da txostena. Horrela, sistemaren bilakaera ikusi ahal izateko datu segidak ematen zaizkie irakurleei.

Txosten hau egiteak datuen bilketan ahalegin irmoa egitea suposatzen du. Hori ez litzateke posible Hezkuntza Departamentuko zerbitzuen, atalen eta bulegoen laguntzarik eta Idazkaritza Teknikoaren koordinazio lanik gabe eta, zentzu horretan, aipamen berezia merezi du Ikuskapen Zerbitzuko Ebaluazio Atalak, handik baitatuz ebaluazioaren inguruko datuak. Txostenean inoiz gerta daiteke irakasleen, ikasleen edo unitateen gaineko datuak ez etortzea bat; hori gertatzen da datuak iturri desberdinetatik datozelako eta egun desberdinetan jaso direlako.

Mila esker denei lan honen garrantzia ulertzeagatik eta zuen lankidetzagatik. Mila esker Berrikuntza, Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, Nafarroako Unibertsitate Publikoari, Nafarroako Ikastolen Elkarteari, guraso elkarten federazioei, Diario de Navarrari eta Diario de Noticiasi, eskatutako datuak emateagatik.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren nahia eta desioa da txosten hau baliagarria izan dadila Nafarroako Hezkuntza Sistema hobeki ezagutu nahi duten pertsona eta instituzioendako, eta ezagutza horrek balio dezala hezkuntza sistema hobetuko duten ideiak eta ekimenak sustatzeko, parte-hartzea eta konpromisoa nagusi izanen diren testinguru batean.

## 2.- HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA NAFARROAN

Begien bistakoa da hezkuntza sistemaren eta testuinguruaren arteko erlazioa zirkularra dela. Testuinguru-aldagaiak hezkuntzak pertsonengan duen eragina sustatzen, mugatzen edo baldintzatzen dute, hezkuntzako azpiegiturei eta politikari eragiten diete eta hezkuntza emaitzetan eragiten dute. 2011-2012 ikasturteko INSE txostenean azpimarratzen genuen hiru faktore multzo handi ari zirela hezkuntza politikak asko baldintzatzen eta eragin horrek aldaketa ekarri behar zuela hezkuntza paradigman, eskola kontzeptualizatzeko modu berri batean eta garatutako gizarteetako hezkuntza zerbitzuan.

Faktore demografiko horiek, populazioaren migrazioek eta lekualdaketek eta ezagutzen garapenak eta aplikazioak eta, une honetan inoiz baino gehiago, faktore ekonomikoek eragindako testuinguru globalaren azalpena, merkatuen globalizazioa eta mundu mailako krisi ekonomikoaren testuinguru ezinbesteko osagaiak dira egoeraren ikuspegi zabala izateko eta ikuspegi hori berebizikoa gertatzen da hura aztertu eta etorkizuneko aurreikuspen batetik abiatu gure eskola hobetzeko erabakirik egokienak hartzeko.

Gure hezkuntza sistemaren gaineko testuinguru aztertzen sakontzen badugu, kontuan izan beharko dugu europar esparruak Europar Batasuneko herrialdeen erabaki orokorretan duen eragina, ez soilik politika ekonomikoko erabakiei dagokiena, baita hezkuntza eta prestakuntza arloetakoena ere.

Azken urte hauetan Lisboako gailurreko hezkuntza helburuei berariaz egindako erreferentziek –Europa 2010 moduan ezaguna dena– gure hezkuntza sistemen egoera konparatzeko elementu modura balio izan digute eta gaur egun Europa 2020 estrategiak (ET 2020) erantzun politiko bateratua sustatzen du Europar Batasuna mehatxatzen duten erronka komunei erantzuteko eta erantzun horrek, logikoa den bezala, hezkuntza politikako erabaki komunak ukitzen ditu.

Europa 2020 Estrategiako zioen agiriak<sup>1</sup> egoera hori zehatz-mehatz halaxe definitzen du:

**"Europa eraldaketa une bati aurre egiten ari zaio. Krisiak desegin ditu aurrerakuntza ekonomiko eta sozialeko urteak eta Europako ekonomiaren ahultasun estrukturalak agerian utzi ditu. Bitartean, mundua azkar mugitzen ari da eta epe luzerako erronkak (globalizazioa, baliabideen gaineko presioa, zahartzea) sendotzen ari dira. EBk bere etorkizuna bere eskuetan hartu beharko luke.**

**Europak arrakasta izan dezake baldin eta talde moduan, Batasun moduan, jarduten badu. Krisitik indarturik ateratzen lagunduko gaituen eta Europar Batasuna enplegu, produktibitate eta kohesio sozialeko maila handiak izanen dituen ekonomia adimentsu, iraunkor eta integratzaile bihurtuko duen estrategia behar dugu. Europa 2020 XXI. menderako Europako merkatuko ekonomia sozialerako ikuspegia da."**

Europa 2020 estrategia integratuaren barnean hezkuntzari eta prestakuntzari ematen zaien garrantziari dagokionez, aski da horretarako Europako Kontseiluaren 2011ko otsailaren 4ko ondorioen agiriko paragrafo bat hona ekartzea<sup>2</sup>:

<sup>1</sup> Europako Batzordea (2010). EUROPA 2020. "Estrategia bat hazkunde adimentsu, iraunkor eta integratzaile baterako". 3. or. Batzordearen komunikazioa. COM agiria (2010) 2020. Brusela

<sup>2</sup> Europar Batasunaren Kontseilua (2011). "Hezkuntzak eta prestakuntzak Europa 2020 Estrategiaren aplikazioan duten rola ginean Kontseiluak hartutako ondorioak". C 70 Egunkari Ofiziala, 2011ko martxoaren 4koa, 1. or.

"Hezkuntzak eta prestakuntzak Europa 2020 Estrategiaren helburuak (hazkunde adimentsua, iraunkorra eta integratzailea) lortzeko ezinbestekoak izan behar dute eta herritarrei bereziki Europako ekonomiak eta gizarteak behar dituen trebetasunak eta gaitasunak eman behar dizkie, lehiakorrak eta berritzaileak izaten jarrai dezaten eta, aldi berean, kohesio soziala eta integrazioa sustatzen lagundu behar dute. Beraz, Kontseiluko lanetan hezkuntzaren eta prestakuntzaren ezinbesteko rola oso-osorik islatu beharko da (...)"

Horrenbestez, beharrezkoa da hezkuntza sistemek pertsonen garapenean, hazkunde ekonomikoan eta hazkunde horrek eragin dezakeen eta eragiten duen kohesio sozialean duen berebiziko rola kontuan hartzea. Hartara, Europar Batasuneko herrialdeetako ildo estrategikoak eta, ondorioz, haien erregio- eta autonomia-enteetakoek, Nafarroakoek kasu, erreferentzia-sistema komun bilakatu behar dute, partekatutako hezkuntza politika baterantz joan gaitezen, Europar Batasuneko estatu edo erregio bakoitzaren berariazko xehetasunak nork bere eskumenen arabera errespetatuz.

Ukitutako hezkuntza sistema guztietarako Europar Batasun osorako emaitzen helburu eta adierazleen berezko esparru komuna Estrategia 2020-ren bitartez finkatzeak gaurkotasuna eta garrantzi itzela du. Hori dela-eta, testuinguruaren araberako sarrera honetan sartzan dugu Estatuko Eskola Kontseiluaren Espainiako Hezkuntza Sistemaren txosten berriki berritutik ateratako laburpen zabala.<sup>3</sup>

#### "A1.2. Europa 2020ren esparru estrategikoa hezkuntzaren eta prestakuntzaren esparruan

##### Orientabide oinarrikoak

Hizkuntza komunitarioan *ET2020-Education and Training 2020z* aipatzen denean hezkuntza eta prestakuntzarako lankidetzarako marko estrategikoaz hitz egiten da. Europar Batasunak XXI. mendeko bigarren hamarkadarako zehaztu duen Europa 2020 estrategia integratua garatzen du. Europako Kontseiluak 2009ko maiatzaren 12ko bilkuran erabaki zuen aipatutako marko estrategikoa definitzea. Hauexek dira bertan identifika daitezkeen orientabide oinarrikoak:

**8 Europar Batasuneko Kontseilua (2009).** "Kontseiluaren 2009ko maiatzaren 12ko ondorioak, hezkuntzaren eta prestakuntzaren arloko europar lankidetzarako marko estrategikoaren gainean («ET 2020»). Europar Batasuneko Egunkari Ofiziala (2009/C 119/02). Brusela.

- Xedeen integrazioa onartzea, afera pertsonalak eta profesionalak, eta sozialak eta ekonomikoak bere baitan hartzen dituena, oparotasun iraunkorra kohesio sozialarekin konbinatzen duena eta, orobat, balio demokratikoen bultzada eta herritartasun aktiborako jarduna kontuan hartzen dituena.
- Mundu mailako optika, globalizazioaren erronkez ohartaraziko duena, eta hezkuntza, prestakuntza eta ikerketa bikainaren rola onartzea, Europak erronka horiek arrakastaz beregana ditzan.
- Onartzea "bizitzan zeharreko ikaskuntza"-ren ikusmoldea (*lifelong learning*), hezkuntzaren eta prestakuntzaren ikuspegi sistemiko modura, ulertuz ikaskuntza bere testuinguru guztietan –formala, ez-formala eta informala– eta maila guztietan –Haur Hezkuntzatik hasi eta goi mailako irakaskuntza arte, lanbide heziketa eta helduendako ikaskuntza barne–, baita haien arteko elkarrekintzak ere.

Marko estrategiko hori gorago deskribatutako marko politikoan txertatzen da [marko politiko horren ezinbesteko zutarrak dira subsidiarotasun printzipioa eta koordinaziorako metodo irekia (KMI)]. Europar Batasuneko estatu kideendako ET2020 estrategia itxura aginduzkotik harago, Kontseiluaren dokumentu horretan ohartarazten da hura garatuko dela "osoki errespetatuz estatu kideek beren hezkuntza sistemen gainean duten erantzukizuna eta hezkuntzan eta prestakuntzan europar lankidetzaren borondatezkotasuna". Baina, berehala eta zalantzarik gabe, aginduzko orientabideak ematen ditu koordinaziorako metodo ireki horri dagokionez. Esan behar da marko politikoaren eta marko estrategikoaren arteko modulazio fin hori ulertzeko interesagatik eta marko estrategikoaren garapeneko xehetasun batzuk direla-eta, mahaiaren gainean jartzea komeni dela.

"Koordinaziorako metodo irekiak aprobeztatu behar ditu:

- europar lankidetzarako lau helburu estrategikoak,
- erreferentzia eta planteamendu komunen tresnak,
- berdinen arteko ikaskuntza eta jardunbide egokien trukea, emaitzen hedapena barne,

<sup>3</sup> Espainiako Hezkuntza Sistemaren Txostena, 2011-2012. Estatuko Eskola Kontseilua

- aldian aldiko gainbegiratzea eta informazioa,
- Europako erakunde guztietatik, europar sareetatik eta nazioarteko erakundeetatik lortutako datuak eta informazioa,
- programa komunitarioek eskainitako aukerak, bereziki etengabeko ikaskuntzaren esparruan.

## **ET2020 helburuak**

**ET2020 marko estrategikoa Kontseiluak formulatutako lau helburuetara egokitzen da. Honelaxe:**

### **1. helburu estrategikoa: Hezigaien etengabeko ikaskuntza eta mugikortasuna gauzatzea.**

Lehen helburu estrategiko hau formulatuz, Europar Batasunaren planteamenduak esplizituki onartzen ditu "aldaketa demografikoak eta kualifikazioak aldian-aldian eguneratu eta garatu beharrak planteatzen dituen erronkak, kualifikazio horiek zertzelada ekonomiko eta sozial aldakorretara egokitzeko". Horregatik, bultzatzen ditu "etengabeko ikaskuntzaren ikusmoldea eta aldaketaren aurrean sentikorragoak eta munduari oro har irekiagoak izanen diren hezkuntza- eta prestakuntza-sistemak". Era berean, hezigaien, irakasleen eta irakasleen prestatzaileen mugikortasunaren alde egiten du, etengabeko ikaskuntzaren funtsezko osagai eta pertsonen enplegarritasuna eta moldagarritasuna bultzatzeko baliabide nagusi modura hartuz.

### **2. helburu estrategikoa: Hezkuntzaren eta prestakuntzaren kalitatea eta eraginkortasuna hobetzea**

Kontseiluak bigarren helburu estrategiko hau justifikatzen du esanez "kalitate handiko hezkuntza- eta prestakuntza-sistema eraginkor eta bidezkoak ezinbestekoak direla Europaren arrakastarako eta enplegarritasuna hobetzeko". Batasuneko kideen iritziz, "erronka nagusia da pertsona guztiek gaitasun giltzarriak eskuratzeko aukera izatea eta, aldi berean, bikaintasuna eta erakarmena garatzea hezkuntzaren eta prestakuntzaren maila guztietan; hala eginez gero, Europak posizio sendoa gordeko du munduan".

### **3. helburu estrategikoa: Ekitatea, kohesio soziala eta herritartasun aktiboa sustatzea.**

Hirugarren helburu estrategiko hau honelaxe justifikatzen du Kontseiluak: "Hezkuntza- eta prestakuntza-politikek ahalbidetu beharko lukete herritar guztiek, edozein izanik ere haien inguruabar pertsonal, sozial eta ekonomikoak, bizitzan zehar berariazko gaitasun profesionalak eta enplegarritasunerako beharrezkoak diren eskumen giltzarriak eskuratu, eguneratu eta garatzea eta, orobat, etengabeko ikaskuntza, herritartasun aktiboa eta kultura arteko elkarrizketa sendotu beharko lukete". ET2020 strategiari esleitutako helburua bada ere, "Europa 2020" gidalerro integratuetako batzuetatik oso hurbil dago (gidalerro horiek Estrategiarako eta behar diren erreformetarako esparru orokorragoa finkatzen dute Europar Batasuneko estatu kide bakoitzean).

### **4. helburu estrategikoa. Sormena eta berrikuntza handitzea, baita ekimenerako adorea ere, hezkuntzaren eta prestakuntzaren maila guztietan.**

Helburu hau estrategiaren zati modura sartzean, Kontseiluak uste du "norberaren errealizazioa errazteaz gainera, sormena ezinbesteko berrikuntza-iturria dela, hots, garapen ekonomiko iraunkorren bultzada nagusietako bat balitz bezala onartua dena. Sormena eta berrikuntza ezinbestekoak dira enpresen garapenean eta Europak nazioartean lehiatzeko duen ahalmenean".

## **Atxikitako politikak**

Bestalde, hemen azaltzen den ET2020 estrategia markoak helburuak lortzeko zenbait orientabide ematen ditu. Aurrerantzean, orientabide horiek helburu bakoitzari atxikitako politika moduan formulatuko dira eta espero izatekoa da haien garapenak helburuak lortzen lagunduko duela. Helburu estrategiko desberdinen nolakotasunari lotutako ideien ikuspegi trinko bat emateko asmoz, politikak labor emanen dira, jarduketa terminoetan, eta hurrenez hurren zerrendatuko dira.

### **1. helburua lortzeko**

- a) Kualifikazioen sare nazionalen sorrera bermatzeko lan egitea, behar diren ikaskuntza emaitzen eta Kualifikazioen Europako Esparruarekin duten erlazioaren arabera.
- b) Ikasteko bide malguagoak ezartzea eta, horrekin batera, hezkuntzako eta prestakuntzako sektoreen artean trantsizio hobeak, hezkuntza ez-formalera eta informalerara gehiago irekitzea eta ikaskuntzaren emaitzen gardentasun eta onarpen handiagoak.
- c) Ahalegin gehigarria egitea helduendako ikaskuntza sustatzeko, orientazio sistemen kalitatea handitzeko eta, orobat, ikaskuntza erakargarriagoa egiteko, ikasteko modu berriak eta irakasteko eta ikasteko teknologia berrien erabilera barne direla.
- d) Hezigaien, irakasleen eta irakasleen prestatzaileen mugikortasuna arian-arian zabaltzea, atzerrian emandako ikaskuntza-aldiak –Europar eta munduan zehar– arau izan daitezen eta ez, salbuespen.

### **2. helburua lortzeko**

- a) Arreta handiagoa izatea oinarritzko kualifikazioen maila goratzeari, alfabetismoari eta oinarritzko nozio aritmetikoei eta, orobat, matematika, zientzia eta teknologia erakargarriagoak egitea eta hizkuntza gaitasunak bultzatzea.
- b) Kalitate handiko irakaslana bermatzea, eta irakasleei hasierako prestakuntza egokia eta irakasle eta hezitzaileei etengabeko garapen profesionala eskaintzea eta, orobat, irakaslana karrerako aukera erakargarri egitea.
- c) Ikastetxeen eta prestakuntza zentroen gobernantza eta zuzendaritza hobetzea eta kalitatea ziurtatzeko sistema eraginkorrak bultzatzea.
- d) Kalitate handia sustatzea baliabide publiko zein pribatuen, komeni denaren arabera, erabilera eraginkor eta iraunkorraren bitartez.
- e) Hezkuntzan eta prestakuntzan, benetako datuetan oinarritutako politikak eta praktikak sustatzea.

### 3. helburua lortzeko

- a) Hezkuntza desabantaileri aurre egitea, kalitate handiko eskolaurrea eskainiz eta berariazko laguntza emanez eta, orobat, hezkuntza inklusiboa sustatuz.
- b) Hezigai guztiek –baita egoera ahuleko inguruetatik datozenek, premia bereziak dituztenek eta etorkinek ere– beren hezkuntza osatuko dutela bermatzea eta, beharrezkoa izanez gero, osabidezko hezkuntza erabiltzea eta ikaskuntza pertsonalizatuagoa erraztea.
- c) Sustatzea kultura arteko gaitasunak, balio demokratikoak eta oinarritzko eskubideen eta ingurumenaren errespetua, eta diskriminazio forma ororen kontra egitea, eta gazteei askotariko aurrekariak dituzten beste gazte batzuekin modu baikorrean jarduteko beharrezkoak diren tresnak ematea.

### 4. helburua lortzeko

- a) Herritar guztiek zeharkako gaitasun gakoak eskura ditzaten sustatzea, hala nola, gaitasun digitala, ikasten ikasteko gaitasuna, ekimenaren zentzua, izaera ekintzailea eta kontzientzia kulturala.
- b) Ezagutzaren hirukia –hezkuntza, ikerketa eta berrikuntza– osoki operatiboa izanen dela bermatzea.
- c) Enpresa munduaren eta hezkuntzaren, prestakuntzaren eta ikerketaren maila eta sektore desberdinen arteko lotura sustatzea, ahaleginak lan merkatuan beharrezkoak diren gaitasun eta kompetentzietara bidera daitezen.
- d) Ikaskuntzaren modalitate guztietan berrikuntza eta espiritu ekintzailea bultzatzea.
- e) Ikaskuntza erkidego zabalak sustatzea, gizarte zibileko eta beste alde interesdun batzuetako ordezkarien parte-hartzearekin, sormenera eta behar profesional eta sozialen arteko adostasun hobe batera eramanez duen giroa sortzeko.

### Erreferentzia mailak, adierazleak eta pilotajea

Koordinaziorako metodo irekia ET2020 esparru estrategikoaren garapenera aplikatzea eta gorago aipatutako lau helburuen lorpenera bideratzea "Europako erreferentzia-mailen" multzo batean sostengatzen da. Europar Batasuneko kide diren herrialdeen iritzi publikoen presioagatik erreferentzia-maila horiek zinez lorpen-helburu modura jokatzen dute, Europako Kontseiluak bestelakoa esan arren. Ageriko eta isilekoaren arteko jolas fin hau –eta batzuetan itxuraz kontraesanezkoa dena– "governurik gabeko gobernantza berri" honen parte da –halakoa izan da KIMaren aplikazioa– eta, ondorioz, gaur egungo marko politikoak marko estrategikoaren garapenera inposatzen dizkion ezaugarri baldintzatzaileetatik eratorritzen da.

2012. urtean, oro har onartutako adierazleak eta haien "erreferentzia-mailak" zazpi izan ziren:

1. 4 urteren eta nahitaezko Lehen Hezkuntza hasteko adinaren artean dauden haurren %95ek gutxienez Haur Hezkuntzan parte hartu beharko lukete.
2. Irakurketan, matematikan eta zientzietan gaitasun eskasak dituzten 15 urteko ikasleek %15 baino gutxiago izan beharko lukete.
3. Hezkuntza eta prestakuntza behar baino lehenago uzten duten ikasleek %10 baino gutxiago izan beharko lukete.
4. Goi mailako hezkuntza erdietsi duten 30 eta 34 urte bitarteko gazteek %40 baino gehiago izan beharko lukete.
5. Batez beste, 25 urte eta 64 urte bitarteko helduen %15ek etengabeko prestakuntzan parte hartu beharko lukete.
6. Unibertsitateko gradudunen %20k eta Hasierako Lanbide Heziketa egin duten 18tik 34 urte bitarteko gazteen %6k gutxienez ikasketa- edo prestakuntza-aldia atzerrian egin beharko lukete.
7. Kontrol urtea baino hiru urte lehenago (ez gehiago) ikasketak bukatu zituzten 20tik 34 urte bitarteko langile gradudunek (CINE 3-6) gutxienez %82 beharko lukete izan. 2012. urtean estreinakoz sartu zen adierazle honek eta hari dagokion erreferentzia-mailak erakusten dute 2020. urtean gradudunen %82k lana izan beharko luketela.

Zazpi erreferentzia-maila hauekin batera, espero izatekoa da 2013ko lehen seihilekoan Europako Kontseiluak atzerriko hizkuntzako gaitasunari buruzko informazioa emanen duen zortzigarren erreferentzia-maila onartuko duela.

Adierazle eta erreferentzia-maila hauen multzoaz gainera, 2012. urtean estreinakoz aurreko tresna biltzen duen tresna zabalagoa definitu da; Hezkuntza eta Prestakuntzako monitore moduan ezagutzen da. Haren xedea da ET2020ren garapenari jarraipena egitea Europar Batasuneko herrialdeetan eta, besteak beste, berdinen arteko ikaskuntza aktibatzea, hezkuntza politiken arloan jardunbide egokiak identifikatzea eta inplikaturako sektoreekin –eta haien barnean– eztabaida bultzatzea, ebidentzia enpirikoak oinarri harturik. A.1 taulan hezkuntza eta prestakuntza arloko Europako tresna berri analitiko eta pilotajeko honen hamabi osagai nagusiak ageri dira.

<b>1. koadroa - Hezkuntza eta Prestakuntzako monitorearen oinarritzko osagaiak. 2012</b>	
1. Hezkuntza eta prestakuntza garaia baino lehen uztea (18-24 urte)	
2. Goi mailako hezkuntzako titulazioa (30-34 urte)	
3. Lehen haurtzaroaren hezkuntzan parte hartzea (4 urtetik nahitaezko Lehen Hezkuntza hasi baino lehenagoko urtera bitartean)	
4. Hezkuntza eta prestakuntza bukatu duten (CINE 3-6) gradudunen enplegu-tasa, erreferentzia-urtea (20-34 urte) baino lehenagoko 3 urtetan, gehienez ere.	
5. Etengabeko prestakuntzan parte hartzea (25-64 urte)	
6. Oinarritzko gaitasunak Errendimendu apaleko ikasleak (15 urte; 1. maila edo beheragokoa PISAn).	Irakurriaren ulermena
	Matematika
	Zientziak
7. IKT gaitasunak	Ikastetxean Lehen Hezkuntzako 4. mailan ordenagailuak erabiltzen dituzten ikasleen ehunekoa.
	Ordenagailuen erabileran gaitasun handiak dituzten 16tik 74 urte bitarteko norbanakoen ehunekoa.
8. Espiritu ekintzailea	Negozio bat abiatzeko beharrezkoak diren gaitasunak eta ezagutza dituztela uste duten 18tik 64 urte bitarteko biztanleen ehunekoa,
9. Hizkuntzak	Ikasleak behe mailako Bigarren Hezkuntzan (CINE 2) ikasi dituen atzerriko hizkuntzen batez besteko kopurua.
	Behe mailako Bigarren Hezkuntzaren (CINE 2) bukaeran atzerriko lehen hizkuntzan B1 maila (HEMEB) edo goragoko maila erdiesten duten ikasleak.
10a. Hirugarren mailako hezkuntzako gradudunak, ikasketa arloaren arabera. Berariazko arlo bakoitzeko gradudunak (CINE 5-6), arlo guztien ehuneko modura.	Hezkuntza eta Prestakuntza
	Humanitateak eta Artea
	Gizarte Zientziak, Enpresa Zientziak eta Zuzenbidea
	Matematika, Zientziak eta Teknologia.
	Nekazaritza eta Albaitaritza
	Osasuna eta Ongizatea
Zerbitzuak	
10b. Matematikako, Zientzietako eta Teknologiako goi mailako gradudunak	Matematikako, Zientzietako eta Teknologiako gradudunen kopurua 20tik 29 urteko 1.000 gazteko.



<b>11. Etorkizuneko lan merkaturako gaitasunak. 2010-2020 urteetan enpleguan aurreikusitako aldaketa %-tan</b>	<b>Goi kualifikazioa</b>
	<b>Kualifikazio ertaina</b>
	<b>Behe kualifikazioa</b>
<b>12. Inbertsioa hezkuntzan eta prestakuntzan. Gastu publikoa hezkuntzan, BPGren %</b>	

Hona arte bildu da ET2020 helburuen gaineko laburpena. Helburu horiek Estatuko Eskola Kontseiluak prestatutako 2011-2012 ikasturteko Espainiako Hezkuntza Sistemaren Txostenetik atera dira.

Planteamendu estrategiko honen inplikazioek gure herrialdeko hezkuntza praktikak bideratu ditzakete eta bideratu behar dituzte lehentasunezko jarduketara-gune berri baterantz. Begien bistakoa da ebaluazioaren eta kontu-ematearen, eta kudeaketarekiko eta emaitzekiko gardentasunaren kulturak Espainiako Gobernu eta autonomia erkidegoetako gobernuek bultzatuko dituela sistemaren kudeaketa orokorra gehiago koordinatu eta hobetzera eta, orobat, "praxi berri" horretan tartekatutako administrazioek (eta horien artean Nafarroako Foru Komunitateak) hezkuntza politikan hartuko dituzten erabaki guztietan etengabe eraginen duela.

Jarraian, Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemak duen egoeraren gaineko txostenetan egin izan dugun bezala, aintzat hartu nahi izan dugu hezkuntza sistemarendako eta hezkuntza sistemaren ebaluaziorako garrantzitsuak diren testuinguru-faktoreen multzo esanguratsua, zehatza ez bada ere.

## **2.1. Alderdi demografikoak**

Biztanleriarekin lotutako adierazleak funtsezkoak dira irakaskuntza planifikatzeko. Adin taldeen araberrako biztanleriaren banaketa, banaketa geografikoa, osaera eta jatorria, edo datu horiek etorkizuneari izanen duten bilakaeraren aurreikuspena hezkuntzaren zerbitzu publikoa planifikatzerakoan kontuan izan beharreko oinarriko datuak dira eta, beraz, lurralde baten hezkuntza politika diseinatzeke elementu estrategikoak dira.

### **2.1.1. Biztanleria eta biztanleriaren osaera**

Herrialde edo eskualde baten biztanleria, kopuru osoa, banaketa geografikoa inguruan, adin piramidea edo denbora tarte bateko biztanleria mugimenduak, hezkuntza politikentzako berebiziko garrantzia duten testuinguruaren aldagaiak dira. Izan ere, eragin zuzena dute plangintzan, erabili beharreko baliabideen kopuruan eta horien banaketan, hezkuntza sistemako kalitate maila eta ekitatea mantentzen saiatzeko.

2011. urteko Erroldako zenbait alderdi demografiko erakusten dituen grafikoa erreferentzia modura hartzen badugu eta 2012. urtean zehar, hots, 2012ko urtarrilaren 1etik 2013ko urtarrilaren 1a bitartean, Espainian gertatutako bilakaera demografikoarekin erkatzen badugu, zenbait ondorio garrantzitsu atera dezakegu. Lehena hauxe da: 2011. urtearen hasieran Espainiak osotara 47.190.493 biztanle zituen. 2. koadroak erakusten du nola zegoen banatuta 19 autonomia erkidegoetan eta hiri autonomoetan, EINEko udal erroldaren 2011ko berrikuspenaren arabera. Nafarroak, 642.015 biztanlerekin, Espainiako biztanleen %1,4 zuen.

2. koadroa:

**Aspectos geográficos y demográficos de la población en España por comunidades y ciudades autónomas.  
Año 2011**

	Extensión Territorial		Población		Densidad de población	Porcentaje de población rural <sup>1</sup>
	(Km <sup>2</sup> )	Porcentaje vertical (%)	(Personas)	Porcentaje vertical (%)		
Andalucía	87.598	17,3	8.424.102	17,9	96,2	3,3
Aragón	47.721	9,4	1.346.293	2,9	28,2	16,8
Asturias, Principado de	10.602	2,1	1.081.487	2,3	102,0	3,6
Baleares, Islas	4.992	1,0	1.113.114	2,4	223,0	1,4
Canarias	7.447	1,5	2.126.769	4,5	285,6	0,5
Cantabria	5.321	1,1	593.121	1,3	111,5	8,4
Castilla y León	94.227	18,6	2.558.463	5,4	27,2	26,1
Castilla-La Mancha	79.462	15,7	2.115.334	4,5	26,6	15,1
Cataluña	32.113	6,3	7.539.618	16,0	234,8	4,7
Comunidad Valenciana	23.255	4,6	5.117.190	10,8	220,1	4,2
Extremadura	41.634	8,2	1.109.367	2,4	26,6	19,5
Galicia	29.575	5,8	2.795.422	5,9	94,5	4,5
Madrid, Comunidad de	8.028	1,6	6.489.680	13,8	808,4	0,7
Murcia, Región de	11.313	2,2	1.470.069	3,1	129,9	0,4
Navarra, Com. Foral de	10.390	2,1	642.051	1,4	61,8	14,5
País Vasco	7.230	1,4	2.184.606	4,6	302,2	5,2
Rioja, La	5.045	1,0	322.955	0,7	64,0	13,2
Ceuta	19	0,0	82.376	0,2	4.228,7	0,0
Melilla	13	0,0	78.476	0,2	5.852,1	0,0
<b>Total Nacional</b>	<b>505.986</b>	<b>100,0</b>	<b>47.190.493</b>	<b>100,0</b>	<b>93,3</b>	<b>6,0</b>

<sup>1</sup> El porcentaje de población rural se ha calculado como porcentaje de población en municipios menores de 2.000 habitantes.

Fuente: *Revisión del Padrón Municipal a 1 de enero de 2011. Instituto Nacional de Estadística.*

Urte bat geroago, biztanleak 46.818.216 izan ziren eta bi urte geroago kopurua 46.704.314ra jaitsi zen, hau da, ia milioi erdi pertsona gutxiago. Nafarroari dagokionez, 638.390 dira. Beherakada hori gertatu da atzerrira ia 4.000 lagun ateratzearekin, dela etorkinak beren herrialdeetara itzuli direlako, dela gazte tituludunek atzerrian enplegua lortu dutelako. Nolanahi ere, parte batean konpentsaturik geratu da hazkunde begetatiboarekin, hots, jaiotzen eta heriotzen arteko aldearekin, eta barneko immigrazioarekin (1.393 eta 721 lagun, hurrenez hurren).

Aipatu beharreko beste alderdi bat "landatartasun indizea" da: 2.000 biztanletik beherako herrietan bizi direnen ehunekoa. Espainia osoan herri txikietan bizi direnak %6 dira eta Nafarroan, aldiz, %14,5. Nafarroa landatartasun mailarik altuenetakoa duten erkidegoetako bat da.

## 3. koadroa:

## Evolución demográfica por CCAA en 2012

Comunidad Autónoma	Población a 1 de enero de 2012	Saldo vegetativo (*)	Saldo migratorio exterior	Saldo migratorio interior	Población a 1 de enero de 2013
Total nacional	46.818.216	48.488	-162.390	0	46.704.314
Andalucía	8.377.809	17.641	5.624	-6.865	8.394.209
Aragón	1.343.790	-1.778	-3.061	-456	1.338.495
Asturias, Principado de	1.074.304	-5.643	-353	-850	1.067.457
Baleares, Illes	1.100.715	2.866	2.712	4.105	1.110.399
Canarias	2.085.928	3.025	12.928	3.971	2.105.851
Cantabria	592.387	-796	-1.449	-491	589.651
Castilla y León	2.537.654	-9.417	-3.240	-7.840	2.517.157
Castilla - La Mancha	2.105.936	1.122	-5.464	-6.637	2.094.957
Cataluña	7.514.992	13.888	-59.732	-3.530	7.465.619
Comunitat Valenciana	5.009.647	4.889	-24.727	-1.346	4.988.464
Extremadura	1.104.343	-1.780	165	-1.425	1.101.303
Galicia	2.771.916	-10.048	-949	811	2.761.730
Madrid, Comunidad de	6.425.573	25.293	-55.767	14.116	6.409.216
Murcia, Región de	1.461.928	5.915	-9.003	831	1.459.671
Navarra, Comunidad Foral de	640.023	1.393	-3.748	721	638.390
País Vasco	2.184.696	93	-13.963	3.648	2.174.474
Rioja, La	320.951	144	-1.761	-328	319.006
Ceuta	83.837	641	122	-96	84.504
Melilla	81.786	1.042	-726	1.660	83.762

(\*) Nacimientos - defunciones.

Biztanleria adin-tarteen eta sexuaren arabera aztertuz gero<sup>4</sup>, Nafarroan eta Espainia osoan banaketa antzekoa da. Nabarmen gutxitzen dira adin-tarte gazteenetako pertsonak erdiko adinetako (20 eta 60 urte artekoak) taldeen aldean. Horrek eragin ekonomiko eta sozial ikaragarria du bai hezkuntza plangintzarako bai eta, oro har, erabaki sozialetarako, datozen 20 urtetan 65 urtetik gorako pertsonen tasa altuena duten munduko herrialdeen artean kokatuko baikaitu biztanleriaren zahartze orokorrak.

## 4. koadroa: Biztanleria adin eta sexu taldeka. Espainia eta Nafarroa (2013ko urtarilaren 1ean)

Población por grupos de edad y sexo. Datos del Padrón provisional a 01/01/2013

Población por grupos de edad y sexo. Datos del Padrón provisional a 01/01/2013

## Total España

	TOTAL ESPAÑA			TOTAL ESPAÑA, PORCENTAJES		
	AMBOS SEXOS	VARONES	MUJERES	AMBOS SEXOS	VARONES	MUJERES
<b>Total</b>	<b>47.059.533</b>	<b>23.165.987</b>	<b>23.893.546</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
0-4	2.376.366	1.225.602	1.150.764	5,0	2,6	2,4
5-9	2.442.007	1.254.475	1.187.532	5,2	2,7	2,5
10-14	2.231.903	1.146.897	1.085.006	4,7	2,4	2,3
15-19	2.173.023	1.118.454	1.054.569	4,6	2,4	2,2
20-24	2.468.285	1.253.727	1.214.558	5,2	2,7	2,6
25-29	2.946.221	1.480.752	1.465.469	6,3	3,1	3,1
30-34	3.741.200	1.906.356	1.834.844	7,9	4,1	3,9
35-39	4.121.195	2.118.466	2.002.729	8,8	4,5	4,3
40-44	3.888.224	1.986.159	1.902.065	8,3	4,2	4,0
45-49	3.694.569	1.861.138	1.833.431	7,9	4,0	3,9
50-54	3.307.477	1.645.195	1.662.282	7,0	3,5	3,5
55-59	2.815.070	1.382.470	1.432.600	6,0	2,9	3,0
60-64	2.520.710	1.221.504	1.299.206	5,4	2,6	2,8
65-69	2.268.207	1.085.020	1.203.187	4,9	2,3	2,6
70-74	1.730.727	796.359	934.368	3,7	1,7	2,0
75-79	1.739.422	751.620	987.802	3,7	1,6	2,1
80-84	1.379.394	546.906	832.488	2,9	1,2	1,8
85 y más	1.195.533	384.887	810.646	2,5	0,8	1,7

Fuente: Instituto Nacional de Estadística


## Comunidad Foral de Navarra

	COMUNIDAD FORAL DE NAVARRA			CFN. PORCENTAJES		
	AMBOS SEXOS	VARONES	MUJERES	AMBOS SEXOS	VARONES	MUJERES
<b>Total</b>	<b>643.864</b>	<b>320.702</b>	<b>323.162</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>	<b>100,0</b>
0-4	34.570	17.858	16.712	5,4	2,8	2,6
5-9	34.328	17.554	16.774	5,3	2,7	2,6
10-14	31.694	16.222	15.472	4,9	2,5	2,4
15-19	29.834	15.245	14.589	4,6	2,4	2,3
20-24	31.724	16.156	15.568	4,9	2,5	2,4
25-29	37.663	19.129	18.534	5,8	3,0	2,9
30-34	49.215	25.203	24.012	7,6	3,9	3,7
35-39	55.744	28.993	26.751	8,7	4,5	4,2
40-44	53.123	27.775	25.348	8,3	4,3	3,9
45-49	50.191	25.778	24.413	7,8	4,0	3,8
50-54	44.830	22.852	21.978	7,0	3,5	3,4
55-59	39.057	19.684	19.373	6,1	3,1	3,0
60-64	34.989	17.431	17.558	5,4	2,7	2,7
65-69	31.674	15.431	16.243	4,9	2,4	2,5
70-74	23.433	11.079	12.354	3,6	1,7	1,9
75-79	23.051	10.322	12.729	3,6	1,6	2,0
80-84	19.683	7.961	11.722	3,1	1,2	1,8
85 y más	19.061	6.029	13.032	3,0	0,9	2,0

Fuente: Instituto de Estadística de Navarra

<sup>4</sup> 2. eta 3. koadroaren artean antzemadako biztanleria aldea gertatzen da 3. koadroan etorkinen datuak kendu direlako.

2. irudia:



Bi kasuetan azpimarratzekoak dira 30etik 34 urte bitarteko adin-tartetik beherako adin piramidearen inbertsioa eta, gorago aipatutako arrazoiengatik, egoera horrek hezkuntza eta prestakuntza sistemetara bideratzen dituen errekerimenduak, emaitzen kalitateari dagokionez.

Nahitaezko eskolatzearen adin-tartean (15 urtetik beherakoak) Espainiako eta Nafarroako kopuruak (%14,9 eta %15,6, hurrenez hurren) erkatzen baditugu, EBkoekin oso antzekoak dira (%15,6). Espainia tarteko lekuan dago aipatzen ari garen adin-tartean.

## 5. koadroa:


Distribución de la población en la Unión Europea por tramos de edad y sexo. Año 2011

	Menores de 15 años	De 15 a 64 años	Mayores de 64 años
<b>UE-27</b>	<b>15,6</b>	<b>66,9</b>	<b>17,5</b>
Irlanda	21,3	67,2	11,5
Francia	18,5	64,7	16,7
Dinamarca	17,9	65,3	16,8
Luxemburgo	17,6	68,5	13,9
Reino Unido	17,5	65,9	16,7
Países Bajos	17,5	67,0	15,6
Bélgica	17,0	65,9	17,1
Chipre	16,8	70,5	12,7
Suecia	16,6	64,9	18,5
Finlandia	16,5	66,0	17,5
Eslovaquia	15,4	72,0	12,6
Estonia	15,3	67,6	17,0
Malta	15,3	69,2	15,5
Polonia	15,2	71,3	13,5
Rumanía	15,1	70,0	14,9
España	<b>15,1</b>	<b>67,8</b>	<b>17,1</b>
Portugal	14,9	66,0	19,1
Lituania	14,9	67,2	17,9
Austria	14,7	67,7	17,6
Hungría	14,6	68,7	16,7
Rep. Checa	14,5	69,9	15,6
Grecia	14,4	66,4	19,3
Letonia	14,2	67,4	18,4
Eslovenia	14,2	69,3	16,5
Italia	14,0	65,7	20,3
Alemania	13,4	66,0	20,6
Bulgaria	13,2	68,3	18,5

### 2.1.2. Eskolatzeko adinean dagoen biztanleria

Eskolatzeko adinean dagoen biztanleria da biztanleria osotik 0 eta 24 urte artean dutenen ehunekoa. Adin-tarte horretan daudenez hezkuntza zerbitzuak jaso ditzaketen pertsonak, hezkuntzarako garrantzi handieneko adierazle demografikoa da. Estatistikaren Institutu Nazionalak egindako Etengabeko Erroldaren Estatistikan ondorioztatzen da 2012. urtean eskolatzeko adinean zeuden biztanleen ehunekoa Espainian %25 dela. Asturiasko eta Galiziako autonomia erkidegoek (%18,7 eta %20,5, hurrenez hurren) dituzte baliorik baxuenak adierazle honetan eta baliorik altuenak, berriz, Andaluziak eta Murtziak (%27,8 eta %29,0, hurrenez hurren). Nafarroan eskolatzeko adinean daudenak %25,8 dira.


## 3. irudia:



15 urteko aldirian (1998. urtetik 2012. urtera bitartean) Espainian eskolatzeko garaian dauden 0tik 24 urte bitarteko biztanleen kopurua %-4,1 jaitsi da. 1998. urtean 12.330.991 ziren eta 2012.ean, aldiz, 11.829.171. Hala ere, garai berean, Espainiako populazioak %18,6 egin zuen gora (horrek esan nahi du eskolatzeko adinean dauden pisu erlatiboa 6 puntu jaitsi dela eta 1998. urtean %30,9 izatetik 2012. urtean %25 izatera pasatu dela).

Faktore hau autonomia erkidegoka aztertzen badugu, konturatuko gara, 1998. urtearekin alderaturik, autonomia erkidego guztietan populazio osoaren hazkunde erlatiboa positiboa dela 2012. urtean – Asturiasen izan ezik (-%0,4)–, baina eskolatzeko adinean dagoen populazioaren hazkunde desberdina da autonomia erkidegoetan. Hala, Asturias (%-28,1) eta Galizia (%-26,6) izan ziren murrizketa erlatiborik handiena izan zutenak eta, aitzitik, Melilla hiriak (%+20,5) eta Balear Uharteek (%+15,6) izan zuten gorakada erlatiborik handiena biztanle-tarte horretan, 1998tik 2012. urtera bitartean. Nafarroari dagokionez, aipatutako urte horietan adin guztietako biztanleen kopuruak %21,4 gora egin zuen bitartean eskolatzeko garaian zeudenek soilik %9 egin zuten gora.

4. irudia:



Nolanahi ere, aipatzekoa da azken hamarkadetan hezkuntzaren eta norbanakoen prestakuntzaren kontzeptio berri bat nagusitu dela, “bizitzan zeharreko prestakuntza” gisa definitzen dena (*long life learning*). Ikuspegi berri honek prestakuntzako eredu tradizionala malgutzen du, eta aintzat hartzen ditu ezagutzaren gizartearen ezaugarri diren bestelako prestakuntza beharrian garrantzitsuak, hala nola, pertsona guztien etengabeko prestakuntza, bereziki langileena, profesionalen eguneratze zientifiko eta teknikoak, hezkuntza sistema modu goiztiarrean utzi zutenei bigarren aukera ematea, edo modu informalean zein laneko esperientziaren bidez eskuraturiko kualifikazio profesionalak egiaztatzea. Zentzu horretan, eskolatzeko edo heziketa jasotzeko adinean dagoen biztanleria nabarmen zabalduko litzateke.

Ildo horretan, helduen prestakuntzara dedikaturiko atalean, txosten honek, Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetan eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren mendeko ikastetxe edo programetan emandako lanerako prestakuntzaren eta prestakuntza jarraituaren datuak jasoko ditu.

### 2.1.3. Atzerritarrak

Gure herrialdean biztanle atzerritarren gorakada da azken urteetan hezkuntza sisteman eragin handiena eta aipagarriena izan duten faktoreetako bat. 2013ko urtarrilaren 1ean Espainian 5.520.133 immigrante bizi ziren, biztanleria osoaren %11,8 inguruan. Nafarroan orduan 67.714 atzerritar bizi ziren, hots, biztanleria osoaren %10,5.


6. koadroa:

Población por nacionalidad y sexo. Datos del Padrón provisional a 01/01/2013

		TOTAL ESPAÑA			COMUNIDAD FORAL DE NAVARRA		
		AMBOS SEXOS	VARONES	MUJERES	AMBOS SEXOS	VARONES	MUJERES
<b>TOTAL</b>	<b>Total</b>	<b>47.059.533</b>	<b>23.165.987</b>	<b>23.893.546</b>	<b>643.864</b>	<b>320.702</b>	<b>323.162</b>
	Españoles	41.539.400	20.323.074	21.216.326	576.150	284.896	290.694
	Extranjeros	5.520.133	2.842.913	2.677.220	67.714	35.806	32.468


Nafarroan bizi diren etorkinen ehunekoa zertxobait jaitsi da azken hiru urteotan eta, termino absolututan, azken urtean 71.600 izatetik 67.714 izatera igaro gara. Joera hori eta Espainiarena, bere osotasunean hartuta, antzekoak dira.

5. irudia:



Atzerritarren ehunekoa, biztanleria osoarekin alderaturik, erkidego eta hiri autonomoen arabera, irudian ageri da. Kopuru handienetik txikienerako hurrenkeran, atzerritarrek %15 baino gehiago diren bost autonomia erkidegoak honako hauek dira: Balear Uharteak (%21,7), Valentiako Erkidegoa (%17,2), Murtziako Eskualdea (%16,2), Katalunia (%15,7) eta Madrilgo Erkidegoa (%15,6). Nafarroan etorkinak %10,5 dira, batez besteko nazionala baino bi puntu gutxiago.

6. irudia:




Adin-tarteen arabera banaketari dagokionez, gure herrialdean bizi diren espainiarren eta atzerritarren biztanleria-piramideak erkatuz gero, esan daiteke atzerritarren batez besteko adina anitzez ere txikiagoa dela. 20tik 44 urte bitarteko biztanleei dagokienez, atzerritarren %64,1 dira eta espainiar nazionalitatekoen artean, aldiz, %42,4.



7. irudia:

### Pirámide de población de España a 1 de enero de 2012



Nafarroako etorkinen jatorriari erreparatzen badiogu, asko jaitsi dira herrialde iberoamerikarretatik datozenak, bereziki Ekuadortik –azken urte hauetan estatistikaren gainean egon dira–. Aitzitik, Europako ekialdeko herrialdeetatik (Errumania eta Bulgaria) datozenak asko igo dira eta Marokotik datozenak ere bikoiztu egin dira azken urteotan.

Datu hauek berebiziko garrantzia dute hezkuntzaren plangintzan, etorkin multzoen ezaugarri sozial eta kulturalengatik bereziki.

7. koadroa:

Observatorio Permanente de la Inmigración en Navarra (OPINA)

### Evolución de las principales nacionalidades en Navarra (2000-2013)\*

	2000	2005	2010	2013*
Marruecos	1.300	5.121	9.694	10.960
Rumania	193	1.969	6.599	7.899
Bulgaria	82	2.768	6.492	7.160
Ecuador	643	14.011	9.494	5.253
Portugal	1.597	2.588	5.912	4.965
Colombia	530	4.825	4.384	3.054
Argelia	640	2.774	3.141	2.951
Bolivia	8	1.049	3.227	2.805
Perú	no datos	1.213	2.280	1.760
Brasil	229	883	1.876	1.699
Suma de estos países	5.225	37.201	53.099	48.506
<b>Total población extranjera</b>	<b>9.188</b>	<b>49.882</b>	<b>71.369</b>	<b>67.714</b>

\* Datos provisionales a 1 de enero de 2013

Fuente INE. Elaboración propia

## 2.2. Alderdi sozioekonomikoak

Herrialde bateko hezkuntza testuingurua zehazteko funtsezkoak dira alderdi sozioekonomikoak. Ez dira garrantzitsuak soilik hezkuntzako gastuari aurre egiteko aukeretan eragina dutelako; aitzitik, gizartearen eta lan munduaren beharrak aldakorrek direnez jarduerak horien arabera zehazten eta lehenesten direlako dira hain garrantzitsuak.

### 2.2.1. Barne Produktu Gordina


Barne Produktu Gordina (BPG) da herrialde edo eskualde bateko azken ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenaren moneta balioa tarte batez (normalean urtebete) neurtzen duen makromagnitude nagusia. BPGa gizarte baten ongizate materialaren neurri gisa baliatzen da.

2012-2013 ikasturteari dagokion epean Nafarroako BPGaren joera negatiboa izan da (-1,6), Espainian gertatu denaren antzera. Datu hauek bilakaera positiboa izaten ari dira 2013. urtean eta atzerapen-aldi luze baten ondoren 2013ko hirugarren hiruilekoa positiboa izan da.


8. koadroa: BPG Nafarroan eta BPG Espainian

P.I.B. EN NAVARRA	FECHA ÚLTIMO DATO DISPONIBLE	UNIDAD DE MEDIDA / Variación	DATO TRIMESTRES ANTERIORES				TRIMESTRE ACTUAL
			2T 2012	3T 2012	4T 2012	1T 2013	2T 2013
PIB Trimestral (variación s/trimestre anterior)	2T 2013	% Real	-0,5	-0,3	-0,4	-0,6	-0,4
PIB Interanual (variación s/mismo tri. año anterior)	2T 2013	% Real	-1,4	-1,8	-1,8	-1,7	-1,6
PIB Media Anual (media 4 últimas variaciones interanuales)	2T 2013	% Real	0,1	-0,7	-1,4	-1,7	-1,7
<b>P.I.B. EN ESPAÑA</b>							
PIB Trimestral (variación s/trimestre anterior)	2T 2013	% Real	-0,5	-0,4	-0,8	-0,4	-0,1
PIB Interanual (variación s/mismo tri. año anterior)	2T 2013	% Real	-1,6	-1,7	-2,1	-2,0	-1,6
PIB Media Anual (media 4 últimas variaciones interanuales)	2T 2013	% Real	-0,9	-1,3	-1,7	-1,9	-1,9

8. irudia:



Evolución del PIB en España




## 2.2.2. Familiaren errenta

Biztanleko eskuragarri dagoen familia errenta honela definitzen da: herritar batek, batez beste, zergak ordaindu ondoren, bizitzeko, aurrezteko eta inbertitzeko jasotzen dituen urteko diru-sarrerak. Familien testuinguru ekonomikoa irudikatzeko adierazlerik esanguratsuenetakoa da. Enplegutik eta bestelako iturrietatik etorritako diru-sarrerak hartzen ditu kontuan. Ez du bat egiten biztanleko BPGarekin, izan ere, azken horrek ez baititu aintzat hartzen subsidioak edo laguntzak, eta aldiz, kontabilizatu egiten baititu enpresetan gelditzen diren irabaziak, ez direnak familiendako errenta eskuragarria.

2012. urtean Nafarroako familia errenta, familia bakoitzeko, 29.071 eurokoa izan zen, erkidego guztietan altuenetan hirugarrena eta Espainiako batez bestekoa baino ia 7.000 euro altuagoa.

9. irudia:




## 2.2.3. Jarduera sektoreak

Begi bistakoa da herrialde edo eskualde baten egitura ekonomikoa oso elementu garrantzitsua dela hezkuntza eskaintzaren plangintzaren testuinguruan, prestakuntza eskaintza baldintzatu beharko luken neurrian, batez ere, gizarte eta ekoizpen sistemarekin lotura zuzena duten lanbide ikasketen kasuan.

Estatistika Institutu Nazionaleko datuen arabera, Espainian zein Nafarroan, zerbitzuen sektorea (hirugarrena) da askogatik indartsuena baina, ekoizpen jarduera osoaren aldean, balioak pixka bat apalagoak dira Nafarroan (%60) Espainia osoan baino.


10. irudia:



106 Primera estimación

Fuente: Instituto Nacional de Estadística, Contabilidad Regional de España, BAZ 2008 (CRF-2008) y elaboración propia.


11. irudia:



### 2.2.4. Lan merkatua: aktiboak, lanean ari direnak eta lanean ari ez direnak


Biztanleriaren lan jarduera hezkuntzan argien eragiten duten testuinguruko elementuetako bat da eta, era berean, hezkuntzak lan jardueran ere eragiten du. Aktibitatearen, okupazioaren eta langabeziaren gaineko datuek Nafarroa posizio hobexegoan uzten dute, Estatu mailako datuekin alderatuz, nahiz eta Europar Batasunean dauden mailetatik urruti izan oraino.

12. irudia:



Biztanleria Aktiboaren Inkestako Nafarroako azkeneko datuak aztertuz gero, enplegu tasaren bilakaeran hobekuntza arina sumatzen da, nolana ere oso urruti krisi aurrean gure Foru Komunitatean zeuden kopuruetatik. Garai hartan %5aren ingurukoa zen, hau da, hondarreko langabeziatzat har daitekeena.

13. irudia:



**EPA en Navarra. III trimestre de 2013.**



Gaur egun langabeak 55.500 dira. Kopurua ez dago berdin banatuta gizonezkoen (29.300) eta emakumezkoen (26.200) artean, ezta sektore guztietan ere. Zerbitzuen sektoreak du langabe gehien, alabaina, lanean ari diren pertsona gehien biltzen dituen sektorea ere bada.

14. irudia:



## 2.3. Gizarte eta hezkuntza alderdiak

Gizartearen hezkuntza maila eta hezkuntzarekiko eta prestakuntzarekiko itxaropenak hezkuntza sistemaren prozesuetan, politiketan eta emaitzetan erabat eragiten duten testuinguruaren gizarte eta hezkuntza aldagaiak dira. Gainera, aurreko hezkuntza politiken emaitza pilatua dira.

### 2.3.1. Biztanleria helduaren ikasketa maila

Biztanleria helduak erdietsitako ikasketa mailak adierazten digu errealitate sozialean hezkuntza sistemak izandako eragin geroratu. Adierazle honetarako bi kategoria bereizten dira, bat orokorra, 25-64 adin-tartekoa, lan egiteko adinean diren helduena, eta bestea partziala, 25-34 adin-tartekoa, berriki produkzio-sisteman sartu direnena edo sartzeaz daudenena.

Datuak 1997ko Hezkuntzarako Nazioarteko Sailkapen Normalizatuaren arabera (CINE 97) eskaini dira<sup>5</sup>.

9. koadroa:

**Distribución porcentual de la población española, con edades comprendidas entre 25 y 34 años, por niveles de formación en las comunidades y ciudades autónomas. Año 2011**

	Estudios básicos (CINE 0-2)	Estudios medios (CINE 3-4)	Estudios superiores (CINE 5-6)
País Vasco	19,1	22,1	58,8
Madrid, Comunidad de	25,5	26,2	48,3
Aragón	27,3	26,7	46,1
Navarra, Com. Foral de	30,0	21,1	49,0
Castilla y León	31,2	23,4	45,3
Rioja, La	31,3	27,7	41,0
Asturias, Principado de	31,9	21,6	46,5
Galicia	33,2	23,7	43,1
Cantabria	34,1	24,7	41,2
Cataluña	34,8	25,2	40,0
<b>Total Nacional</b>	<b>35,5</b>	<b>25,3</b>	<b>39,2</b>
Comunidad Valenciana	36,3	25,9	37,9
Castilla - La Mancha	40,3	25,8	33,9
Canarias	40,4	30,5	29,0
Baleares, Islas	40,6	31,5	27,9
Andalucía	43,9	25,2	30,9
Extremadura	46,1	19,7	34,2
Murcia, Región de	46,9	24,7	28,3
Ceuta y Melilla	57,1	21,0	21,9

<sup>5</sup> CINE 0: Eskolaurrea. CINE 1: Lehen Hezkuntzako edo Oinarrizko Hezkuntzako lehen zikloa. CINE 2: Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa edo Oinarrizko Hezkuntzako bigarren zikloa. CINE 3: Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa. CINE 4: Derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntza, goi mailakoa ez dena. CINE 5: Goi mailako Hezkuntzako lehen zikloa. CINE 6: Goi mailako Hezkuntzako bigarren zikloa.

HZMren azken datuen arabera, Nafarroa da, Euskal Autonomia Erkidegoaren ondoren, adin horretan goi mailako ikasketak dituzten biztanle gehien dituen autonomia erkidegoa, hots, %49 (Espainiako batez bestekoa %39,2 da). Maila baxuei dagokienez (CINE 1 eta 2), Foru Komunitatea Espainiako batez bestekoa baino %5,5 beherago dago, adin-tarte honetako pertsonen %30ek baitituzte maila horietako ikasketak.

10. koadroa:

**Distribución porcentual de hombres y mujeres, con edades comprendidas entre 25 y 34 años, por niveles de formación en las comunidades y ciudades autónomas. Año 2011**


Hombres	Estudios	Estudios	Estudios	Mujeres	Estudios	Estudios	Estudios
	básicos (CINE 0-2)	medios (CINE 3-4)	superiores (CINE 5-6)		básicos (CINE 0-2)	medios (CINE 3-4)	superiores (CINE 5-6)
Pais Vasco	22,5	22,2	55,2	Pais Vasco	15,7	21,9	62,4
Madrid, Comunidad de	30,0	24,3	45,7	Madrid, Comunidad de	21,0	28,1	50,9
Aragón	30,5	24,7	44,7	Aragón	23,8	28,7	47,5
Navarra, Com. Foral de	34,6	23,3	42,1	Navarra, Com. Foral de	25,1	18,7	56,1
Asturias, Principado de	36,3	20,2	43,6	Castilla y León	25,8	21,5	52,7
Castilla y León	36,4	25,3	38,4	Rioja, La	25,9	30,9	43,2
Rioja, La	36,5	24,6	38,9	Galicia	27,1	22,1	50,8
Galicia	39,2	25,2	35,5	Asturias, Principado de	27,4	23,0	49,5
Cantabria	39,6	25,5	34,9	Comunidad Valenciana	28,3	27,3	44,4
Cataluña	40,8	25,9	33,3	Cantabria	28,5	23,9	47,6
<b>Total Nacional</b>	<b>41,0</b>	<b>24,6</b>	<b>34,4</b>	Cataluña	28,7	24,5	46,7
Comunidad Valenciana	43,9	24,5	31,6	<b>Total Nacional</b>	<b>29,8</b>	<b>26,1</b>	<b>44,1</b>
Castilla - La Mancha	44,9	24,0	31,1	Canarias	33,4	33,8	32,8
Baleares, Islas	45,9	30,1	24,0	Baleares, Islas	34,9	33,1	32,0
Canarias	47,3	27,4	25,4	Castilla - La Mancha	35,2	27,7	37,1
Andalucía	49,1	23,8	27,1	Extremadura	38,0	17,9	44,1
Murcia, Región de	50,5	24,4	25,0	Andalucía	38,4	26,6	35,0
Extremadura	53,8	21,4	24,8	Murcia, Región de	42,9	25,1	32,0
Ceuta y Melilla	54,3	23,0	22,7	Ceuta y Melilla	59,9	19,0	21,1

Prestakuntza mailen gizonezkoen eta emakumezkoen arteko banaketari erreparatuz gero, gizonezkoen hezkuntza atzerapenaren arazoa agerian gelditzen da, gure herrialdean kronikoa bilakatzeko arriskua duena. 25etik 34 urte bitarteko heldu gazte horien sexuari erreparatuz gero, egiazta daiteke 2011. urtean emakumezkoen prestakuntza maila gizonezkoena baino handiagoa dela lurralde nazionalean. 2011. urtean, 25etik 34 urte bitarteko emakumezko gazteen %44,1ek goi mailako prestakuntza zuen eta, aitzitik, goi mailako prestakuntzadun adin-tarte bereko gizonezkoak %34,4 izan ziren. Kontrako aldean, gehienez ere oinarritzko ikasketak lortzen dituen heldu gazteen ehunekoa kontuan hartzen denean, genero-arraila antzekoa da (ehuneko 11,2 puntukoa), nahiz eta kontrakoa (emakumezkoak, %29,8 eta gizonezkoak, %41).

Nafarroan joera sakonagoa da: goi mailako heziketa duten emakumezkoak %56,1 diren bitartean gizonezkoak %42 besterik ez dira; beraz, 14 puntuko aldea dago.

## 15. irudia:

Porcentaje de la población que ha completado al menos la Educación Secundaria Postobligatoria (CINE 3-6) por grupos de edad (de 25 a 34 años y de 25 a 64 años) en las comunidades y ciudades autónomas. Año 2011



Belaunaldiek heziketa-maila handiagoetara nola jo duten baloratzeko modua da Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzako maila (CINE 3-6) gutxienez osatu duten helduen proportzioa konparatzea bi adin-tarte hauetan: 25etik 34 urte bitarteko taldea versus 25etik 64 urte bitarteko taldea. Irudian ageri da konparazio horren 2011ko emaitza, erkidegoen eta hiri autonomiadunen arabera antolatua. Konparazio horretan autonomia erkidegoak ordenaturik ageri dira Derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntza gutxienez osatu duten 25etik 34 urte bitarteko heldu gazteen ehunekoaren arabera. Autonomia erkidego guztietan ikusten da talderik gazteenak prestakuntza maila handiagoak eskuratzen ari direla. Konputu nazionalen, batez beste, ehunekoetan 10,7 puntuko hobekuntza da. 25etik 34 urte bitarteko biztanleen %64,5ek gutxienez erdi edo goi mailako ikasketak dituzte eta, aitzitik, 25etik 64 urte bitarteko %53,8k. Inguruabar honek adierazten du Espainian bizi direnen batez besteko prestakuntza mailaren belaunaldi hobekuntza.

Nafarroako balioak antzekoak dira, aipatutako adin-tarteetan %61,6tik %70era igaro baita. Batez besteko nazionalarekin dagoen aldea txikiagoa da 25etik 64 urte bitarteko biztanleen prestakuntza maila Estatuko handiena delako, Madrilkoarekin eta Euskadikoarekin batera.




## 11. koadroa:

Comparación del nivel de formación de la población con edades comprendidas entre 25 y 34 años con el de la población con edades entre 25 y 64 años, entre hombres y mujeres. Año 2011

Hombres			Mujeres		
	De 25 a 34 años	De 25 a 64 años		De 25 a 34 años	De 25 a 64 años
País Vasco	77,5	67,7	País Vasco	84,3	66,3
Madrid, Comunidad de	70,0	67,7	Madrid, Comunidad de	79,0	68,5
Aragón	69,5	59,6	Aragón	76,2	58,6
Navarra, Com. Foral de	65,4	61,4	Navarra, Com. Foral de	74,9	61,8
Asturias, Principado de	63,7	55,5	Castilla y León	74,2	57,0
Castilla y León	63,6	52,5	Rioja, La	74,1	58,0
Rioja, La	63,5	54,4	Galicia	72,9	52,0
Galicia	60,8	49,7	Asturias, Principado de	72,6	55,9
Cantabria	60,4	58,2	Comunidad Valenciana	71,7	54,7
Cataluña	59,2	52,8	Cantabria	71,5	59,1
<b>Total Nacional</b>	<b>59,0</b>	<b>52,4</b>	Cataluña	71,3	55,7
Comunidad Valenciana	56,1	49,6	<b>Total Nacional</b>	<b>70,2</b>	<b>55,2</b>
Castilla - La Mancha	55,1	45,6	Canarias	66,6	51,0
Baleares, Islas	54,1	47,9	Baleares, Islas	65,1	54,5
Canarias	52,7	44,3	Castilla - La Mancha	64,8	47,3
Andalucía	50,9	43,9	Extremadura	62,0	42,6
Murcia, Región de	49,5	46,4	Andalucía	61,6	46,6
Extremadura	46,2	37,0	Murcia, Región de	57,1	46,9
Ceuta y Melilla	45,7	46,7	Ceuta y Melilla	40,1	39,0

## 16. irudia:


Porcentaje de la población que ha completado al menos la Educación Secundaria Postobligatoria (CINE 3-6) por grupos de edad (de 25 a 34 años y de 25 a 64 años) en los países europeos. Año 2011



Hurrengo grafikoan Europako 25etik 34 urte bitarteko heldu gazteen eta 25etik 64 urte bitarteko helduen 2011ko banaketa ageri da, ehunekoetan emana eta ikasketa mailaren arabera. Europar Batasuneko herrialdeak goi mailako bigarren hezkuntzako mailak (CINE 3-6; hau da, CINE 3-4 ETA CINE 5-6 kategoriei dagozkien bi ehuneko batura) gutxienez lortu dituzten heldu gazteen ehunekoaren arabera ordenatu dira, handitik txikirako hurrenkeran. Hurrenkera horren arabera, Espainia %64,5arekin hogeita bosgarren tokian dago, Europar Batasuneko batez bestekotik (%81) 16,5 puntu beherago eta, Finlandia (%90,2) edo Alemania (%86,8) moduko herrialdeekin alderatuz gero, askoz ere beherago.

## 17. irudia:

Distribución porcentual de la población, con edades comprendidas entre 25 y 34 años, por niveles de formación, en los países de la Unión Europea. Año 2011



12. koadroa:

Distribución porcentual de la población, con edades comprendidas entre 25 y 34 años, por niveles de formación, en los países de la Unión Europea. Año 2011

	Estudios básicos (CINE 0-2)	Estudios medios (CINE 3-4)	Estudios superiores (CINE 5-6)
Rep. Checa	5,7	69,1	25,1
Eslovaquia	5,9	68,4	25,7
Polonia	5,9	54,9	39,2
Eslovenia	6,0	60,2	33,8
Finlandia	9,8	50,8	39,4
Lituania	10,2	41,4	48,4
Austria	11,8	67,0	21,2
Hungría	12,7	59,2	28,1
Suecia	12,7	44,4	42,9
Alemania	13,2	59,1	27,7
Estonia	14,2	46,7	39,1
Irlanda	15,1	37,5	47,4
Chipre	15,3	34,2	50,5
Luxemburgo	16,7	36,7	46,6
Francia	16,7	40,3	43,0
Letonia	17,2	47,7	35,1
Reino Unido	17,2	38,9	43,8
Bulgaria	17,9	54,9	27,2
Bélgica	18,1	39,4	42,5
Países Bajos	18,2	41,9	39,9
<b>UE-27</b>	<b>19,0</b>	<b>46,8</b>	<b>34,2</b>
Dinamarca	19,7	41,7	38,6
Grecia	23,3	44,6	32,0
Rumanía	23,9	53,5	22,6
Italia	28,7	50,3	21,0
<b>España</b>	<b>35,5</b>	<b>25,3</b>	<b>39,2</b>
Portugal	44,3	28,8	26,9
Malta	53,0	22,2	24,8

Espainiako eta EBko herrialdeetako prestakuntza mailekin egindako konparazioan azpimarragarriak dira ezarritako talde bakoitzaren balioak. EBko batez bestekoak erdiko mailak (CINE 3 eta 4) lortu dituztenek nagusiki osatutako taldea erakusten du, "\^" baten forma duena. Espainian, berriz, banaketak "V" baten forma du, ehunekorik txikiena duen taldea tartekoa delako (EBn ia-ia %50 da eta Espainian doi-doi %25).

Datu hau eragozpen handia da prestakuntza mailak gure herrialdeko inguru sozioekonomikoaren beharretara egokitzeko, Lanbide Heziketan tituludunik ez izateak prestakuntza enplegu-mailetara egokitzea baldintzatzen duelako eta, orobat, pertsona askok beren prestakuntza mailari dagozkion lanak baino maila apalagokoak egiten dituztelako eta egoera horrek diru-xahutzea eta etsipena dakarziolako jendeari.

### **2.3.2. Hezkuntzak duen garrantzia esparru sozial eta politikoan**

Atal honetan Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Arartekoak, hots, Nafarroako bizitza politiko eta sozialean oso garrantzitsuak diren bi erakundek, hezkuntzari dagokionez izandako jardura jasotzen da; eta aipatzen dira erkidego mailako prentsa idatzian, tiradarik handieneko bi egunkarietan (Diario de Navarra eta Diario de Noticias) orri gehien hartu dituzten eta intentsitate edo maiztasun handiagoz azaldu diren hezkuntzako gaiak. Horrekin hezkuntza bera zein testuinguru sozial eta politikotan ematen den azaldu nahi da.

#### **2.3.2.1. Parlamentuaren jardura**

Atal honetan azaltzen da Nafarroako Parlamentuaren eremuan unibertsitatekoa ez den hezkuntzaren inguruan izandako jardura. Ematen diren datuak Nafarroako Parlamentuko VIII. Legegintzaldiko jardueren memorian, 2012ko maiatzaren 22tik 2013ko maiatzaren 22ra bitarteko aldiari jasotako arteko laburpen bat dira.

Parlamentuko osoko bilkuran aztertutako gaiak

Nafarroako Parlamentuko osoko bilkurak **37 foru lege** onetsi zituen eta horietatik 3 hezkuntza gaietara buruzkoak dira:

17/2012 Foru Legea, urriaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen baita uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea, Batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta Gizarte Garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimenetara ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena.

19/2012 Foru Legea, abenduaren 4koa, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntza batzorde nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua aldatzen duena.

6/2013 Foru Legea, otsailaren 25koa, bermatutako prestazio sozialak eta ikasketetarako beka enbargaezinak deklaratzeko duena.

**Onetsitako 187 ebazpenetatik** 17k hezkuntzako gaiekin zerikusia dute:

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Biurdana ikastetxea handitzearen kontra irakasleek egindako txosteneko puntuak kontuan hartuz (Hezkuntza batzordea, 2012ko ekainaren 19koa).

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da landa eremuko eskolak mantentzeko zenbait puntu kontuan hartuz (Hezkuntza batzordea, 2012ko ekainaren 19koa).

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da 0tik 3 urte bitarteko haurrak hartzen dituzten erakunde guztien zerrenda egitera (Hezkuntza batzordea, 2012ko ekainaren 19koa).

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da zenbait ikastetxetan garraio publikoa finantzatzeko segitzera (Hezkuntza batzordea, 2012ko urriaren 10koa).

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sarrigurengo ikastetxe publikoko espazio gabeziari premiazko konponbidea ematera (Hezkuntza batzordea, 2012ko ekainaren 19koa).

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Sarrigurengo gaur egungo eskolatzeko beharrak, epe ertainekoak eta epe luzekoak betetzeko hezkuntza dotazioen plana aurkezteko (Osoko bilkura, 2012ko urriaren 26koa).

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da, Testuliburuaren doakotasun programaren ikasle onuradunei zuzenduta, eskolako material suntsikorra eta/edo osagarria eskuratzeko beka eta laguntza sistema ezartzera (Osoko bilkura, 2012ko azaroaren 9koa).

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Iruñerriko iparraldean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe berri bat eraikitzeko proiektua egin eta ekitera (Hezkuntza batzardea, 2013ko urtarrilaren 16koa).

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da eskola porrota eta eskola uztea pixkanapixkanaka murriztu eta ezabatzeko beharrezkoak diren neurri guztiak diseinatu eta garatzera (Osoko bilkura, 2013ko urtarrilaren 25ekoa).

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoko espezialitate jakin batzuetan aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrenda berriak eratzeko deialdiaren ebazpena indarrrik gabe uztera (Hezkuntza batzardea, 2013ko otsailaren 13koa).

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitate ikasketak ematen dituzten ikastetxe publikoak beren zereginak betetzeko beharrezkoak dituzten baliabidez hornitzeko aurrekontuan dirua izateko konpromiso nahikoa bere gain hartzera (Osoko bilkura, 2013ko otsailaren 14koa).

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Tuterako Fernando Remacha Kontserbatorioan musikako lanbide ikasketen eskaintza mantendu eta handitzeko beharrezkoa den dirukopurua Hezkuntza Departamentuko aurrekontuetan esleitzera (Osoko bilkura, 2013ko martxoaren 1ekoa).

Ebazpena. Nafarroako Parlamentuak elkartasuna erakusten dio Cascanteko Santa Vicenta María Ikastetxe Publikoko hezkuntza erkidegoari, uste duelako ikastetxe horren segurtasunak ez duela krisiaren mendeko izan behar (Osoko bilkura, 2013ko martxoaren 1ekoa).

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Espainiako Gobernua premiatzen du Hezkuntza Kalitatea hobetzeko lege proiektua erretiratzera (Osoko bilkura, 2013ko martxoaren 14koa).

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako beste herri batzuetan D ereduan eskolatuta dauden eremu ez-euskalduneko herrietan bizi diren ikasleen garraio eta jantokiko gastuak bere gain hartzera (Osoko bilkura, 2013ko apirilaren 12koa).

Ebazpena. Horren bidez, Espainiako Gobernua premiatzen da enplegu, hezkuntza, prestakuntza, mugikortasun, gazteria eta gizarte inklusiorako finantzaketa handitzera (Osoko bilkura, 2013ko apirilaren 25ekoa).

Ebazpena. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da udaletako musika eskolen sektorea ordenatu eta egonkortzeko bide orria sortzera (Osoko bilkura, 2013ko apirilaren 25ekoa).

**86 adierazpen instituzionaletatik** ondokoak hezkuntzari buruzkoak dira:

Adierazpen instituzionala. Horren bidez Nafarroako Parlamentuak adierazten du bokazioa eta borondatea duela ahalik eta nafar gehienek euskara ikas dezaten.(Eledunen batzarra, 2013ko urtarrilaren 28koa).

Adierazpen instituzionala. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Kalitatea hobetzeko Lege Organiko deituaren aurreproiektua berriro errefusatzeko du eta Espainiako Gobernua hura erretiratzeko premiatzen du. (Eledunen batzarra, 2013ko maiatzaren 6koa).

### **Hezkuntza batzordeak landutako gaiak:**

<b>13. laukia – Nafarroako Parlamentuko Hezkuntza batzordeak landutako gaiak</b>	
<b>Ekimen mota</b>	<b>Kop.</b>
<b>Foru legerako egitasmoak</b>	<b>1</b>
<b>Agerraldiak</b>	<b>29</b>

<b>Lansaiok</b>	<b>23</b>
<b>Mozioak</b>	<b>12</b>
<b>Galderak</b>	<b>4</b>
<b>Bisitaldiak</b>	<b>9</b>

### Foru legerako egitasmoa:

- Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntza batzorde nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua aldatzen duena.

### Agerraldiak:

- Hezkuntzako kontseilariarena, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako aurrematrikulazio kanpainako emaitzen berri eman eta zenbait ikastetxetan ratioa ehuneko 10 igotzeari buruz argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, Espainiako Gobernuak hezkuntza esparruan egin nahi dituen murrizketen eta Nafarroan izanen duten eraginaren gaineko argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, gobernu zentralak hezkuntzan iragarritako murrizketen eta Foru Komunitatean izanen duten aplikazioaren gainean argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, derrigorrezko hezkuntza mailetan testuliburuen doakotasun programa ezabatzearen gaineko argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, hezkuntza esparruan gastu publikoa arrazionalizatzeari buruzko apirilaren 20ko 14/2012 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoaren aplikazioaren gaineko argibideak emateko.
- Nafarroako Eskola Kontseiluko buruarena, "Ikasleen iritzia etxeko lanen gainean" txostena azaltzeko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, Udalez Gaiendako Plan Sektorial bati ekiteko iragarkiarene gaineko argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, Hezkuntza Departamentuan 132 milioiren murrizketak izanen duen eraginaren gaineko argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, ekainaren 13an, 40 irakaslek bilera egitea eskatu zutenean, gertatutakoaren gaineko argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, "Bertsolaritza Hezkuntzan" programa ezabatzearen gaineko argibideak emateko.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearena, aurrekontuko murrizketek izanen duten eraginaren gaineko argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, sexua dela-eta ikasleak bereizten dituzten ikastetxeei dagokienez, bere Departamentuak duen posizioa zein den azaltzeko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, aurtengo uztailaren 5ean Euskal Autonomia Erkidegoarekin berariaz sinatutako berariazko hitzarmenaren gaineko argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, Hezkuntza Kalitatearen Hobekuntzarako Lege Organikoaren aurreproiektuaren eta Hezkuntzako Konferentzia Sektorialaren hurrengo bileran gai horren gainean izanen duen posizioaren gaineko argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, autonomia erkidegoetako Hezkuntzako kontseilariak abenduan eginen duten bilerarako eraman behar dituen proposamenen argibideak emateko eta parlamentu-taldeek ekarpenak jasotzeko.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearena, 2012-2013 ikasturtearen inaugurazio ofiziala dela-eta, irailaren 7an izan ziren istiluen gaineko argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, ebaluazio diagnostikoko probetan Nafarroak lortutako emaitzen gaineko argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, Nafarroako Gobernuak 2012ko urriaren 10ean iragarritako Hezkuntza Departamentuaren egituraren berrikuspenaren gaineko argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, Eskualdeetako eta eremu urriko hizkuntzen Europako Gutunaren jarraipen txostenaren gaineko balorazioa emateko.

- Hezkuntzako kontseilariarena, LOMCEren aldaketen, aldaketa horiek Nafarroako hezkuntza sisteman dituzten ondorioen eta Hezkuntzako Konferentzian izandako posturaren gaineko argibideak emateko.
- Nafarroako Eskola Kontseiluko buruarena, Nafarroako hezkuntza sistemaren gaineko 2011-2012 ikasturteko txosteneko datuak azaltzeko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, ikastetxeetan ingelesez ikasteko programak sartzeko erabili diren jarraibideen gaineko argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, Iruñeko Vázquez de Mella eta Uharteko Virgen Blanca ikastetxe publikoetako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako aurreinskripzio kanpainaren gaineko argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, Lanbide Heziketa Dualaren gaineko argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, Nafarroako Antzerki Eskolari dagokionez Departamentuak dituen planen gaineko argibideak emateko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, Hizkuntza Gaitasunaren Europako Azterlana aurkezteko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, LOMCEren Txosten Ekonomikoaren gaineko balorazioa azaltzeko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, 2013-2014 ikasturterako Haur Hezkuntzako aurrematrikulazio kanpainako emaitzak eta kanpaina horren garapena azaltzeko.
- Hezkuntzako kontseilariarena, Nafarroako herrietako eta, bereziki, Eguesibarko eskolatze beharrei erantzuteko epe laburrean, ertainean eta luzean aurreikusitako hezkuntza azpiegitura publikoen gaineko argibideak emateko.

#### **Lan saioak:**

- Unibertsitatekoa ez den irakaskuntza publikoko Langile Irakasleen Batzordeko sindikatuen ordezkari batekin, zenbait gairi buruz argibideak emateko.
- Unibertsitatekoa ez den irakaskuntza publikoko Langile Irakasleen Batzordeko sindikatuen ordezkari batekin, Espainiako Gobernuak apirilaren 17an aurkeztutako neurriak baloratzeko.
- Donapea IIPko irakasleen eta irakasle ez diren langileen ordezkari batekin, "Mirando el centro y su entorno" txostena aurkezteko.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko Ikasle Abertzaleak, Eraldatuz, Grupo Universitario eta Aula de la Experiencia-ko ordezkariekin, tasa berriak ezartzearen gainean argibideak emateko.
- Ikastetxeetako Herrikoa eta Sortzen gurasoen elkarteetako ordezkariekin, testuliburuak finantzatzearen gainean haiek duten iritzia zein den jakiteko.
- Nafarroako Merkataritza Federazioko zuzendari kudeatzailearekin, testuliburuak finantzatzearen gainean hark duen iritzia zein den jakiteko.
- Ikastetxeetako zuzendarien elkarteko ordezkariekin, testuliburuak finantzatzearen gainean haiek duten iritzia zein den jakiteko.
- Euskarabideko zuzendari kudeatzailearekin, V. Inkesta Soziolinguistikoaren datuak azaltzeko.
- Unibertsitatekoa ez den irakaskuntza publikoko Langile Irakasleen Batzordeko ordezkari batekin, murrizketen aurrean haiek duten iritzia zein den jakiteko.
- Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoko ordezkari batekin, hezkuntzako instalazioak eraikitzeke esleipenen gainean argibideak emateko.
- Nafarroako Kriminologoaren Elkarteko buru den Nahikari Sánchez andrearekin, "Navarra Detecta" proiektuaren gainean argibideak emateko.
- Tuterako Kontserbatorioko zuzendaritzarekin eta gurasoen elkartearekin, 2012rako murrizketaren gaineko iritzia eta balorazioa zein den jakiteko.
- "Construyendo Sarriguren: Hazi eta Hezi" plataformarekin, Sarriguren IPko egoeraren gainean argibideak emateko.
- Behatokiarekin eta eremu ez-euskalduneko D ereduko ikasleen gurasoen ordezkariekin, haien gaur egungo problematikaren gainean argibideak emateko.
- Nafarroako Udaletako Musika Eskolen Elkarteko Zuzendaritza Batzordeko buruarekin, udaletako musika eskolen finantzaketaren gainean argibideak emateko.
- Nafarroako euskara teknikarien ordezkari batekin, diru-laguntzen deialdi berriaren gainean argibideak emateko.
- Ermitagaña Ikastetxe Publikoko gurasoen elkartearekin, bere kiroldagiko instalazioen egoera azaltzeko.

- Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioko eta Musika Kontserbatorio Profesionaleko bitarteko irakasleen ordezkariekin, haien lan egoeraren gainean argibideak emateko.
- APS, ANPE, ELA, CSIF eta UGTko ordezkariekin, hezkuntza legea erreformatzeko aurreproiektuaren (LOMCE) gainean dituzten iritziak azaltzeko.
- LB, STEE-EILAS, CCOO eta AFAPNAko ordezkariekin, hezkuntza legea erreformatzeko aurreproiektuaren (LOMCE) gainean dituzten iritziak azaltzeko.
- Ikasle Abertzaleen ordezkariekin, hezkuntzako lege berriaren (LOMCE) gainean duten iritzia azaltzeko.
- AEK-Korrikako ordezkariekin, Korrikaren 18. edizioaren gainean argibideak emateko.
- Ilan Pappé jaunarekin, Palestinan 2005ean hasitako BDS kanpainaren gainean duen iritzia azaltzeko.

**Mozioak: Honako hauen bidez Nafarroako Gobernua premiatzen da:**

- Ikerketa Mediko Aplikatuaren Fundazioarekin martxoaren 18an izenpetutako hitzarmena deuseztatzea.

Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak dauden ikasgeletan ratioa ez handitzera.

Irakasleen txostenean adierazitako puntuak, hots, Biurdana ikastetxea handitzearen kontrakoak kontuan hartzea.

Landa inguruko eskolak mantentzeko zenbait puntu kontuan hartzea.

Nafarroako 0tik 3 urte bitarteko hezkuntza zikloa arautzen duen 28/2007 Foru Dekretua aldatzen duen dekretuaren egitasmoa erretiratzera.

Euskarabidea Lehendakaritza Departamentuari atxikitzea.

Hezkuntza Departamentua zenbait ikastetxetan eskolako garraio publikoa finantzatzen segitzera.

Donapea IIPko instalazioak gaur egun dauden lekuan mantentzeko aukera baloratuko duen txosten bat idaztera.

Sarrigurengo ikastetxe publikoa ahalik eta lasterren handitzera.

Cascanteko HLHIPko eraikin berria eraikitzeko obrak hastera.

Iruñeko iparraldean DBHko ikastetxe berri baten proiektua egin eta hura eraikitzea.

Musika eta Arte Eszenikoetako irakasleen kidegoko espezialitate jakin batzuetan aldi baterako kontratatzeko izangaien zerrenda berriak eratzeko deialdiaren ebazpena indarrik gabe uztera.

**Galderak**

Bi ordu baino gutxiagoko postuak izateak zenbateraino ukitzen duen hezkuntza sistemaren kalitatea.

Vázquez de Mella IPk Sarrigurenen egindako propagandaren gainekoa.

Tuterako Musika Kontserbatoriorako zenbait urtetarako hitzarmenaren baldintzen gainekoa.

Hezkuntza Departamentuak Sarrigurengo IPk espazio aldetik dituen beharrei erantzuteko hartuko dituen neurrien gainekoa.

**Bisitaldiak**

- Biurdana Institutura.
- Uharteko BHIra.
- AEKren Irrintzi Euskaltegira.
- Hizkuntzen Ikaskuntza Zentrora.
- Cascanteko Ikastetxera.
- Arturo Kanpion Euskaltegira.
- Tuterako Musika Kontserbatoriora.
- Sarrigurengo Haur eta Lehen Hezkuntzako Ikastetxera.
- Navarro Villoslada BHIra.

Nafarroako Parlamentuaren oroit-idazki osoa, txosten honetan aipatzen dena, webgune honetan dago: <http://www.parlamentodenavarra.es/hasiera/argitalpenak/jardueren-oroit-idazkiak.aspx>

### 2.3.2.2. Nafarroako Arartekoaren jarduerak hezkuntza arloan

#### 2012an aurkezturiko kexak.

2012. urtean Nafarroako Arartekoak hezkuntzaren inguruko 77 kexa jaso zituen, 2011n baino %1,32 gehiago (2011n 76 izan baitziren). Osotara jaso dituen kexen %5,93 izan ziren hezkuntzari buruzkoak (aurreko urtean %9). Bilakaera ondoko koadroan ageri da:

14. koadroa - Nafarroako Arartekoaren aurrean aurkeztutako hezkuntza arloko kexak. 2008. urtetik 2012. urtera					
	2008	2009	2010	2011	2012
Kexa kop.	34	68	113	76	77
Kexa kopuru osoaren %	%5,2	%7,5	%12	%9	%5,93

Jasotako 77 kexak honela banatzen dira:

- 17, bekak eta ikasketetarako bestelako laguntzak ematearekin edo ukatzearekin lotuak.
- 15, Haur Hezkuntzako lehen zikloko (Otik 3 urte bitarteko) haurrei emandako arretarekin lotuak.
- 9, unibertsitateko ikasketekin lotuak.
- 6, ikasleak ikastetxeetan onartzearekin lotuak.
- 6, hezkuntza plangintzarekin lotuak.
- 5, eskolako eraikinen segurtasun, kontserbazio eta eraikuntza arloko baldintzekin lotuak.
- 5, eskola garraioko zerbitzu osagarriarekin lotuak.
- 4, eskolako bizikidetzarekin lotuak.
- 4, hizkuntza eskola ofizialekin eta hizkuntzak ikasteko zentroekin lotuak.
- 3, hezkuntza kudeaketarekin lotuak.
- 2, musikako goi mailako ikasketekin lotuak.
- 1, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako arretarekin lotua.

#### Herritarren proposamenak zerbitzu publikoak hobetzeko

- Anaia edo arreba bikiak ikasgela berean edo desberdinetan eskolatzeko erabakia hartzeko ikastetxeek erabili beharreko irizpideak eta prozedura eskolatzearen gaineko araudian islatzeko aukera baloratzeko proposamena.
- Uharteko ikastetxe publikoan hezkuntza eredu eleaniztuna sortzeko proposamena.
- Testuliburuak ondoko ikasturteetan erabili ahal izateko proposamena.
- Gizarte-langilea ikastetxean txertatzeko proposamena.
- Legeria aldatzeko proposamena, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako curriculumean zerga sistemako ezagutzak sar daitezzen.

#### Gomendioak, iradokizunak eta betebeharrak legalen gogorarazpenak.

- Herritar bati "That's English" ikastaroko matrikularen dirua itzultzea ukatzeari buruzkoa (herritarra okertu zen izena ematerakoan).
- Ikasle bat ikastetxez aldatzeko asmoari buruzkoa.
- Informatika Sistemetako Administrazio Lanbide Heziketako ikasketen praktikak kudeatzeari buruzkoa.
- Bigarren Hezkuntzako institutu bateko ikasle ohi batek nozitutako gertakari batzuen gaineko jarduketari buruzkoa.
- Pablo Sarasate Goi Mailako Musika Kontserbatorioan karrera bukaerako bere lana kalifikatu zuen epaimahaiak lan hori baloratzeko prozedurari buruzkoa.
- Nafarroako Gobernuaren, Nafarroako Unibertsitatearen eta Ikerketa Mediko Aplikaturako Fundazioaren (FIMA) artean formalizatutako protokoloari buruzkoa. Protokolo horren arabera,



Iruñean hiru ikerketa zentro berri ezarriko dira, Donapea IIPk gaur egun betetzen duen lurzatian eraikiko direnak.

- San Francisco Ikastetxe Publikoan, jolas-ordu partekatuan sortzen diren arazoei buruzkoa.
- Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako laugarren ikasmailako ikasleendako atzerrian ikasteko programaren deialdiko postuak esleitzeari buruzkoa.
- Donapea IIPko Batxilergo Teknologikoko lehen ikasmailan onartutako ikasleen behin betiko zerrendatik ikasle bat baztertzeagatik ikasle horren amak jarritako kexari buruzkoa.
- Bere alaba frantsesean murgiltzeko programa batera joateko ezintasunari buruzkoa, elikatze behar berezi bat kontuan ez hartzeagatik.
- Berriozarko Mendialdea I eta II ikastetxeetara joateko eskolako garraioa ezabatzeari buruzkoa.
- Ikastetxe publikoetan Hezkuntza Departamentuak atzerriko hizkuntzetan mintzapraktikako laguntzaile lanpostuak antolatzeari buruzkoa.
- Baztan Ikastolako Haur Hezkuntzako unitate bat diruz ez laguntzeari buruzkoa.
- Artikaberritik Doña Mayor Ikastetxe Publikora joateko eskolako garraio zerbitzuari buruzkoa.
- Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialean frantseseko C1 mailan matrikula deuseztatzeari buruzkoa.
- Sarrigurengo ikastetxe publikoan dagoen espazio gabeziari buruzkoa.
- Anaia edo arreba bikiak eskolatzeari eta ikastetxeek bikiak ikasgela berean edo desberdinetan eskolatzeko eta erabili beharreko irizpideei eta prozedurari buruzkoa.
- Indarreko araudiak goi mailako heziketa zikloetako tituludunendako aurreikusita dituen baliozkotzeetara biltzeko NUPen dagoen ezintasunari buruzkoa.
- Udaleko haur haurtzaindegian bere seme-alabak egoteagatik fidantza itzultzeko eskaerari eta 2010-2011 eta 2011-2012 ikasturteetan egin zaizkion karguei buruzko argibideak eskatzeari buruzkoa.
- Valle de Egüés III Haur Eskolako ikasgela mistoak zuen hirugarren hezitzailea ezabatzeari buruzkoa.
- Esteribarko Udaleko Haur Eskolaren udal kudeaketari buruzkoa.
- Berriki mustutako "Bilindanga" haur eskola zezenketaren inguruko gauzeekin girotzeari eta hartu den zezenen inguruko ikasmaterialari buruzkoa, kexa-egileek haiek sartzearen kontra daudelako.
- Ikastetxe publiko bateko teilatuak eta jolastokiak osasunaren aldetik dituzten arazoei buruzkoa.
- "Cheque Dejeuner" enpresaren bitartez udaleko haur eskolaren tasak ordaintzea ukatzeari eta Tuterako Udalak berariaz ez erantzuteari buruzkoa.
- 2012ko aurrekontuetan euskara komunikabideetan sustatzeko kontu-saila ezabatzeari buruzkoa.
- Zizurko Institutuan, D ereduan, euskaraz ez zekien irakasle bat esleitzeari buruzkoa. Irakasle horrek hizkuntza eta literaturako irakasle titular bat ordezkatu zuen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasmaila baten tutorea izan zen.

Nafarroako Arartekoaren 2012ko txosten osoa ondoko webgunean dago: <http://www.defensornavarra.com/index.php/eu/Argitalpenak/Urteko-txostenak/2012ko-Urteko-Txostena>

### **2.3.3. Komunikabideetan landutako hezkuntzako gai nagusiak**

#### **2.3.3.1. Diario de Navarra**

- 105.000 ikasle baino gehiago Nafarroako ikasgeletan. Hiru urteko 6.800 haur inguru eskolan sartu da.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoak 25. urteurrenean Nafarroako Urrezko Domina hartu du.
- Liskarrak Nafarroako Unibertsitate Publikoaren ikasturte hasierako ekitaldian. Talde bat aterarazi dute.
- Alfonso Sánchez-Tabernero, Nafarroako Unibertsitateko errektore berria.
- Nafarroako Unibertsitateak Ekonomiako eraikin berria mustu du.
- Nafarroako Unibertsitateak ISSA Iruñeko campusera ekarri du.
- Iruñeko UHUNek matrikula kopuruan errekorra hautsi du.
- Tasak igotzeagatik protestak Nafarroako Unibertsitate Publikoan.
- Bertan behera gelditu da apirilko alde aurreko izen-ematea Nafarroako Unibertsitate Publikoan.

- Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasleek ingeleseko B1 maila egiaztatu beharko dute, graduatu nahi badute.
- Sindikatuek bat egin dute murrizketen aurrean protesta egiteko.
- Eskola-orduen gehikuntzak eta irakasle kopuruaren murrizketak ikasturtearen hasiera markatu dute. Irakasleek banan banako laguntza galtzeaz ohartarazi dute.
- VWk Lanbide Heziketako graduondoko ordaindu bat eskaini die 18 ikasleri.
- Lanbide Heziketa Duala abian jarri da, ikasturte osoan zehar prestakuntzarekin eta praktikekin.
- 2010ean mustu zen Atarrabiako BHIko obren esleipena bertan behera utzi da.
- Donapearen lekualdatzea eta Lanbide Heziketako campus berria. Polemika hasi da. PSNk eskatu du Sanitaria BHI eta Donapea toki desberdinetara eramatea. Ikasturte oso bat mokoka ibili ondoren, zalaparta 2013ko urrian bukatu da, Nafarroako Unibertsitateak Donapeako lurrei uko egin dienean eta Gobernuak UGPSa bertan behera utzi duenean.
- Testuliburuaren Doakotasun Legea. Azkenean mailegua mantenduko da.
- Ikastetxe itunduek familiak aukera askatasuna defendatzera animatzen dituzte. 7.000 sinadura baino gehiago bildu dituzte.
- Foru Parlamentuak itunak kentzeko legea onetsi du.
- Jorge Lanchas, Eskola Katolikoaren burua.
- Pedro Baile, Concapako buru berria.
- Prestakuntzarik gabeko 2.000 gazte inguru eskolara itzuli da.
- Tuterako Compañía de María Ikastetxeak 325 urte bete ditu.
- LOMCE. Iribasek Nafarroako eduki berekiak gordetzearen alde egin du. LOMCE PPren botoekin bakarrik onetsi da Kongresuan. UPN abstenitu da. Eztabaida hasi da Senatuan.
- Krisiak hartzaindegi pribatuen okupazioa erdira murriztu du.
- Ingeleseaz ikasten duten ikasleak %12 dira. Gobernuak iragarri du 2013-2014 ikasturtean IIP 20 ikastetxe gehiagotara zabalduko dela. Osotara, 60 izanen dira.
- Erietxeetako programetan 447 ikasleek ikasten dute.
- DBHko 10 ikasleek 7k titulua eskuratu dute gutxiengirik gabe.
- Nafarroako ikasleek maila "oso ona" dute Hizkuntzan eta Matematikan, Ebaluazio Diagnostikoaren emaitzen arabera.
- Sanduzelaiko ikastetxeak 40 urte bete ditu eta ibilbidea laburtzen duen liburua argitaratu du.
- Iberoko Isterria Hezkuntza Bereziko Ikastetxeak Urrezko Baba hartu du.
- Hezkuntzak 17 ikastetxe publikori aitortzea eman die haien kalitateagatik eta bikaintasunagatik.
- 13 ikastetxe gaitasun handiko ikasleendako programa lantzen hasi dira.
- Nafarroak ez du Hezkuntzako oposizioetarako deialdirik egingen. Bai, ordea, Aragoik eta Errioxak.
- Eskola uztea %13,3koa da Nafarroan.
- Lanaldi jarraitua. Sei ikastetxe gehiagotan ezarriko da, eskaria handiagoa bada ere.
- %95,1ek gainditu du Selektibitatea.

### 2.3.3.2. Diario de Noticias de Navarra

- Unibertsitateetan ikasturtea irekitzeko ekitaldiak (Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Nafarroako Unibertsitatea eta Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala).
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko hamar tituludunetatik sei ez da behin ere langabezian egon 2008tik 2011ra bitartean.
- Elkarrizketa Iribasi.
- Donapea lekuz aldatzea.
- Helduendako hezkuntzak %30 egin du gora azken bost urtean, Nafarroan, eta izena emandakoak 5.349 dira.
- Brunet saria Natty Petrosinori.
- 20 ikastetxe publiko gehituko zaizkie ingeleseko eredia ematen duten 40 ikastetxeri, 2013-2014 ikasturtean.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoaren urrezko domina.
- AFNH dute 4.500 adingabek Nafarroan eta horixe da eskola porrotaren lehen zergatia.
- Hezkuntzak prestakuntza emanen die ikasgelako ordezkariari eta irakasleei eskolako jazarpenera murrizteko.

- Iribasek bat egin du PPrekin bereizten duten ikastetxeei itunak blindatuz.
- Ikastetxe publikoetako zuzendariak murrizketen eraginaz ohartarazi dute eta haiek deuseztatzea eskatu dute.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko ikasle tipo batek kredituen %87 lehen deialdian matrikulatuta ditu.
- Lanbide Heziketa Duala Nafarroara iritsi da.
- Lehen Hezkuntzako 6. ikasmilako bost ikasletatik bat gutxiegiekin igarotzen da DBHra (Eskola Kontseiluaren txostena).
- 20 ikastetxe publiko gehituko zaizkie ingeleseko ereduaren ematen duten 40 ikastetxeri, 2013-2014 ikasturtean.
- Sare publikoko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleetatik ia %20k eskola curriculumaren zati bat ingelesez ikasten dute.
- Iribasek Werti eskatu dio hezkuntza erreformak Nafarroako hizkuntza ereduak errespetatzea.
- Alemanaren eskaera bikoiztu da azken lau urtean Nafarroan eta 1.500 inguru dira ikasleak.
- Ikastetxe aleman berria Iruñean.
- Ikasle etorkinen erdiek unibertsitatara joan nahi dute bertakoak, berriz, %74 diren bitartean.
- Euskarazko irakaskuntzak "British" ereduaren erasoari eutsi dio eta matrikularen %23,6an mantentzen da.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoko 22 titulaziotako seitan 9tik gorako nota behar da hura egiteko.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa eta Nafarroako hiru ikastetxe publiko psikologia positiboaren gaineko Europako proiektu batean.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoa, "British" ikastetxeetan ingelesa ikasteko proiektu aitzindari batean.
- Iruñeko UHUNeko ikasleek %68 egin dute gora azken 6 urtean.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoan industria ikasketak egin eta Erasmus programan parte hartzen duten ikasleek %35ek Alemania hautatu dute lehen aukeran.
- Azoka batek hizkuntza ikastaroak eskaini ditu 50 destinotan %20 bitarteko deskontuekin.
- Bigarren Hezkuntzako eta unibertsitateetako 30.000 ikasleri baino gehiagori dei egin zaie hezkuntza erreformaren kontrako martxoaren 14ko greban parte har dezaten.
- Hezkuntzak Lehen Hezkuntzako 4.eko eta DBHko 2.eko 13.350 ikasle ebaluatuko ditu maiatz hasieran.
- Estreinakoz jaitsi dira bost urtean Nafarroako Unibertsitate Publikoko masterreko ikasleak, tasak %66 igo ondoren.
- Lanbide Heziketaren eskaintza handitu da 3 ziklo berrirekin eta 200 ikaspostu gehiagorekin, 8.000 ikaspostu izateraino.
- Atzerriko bostehun ikasletik gora etorri ohi da urtero Nafarroako Unibertsitate Publikora eta Nafarroako Unibertsitatara.
- 3.000 ikasle inguru kalera atera dira irakaskuntzaren "pribatizazioari" kontra egiteko.
- Zortzi ikastetxe gehiagok eskatzen ahalko dute lanaldi jarraitua, orain arte lanaldi hori duten hamarrei gehitzeko.
- Nafarroa, %13,3rekin, Europak 2020rako finkaturiko eskola-uztearen helburura hurbildu da.
- Nafarroak unibertsitate mailakoak izanen diren diseinuko goi mailako ikasketak arautu ditu.
- Nafarroako Unibertsitate Publikoak Arrosadiko sei ingeniaritza tituluetan nazioarteko programak eskainiko ditu hurrengo ikasturtean.
- El Molino: 35 urtez itzulika hezkuntza bereziaren inguruan.
- 48 herrialdeetako ikasleak matrikulaturik daude Iruñeko UHUNen.
- Euskaraz ikastea hautatu duten ikasleak %20 igo dira 2005etik 2011ra bitartean.
- Ikasteko beka eta laguntzen kopurua %46 murriztu da Nafarroan 2005etik 2011ra bitartean.
- Selektibitateko 2.718 ikasleetatik %87 borondatezko fasera aurkeztu dira nota igotzeko.
- UPNk erabaki du lau urtean langileen %40 galdu duen euskaltegi publikoan 4 irakasle murriztea.
- Adituek Gorputz Hezkuntzako orduak handitzearen alde egin dute, obesitateari aurre egiteko.
- Lanbide Heziketako tituludunek 30 kreditu bitartean baliozkotu ditzakete Nafarroako Unibertsitate Publikoko eta Nafarroako Unibertsitateko karreretan.
- Epea ireki da Frantziako 9 ikastetxetan DBHko edo Batxilergoko ikasmila bateko 45 ikaspostutan ikasteko eskaera egiteko.
- Familiek mila sinadura eman dizkiote Iribasi lanaldi jarraitua duten ikastetxeen kopurua handitzeko.

- Iribasek uko egin dio bekak eskuratzeko nota igotzeari, PPK nahi zuen bezala, eta 5ean uztearen alde dago.
- 6,5 eskatuko balitz, Nafarroako unibertsitateetako hiru ikasle berritatik bat bekarik gabe geldituko litzateke.
- Eskaera egin duten 24 ikastetxeetatik soilik 6tan ezarriko da lanaldi jarraitua 2013-2014 ikasturtean.
- Hezkuntzak Lehen Hezkuntzako 700 ikaspostu oso eta Bigarren Hezkuntzako 615 ikaspostu oso eskaini ditu.
- Unibertsitateetako errektore guztiek beken proiektua erretiratzea eskatu dute.
- Krisia larriagotu da eskola publikoan, zeinetan gabezia ekonomikoak dituzten familiak gero eta gehiago diren.
- Ikastetxe itunduetan kuotak ordaintzen ez dituztenak igo dira; %5 inguru dira.
- Epea ireki da Frantziako 9 ikastetxetan DBHko edo Batxilergoko ikasmaita bateko 45 ikaspostutan ikasteko eskaera egiteko.
- Urtean 200 ikasle baino gehiago karreraz aldatzen dira edo espedientea aldatzen dute Nafarroako Unibertsitate Publikora edo Nafarroako Unibertsitatara.

### 3.- BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

Baliabide materialak eta giza baliabideak hezkuntza sistemarentzako ekarpenen funtsezko osagaiak dira, haren funtzionamenduaren euskarria dira eta emaitzetan hein handi batean eragiten dute. Kapitulu honetan Nafarroako hezkuntza sistemak dituen baliabide azpimarragarrienak deskribatzen dira. Horien artean daude hezkuntza administrazioaren egiturarekin, hezkuntzako gastuarekin edo inbertsioarekin, azpiegiturekin eta zerbitzuekin loturikoak, eta baita sistemaren funtzionamendurako lanean ari diren pertsonekin loturikoak.

#### 3.1. Hezkuntzaren finantzaketa publikoa

Epigrafe honek 2012an unibertsitateetik kanpoko Nafarroako hezkuntza sistemaren inbertitutako baliabide ekonomikoen gaineko informazioa biltzen du. Informazio iturria, koadroen azpian adierazitako salbuespenetan izan ezik, Hezkuntza Departamentua izan da eta informazioa Nafarroako Parlamentuak onetsitako Nafarroako kontu orokorretan oinarrituta dago. Datuak, beraz, gauzatutako aurrekontuei dagozkie. Epigrafe honetan ez da bildu tokiko entitateen hezkuntzako gastua, ezta familiena ere; kontu hau garrantzitsua da hezkuntzako gastuaren eta BPGaren arteko loturaren bat egin nahi bada.

Oinarria Nafarroako Parlamentuak onartutako kontuak direnez, kontu-sailen arteko alderaketak zuhurtziaz hartu behar dira. Izan ere, urte batean aurrekontuko kontu-sailen bat desagertzen bada ez du esan nahi gastu hori desagertu denik eta datu ekonomikoa falta duen laukikoa eginen ez denik, aurrekontuko beste kontu-sail batzuetan sartuta egon daiteke eta.

3.1.1. atalean aurrekontua osatzen duten kapituluetakoa kontzepturik esanguratsuenen bilakaera jasotzen da.

Zenbait ataletan 1991n (Nafarroak hezkuntzan eskumen osoa baliatu zuen lehenengo urtea), 2000n eta 2005ean gauzatutako aurrekontuei buruzko datuak sartu dira tarteka. Horren helburua da 1999-2000. urteetan aztertutakoekin (1999-2000ko Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko txostenean dago jasota) lotura egitea.

Zenbateko ekonomikoak eguneko milaka eurotan adierazi dira. Zifren azken zenbakia gorantz biribildu da aurrekoa bostetik gorakoa bazen.

Bukaeran, 3.1.3 atalean, konparatzeko datu orokorrak ematen dira. Horrela, Nafarroako hezkuntzako gastua Espainiako beste erkidegoetako gastuarekin erkatu daiteke, eta Espainiakoa ELGAko herrialdeetakoarekin.

2012. urteko aurrekontuko langileen gastuen gaineko datuak ezin dira alderatu beste urte batzuetakoekin ez baitzen ordaindu abenduko aparteko ordainsaria (urteko nominaren %7 inguru), 20/2012 Errege Lege-dekretuaren ondorioz; horrek gastu murrizketa handia eragin zuen.

### 3.1.1. Hezkuntza Departamentuaren aurrekontua

15. koadroa - Hezkuntzako gastuaren aurrekontu gauzatuen bilakaera, Hezkuntza Departamentuaren unibertsitatez kanpoko ikasketetan								
Kapitulua <sup>6</sup>	I	II	IV	VI	VII	Guztira	Gobernukoa guztira	Hezk/Gob %a
2000	193.921	22.477	78.855	13.818	2.909	<b>311.980</b>	<b>2.281.626</b>	<b>13,7</b>
2001	206.893	23.689	85.285	16.275	3.141	<b>335.283</b>	<b>2.368.068</b>	<b>14,2</b>
2002	219.550	25.293	92.543	13.490	5.895	<b>356.771</b>	<b>2.565.790</b>	<b>13,9</b>
2003	235.926	26.140	98.705	14.000	5.874	<b>380.645</b>	<b>2.688.511</b>	<b>14,2</b>
2004	253.860	29.076	101.748	14.499	2.899	<b>402.082</b>	<b>2.808.133</b>	<b>14,3</b>
2005	269.826	30.680	108.816	12.687	2.588	<b>424.597</b>	<b>3.148.222</b>	<b>13,5</b>
2006	285.614	32.555	115.703	12.997	8.133	<b>455.001</b>	<b>3.699.800</b>	<b>12,3</b>
2007	301.470	36.266	127.079	15.251	13.571	<b>493.638</b>	<b>4.294.301</b>	<b>11,5</b>
2008	340.487	38.513	140.400	13.560	16.663	<b>549.624</b>	<b>4.402.455</b>	<b>12,5</b>
2009	366.825	38.759	142.456	18.469	24.950	<b>591.459</b>	<b>4.372.680</b>	<b>13,5</b>
2010 <sup>7</sup>	364.439 <sup>8</sup>	37.834	140.970	33.479	18.914	<b>595.636</b>	<b>4.301.249<sup>9</sup></b>	<b>13,8</b>
2011 <sup>2</sup>	359.587 <sup>3</sup>	36.993	136.571	28.031	9.489	<b>570.671</b>	<b>3.968.892<sup>4</sup></b>	<b>14,4</b>
2012 <sup>2</sup>	318.865 <sup>5</sup>	33.012	134.322	7.674	2.095	<b>495.967</b>	<b>3.625.438<sup>4</sup></b>	<b>13,7</b>

Iturria: Aurrekontu eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

16. koadroa - Departamentuko aurrekontuaren eta Gobernuko aurrekontu osoaren gauzatzearen bilakaera (2000. urtea oinarri gisa harturik)						
Aurrekontua	2000	2008	2009	2010	2011	2012
Gob/Gob 00	1,000	1,930	1,92	1,89	1,74	1,59
Dep/Dep 00	1,000	1,762	1,90	1,91	1,83	1,59
Dep/Gob00	%13,67	%12,48	%13,53	%13,85	%14,38	%13,68

Iturria: Aurrekontu eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

18. irudia:

<sup>6</sup> I. kapitulua langileen gastuari dagokio; II.a administrazioaren funtzionamendu arruntari; IV.a gastu arruntetarako hirugarren pertsonen eginiko transferentzietan; VI.a administrazioaren inbertsioei; VII.a inbertsio gastuetarako hirugarren pertsonen eginiko transferentzietan.


<sup>7</sup> Gainerako kapituluetan ez dira sartu: Unibertsitateen programa, Euskarabidea (Gau-eskolen diru-laguntza izan ezik) eta Planetarioari eginiko transferentzia.

<sup>8</sup> I. kapitulua osorik.

<sup>9</sup> "Gobernukoa, guztira" zutabeko datu honen barruan Nafarroako Parlamentua, Nafarroako Kontseilua eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua daude sartuta.


<sup>5</sup> Aparteko ordainsari bat ez da ordaindu.

## Evolución presupuestos



19. irudia:

## Evolución Presupuesto Departamento/Gobierno



2011n eta 2012an gauzatutako aurrekontuak alderatuta, ikusten da ia 75 milioiko murrizketa izan dela, baina Hezkuntzara bideratutako gastu osoa %0,7 bakarrik jaitsi da. Gertakari horiek hartu behar dira aurrekontu austeritatearen testuinguruan eta Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariaren urriaren 18ko 701/2012 Foru Aginduak (2/2013 Foru Aginduak luzatua) gastu publikoa murrizteko emandako jarraibideak aintzat izanik.

17. koadroa - Departamentuko kapitulu bakoitzean gauzatutakoaren pisua						
Aurrekontua	2000	2008	2009	2010	2011	2012
Dep I/ Dep	0,622	0,619	0,620	0,612	0,630	0,64
Dep II/ Dep	0,072	0,070	0,066	0,063	0,065	0,066
Dep IV/ Dep	0,253	0,255	0,241	0,237	0,239	0,27
Dep VI/ Dep	0,044	0,025	0,031	0,056	0,049	0,02
Dep VII/ Dep	0,009	0,030	0,042	0,032	0,016	0,004
<b>Guztira</b>	<b>1,000</b>	<b>1,000</b>	<b>1,000</b>	<b>1,000</b>	<b>1,000</b>	<b>1,000</b>

Iturria: Aurrekontu eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

<b>18. koadroa - Hezkuntzako gastuaren aurrekontu gauzatuaren bilakaera, Hezkuntza Departamentuaren unibertsitatez kanpoko ikasketetan 1991n, 2001ean eta 2009tik 2012ra</b>						
<b>Aurrekontua</b>	<b>1991</b>	<b>2001</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>	<b>2011</b>	<b>2012</b>
I Langile-gastuak	105.476	206.893	366.825	364.439	359.587	318.865
%a osoarekiko	%58,31	%61,71	%62,02	%61,18	%63,01	%64,29
1991rekiko gehikuntza	1,00	1,96	3,48	3,46	3,41	3,02
II Ondasun arruntak eta zerbitzuak	12.940	23.689	38.759	37.834	36.993	33.012
%a osoarekiko	%7,15	%7,07	%6,55	%6,35	%6,48	%6,66
1991rekiko gehikuntza	1,00	1,83	3,00	2,92	2,86	2,55
IV Transferentziak	50.630	85.285	142.456	140.970	136.571	134.322
%a osoarekiko	%27,99	%25,44	%24,09	%23,67	%23,93	%27,08
1991rekiko gehikuntza	1,00	1,68	2,81	2,78	2,70	2,65
VI Kapital-inbertsioak	6.719	16.275	18.469	33.479	28.031	7.674
%a osoarekiko	%3,71	%4,85	%3,12	%5,63	%4,91	%1,55
1991rekiko gehikuntza	1,00	2,42	2,75	4,98	4,17	1,14
VII Kapital-transferentziak	5.131	3.141	24.950	18.914	9.489	2.095
%a osoarekiko	%2,84	%0,94	%4,22	%3,17	%1,66	%0,42
1991rekiko gehikuntza	1,00	0,61	4,86	3,69	1,85	0,41
<b>Eskola ikasketak guztira</b>	<b>180.896</b>	<b>335.283</b>	<b>591.459</b>	<b>595.636</b>	<b>570.671</b>	<b>495.967</b>
1991rekiko gehikuntza	<b>1,00</b>	<b>1,85</b>	<b>3,27</b>	<b>3,29</b>	<b>3,15</b>	<b>2,74</b>

Iturria: Aurrekontu eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

### 3.1.1.1. Hezkuntza administrazioaren gastu komunak

Atal honetan jasotzen dira hezkuntza administrazioaren gastu komunak<sup>10</sup> sostengatzea helburu duten Hezkuntza Departamentuaren gastu guztiak. Posible izanen litzateke gastua bi hezkuntza sareen artean (publikoa eta pribatua) banatzea, adostutako irizpide objektibo bat erabilita, hala nola, sare bakoitzean eskolatutako ikasle kopurua. Hala egitekotan, komenigarria izanen litzateke kontuan izatea itunpeko ikastetxeetako irakasle ez diren langileen gastuak itunen moduluko "bestelako gastuak" kontzeptuan sartuta daudela: horrek esan nahi du I. kapituluko kontzeptua (langileen gastuei dagokiena) behar bezala zehaztu beharko litzatekeela.

Kontzeptuen izena, orobat, aurrekontuaren lerroen izenekin bat dator, salbu eta langile funtzionarioen, lan-kontratudun finkoen eta aldi baterako lan-kontratudunen gastuak, kontzeptu horiek batera ematen baitira.

- 17/2012 FORU LEGEA, urriaren 19koa, zeinaren bidez aldatzen baita uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea, Batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta Gizarte Garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duena.
- 653/2012 EBAZPENA, urriaren 19koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituen.
- 652/2012 EBAZPENA, urriaren 19koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, ikastetxe itunduetako eskola kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko eta zuzendaria izendatzeko jarraibideak onesten dituen.
- 656/2012 EBAZPENA, urriaren 19koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Hezkuntza Berezikoko ikastetxe publikoetako eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoetako eskola kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituen.
- 654/2012 EBAZPENA, urriaren 19koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Arte Irakaskuntzen ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituen.
- 655/2012 EBAZPENA, urriaren 19koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Bigarren Hezkuntzako institutuak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuak Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituen.
- 602/2012 EBAZPENA, urriaren 1ekoa, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzaren Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Iruñeko "Victor Pradera" Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoari baimena ematen diona 2012-2013 ikasturtetik aurrera atzerriko bigarren hizkuntza (alemana) Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan alde aurretik irakasteko.
- 660/2012 EBAZPENA, urriaren 22koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Gobernuaren funts publikoekin mantendutako ikastetxeetan prestakuntza praktikoa egiteko lankidetzaren hitzarmenaren testua onesten duena.
- 677/2012 EBAZPENA, urriaren 29koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, eriondoan dauden ikasleei etxeko hezkuntza laguntza emateko laguntzetarako deialdiaren oinarriak onesten dituen.
- 640/2012 EBAZPENA, urriaren 16koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Urteko Jarduketara Plana onesten duena, 2012-2013 ikasturterako.
- 19/2012 FORU LEGEA, abenduaren 4koa, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia eta Tokiko Kontseiluak arautzen dituen azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen 4. artikulua aldatzen duena.
- 2780/2012 EBAZPENA, abenduaren 13koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioek Haur Hezkuntzaren espezialitatea eskuratzeko prozeduraren deialdia onesten duena.

- 2871/2012 EBAZPENA, abenduaren 28koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana. Honen bidez onesten dira Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeen zonifikazioa eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lehenengo bi kursoena, departamentu honen menpeko ikastetxe eta programetako plantillak, lanpostuak kentzeko eta lanpostu ibiltariei atxikitzeko eskaeraren prozedurak eta Nafarroako Foru Komunitateko maisu-maistren lekualdatze lehiaketan (Hezkuntza Departamentuak 2012-2013 ikasturtean eginiko deialdian) bete beharreko behin-behineko lanpostu hutsak.
- 2869/2012 EBAZPENA, abenduaren 27koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu eta izendatzeko merezimendu lehiaketarako deia egiten duena.
- 41/2012 EBAZPENA, abenduaren 27koa, Euskarabideko zuzendari kudeatzaileak emana. Honako honen bidez ezartzen da Euskararen Nafar Kontseilurako kultura elkarteetako edo gizarte ekimeneko entitateetako bi ordezkari aukeratzeko prozedura, 2013-2017 aldirako.
- 749/2012 EBAZPENA, abenduaren 14koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 8ko 52/2009 Foru Aginduaren zenbait alderdi garatzen dituena. Foru agindu horren bidez, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemako lanbide heziketako ikasleen ebaluazioa, titulazioa eta ikasketen egiaztapena arautu ziren.
- 227/2013 EBAZPENA, urtarrilaren 29koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, musika eta arte eszenikoko irakasleen kidegoaren hainbat espezialitatetan aldi baterako kontratuatarako izangaien zerrenda berriak osatzeko deialdia onesten duena, musikako lanbide irakaskuntzetan nahiz goi mailako ikasketetan eskolak emateko.
- 36/2013 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Haur Hezkuntzako goi mailako prestakuntza zikloaren moduluetan, on line urrutiko modalitatean, Nafarroako Foru Komunitatean 2012-2013 ikasturtean onartzeko aparteko epe baterako deia egiten duena.
- 30/2013 EBAZPENA, urtarrilaren 28koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, funts publikoak jasotzen dituzten Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan 2013-2014 ikasturtean hurrak onartzeko prozedura arautzen duena.
- 31/2013 EBAZPENA, urtarrilaren 28koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Haur Hezkuntzako lehen zikloa ematen duten ikastetxeek egutegia eta ordutegia prestatzeko jarraibideak onesten dituena, 2013-2014 ikasturterako.
- 546/2012 EBAZPENA, abenduaren 20koa, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, diru-laguntzak ematen dituena 2012-2013 ikasturtean ordaintzeko curriculum egokitu kanpo programetan eskolatze partekatuaren modalitateko ikasle adingabeak hartzen dituzten ikastetxeei, eta 2012ko irailetik abendura bitarteko aldiari dagozkionak ordaintzeko baimena ematen duena.
- 53/2013 EBAZPENA, otsailaren 12koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2012-2013 ikasturterako Hezkuntza Bereziko beka eta laguntzen deialdia onesten duena.
- 21/2013 FORU AGINDUA, otsailaren 22koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Haur Hezkuntzako lehen zikloko udal ikastetxeetan, Hezkuntza Departamentuarekin egindako hitzarmenen bidez finantzatueta, familiek 2013-2014 ikasturtean ordaindu beharreko tarifak ezartzen dituena.
- 469/2013 EBAZPENA, otsailaren 27koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana. Honen bidez ezeztatu egiten da musika eta arte eszenikoko irakasleen kidegoaren hainbat espezialitatetan aldi baterako kontrataziorako izangaien zerrenda berriak osatzeko deialdia, musikako lanbide irakaskuntzetan nahiz goi mailako ikasketetan eskolak emateko (urtarrilaren 29ko 227/2013 Ebazpenaren bidez onetsi zen).
- 71/2013 EBAZPENA, otsailaren 25ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2013-2014 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitatean Curriculum Egokitu Programak emateko baimena duten ikastetxe itunduetan eta entitateetan egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleei diru-baliabideak esleitzeko deialdi publikoaren oinarriak onesten dituena.
- 138/2013 EBAZPENA, martxoaren 18koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, Batxilergoa, erdi eta goi mailako heziketa zikloak eta goi mailako heziketa zikloetan sartzeko prestakuntza ikastaroa egin behar dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan



- onartzeko prozeduraren jarraibideak, egutegia eta eskabide ereduak onesten dituena, 2013-2014 ikasturterako, eta Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emandako martxoaren 6ko 116/2013 Ebazpena baliorik gabe uzten duena.
- 137/2013 EBAZPENA, martxoaren 18koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean 18 urtez gorako pertsonen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako graduatu titulua 2013an zuzenean eskuratzeko proba libreetarako deialdia egiten duena.
  - 134/2013 EBAZPENA, martxoaren 15ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, ingeleseko eta frantseseko atal elebidunen programen deialdia egiten duena, ikastetxe gehiago sar daitezen, eta programa horiek 2013-2014 ikasturtean emateko oinarriak ezartzen dituena.
  - 141/2013 EBAZPENA, martxoaren 22koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana. Honen bidez, deialdi publikoa onesten da 2013-2014ko ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe itunduetan, hezkuntza premia bereziengatik edo egoera okerrarengatik, hezkuntza sostenguko premia bereziak dituzten ikasleei laguntzeko langileak izateko diru-esleipenerako.
  - 20E/2013 EBAZPENA, martxoaren 11koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, egoera ekonomiko ahulean dauden ikasleei laguntzeko ikastetxe publikoetarako laguntza deialdia onesten duena.
  - 155/2013 EBAZPENA, apirilaren 5ekoa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketen erdi eta goi mailako heziketa zikloetan sartzeko Gaitasun Artistikoaren Probarako deialdia egiten duena, 2013. urterako.
  - 34/2013 FORU AGINDUA, apirilaren 5ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Hezkuntzako kontseilariaren apirilaren 2ko 45/2009 Foru Agindua aldatzen duena. Haren bidez, hezkuntza sistemako lanbide heziketako irakaskuntzen barruko Lantokietako Prestakuntzako moduluaren garapena arautu zen, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan.
  - 172/2013 EBAZPENA, apirilaren 18koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, jardunean ari diren langileei zuzendutako lanbide heziketaren eskaintza arautzen duena 2013-2014 ikasturterako, lanbide heziketako tituluak lortzen laguntzeko.
  - 162/2013 EBAZPENA, apirilaren 18koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2013-2014 ikasturtean Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan musikako goi mailako arte ikasketak egiteko sarrera proben deialdia egiten duena.
  - 192/2013 EBAZPENA, apirilaren 23koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, jarraibideak ematen dituena 2013-2014 ikasturteko eskola egutegia eta ordutegi orokorra prestatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan, Hezkuntza Berezian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan ikasketak arautuak ematen dituzten ikastetxeetarako
  - 210/2013 EBAZPENA, apirilaren 26koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana. Honen bidez arautzen da Nafarroako Foru Komunitatean zenbait ikastetxetan eskolaldi etengabea eta eskolaldi malgua modu esperimentalean ezartzeko prozedura. Eskolaldi etengabea gehienez sei ikastetxetan ezarriko da, eta eskolaldi malgua gehienez hogeitun ikastetxetan, Haur eta Lehen Hezkuntzan, bai publikoetan bai pribatu itunduetan, 2013-2014 ikasturtean.
  - 30/2013 FORU AGINDUA, martxoaren 5ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, diseinuko goi mailako ikasketen plana eta antolamendua ezartzen dituena Nafarroako Foru Komunitatean, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparruan.
  - 179/2013 EBAZPENA, apirilaren 18koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2013-2014 ikasturtean Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialetan eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialean emanen diren hizkuntza ikasketei dagokien eskola egutegia prestatzeko jarraibideak onesten dituena.
  - 26E/2013 EBAZPENA, maiatzaren 3koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2013/2014 ikasturtean irakasleen etengabeko prestakuntza programaren barrenean berrikuntza-proiektuak egiteko ikastetxeei diru-laguntzak emateko deialdia onesten duena.
  - 240/2013 EBAZPENA, maiatzaren 13koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2013-2014 ikasturterako Nafarroako Foru Komunitateko maila ez-unibertsitarioetako ikastetxe publikoetan ingeleseko mintzapraktikako laguntzaile izateko, gehienez ere 35 bekatarako deialdia egiten duena eta dagokion gastua onesten duena.

- 221/2013 EBAZPENA, apirilaren 29koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2. mailako profesionaltasunaren ziurtagirien inguruan Nafarroako Enplegu Zerbitzuak programatutako ekintzak aprobetxamenduz egiteko nahikoa ezagutza lortzeko jarduketak arautzen dituena Nafarroako Foru Komunitatean
- 249/2013 EBAZPENA, maiatzaren 14koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2013-2014 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko Lanbide Heziketako ikasketak eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketak ematen dituzten ikastetxeei dagozkien eskola egutegia eta ordutegi orokorra prestatzeko jarraibideak onesten dituena.
- 1057/2013 EBAZPENA, maiatzaren 17koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, maisu-maistren kidegoko karrerako funtzionarioek Haur Hezkuntza espezialitatea eskuratzeko prozedura ebatzen duena.
- 287/2013 EBAZPENA, maiatzaren 31koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, unibertsitateko ikasleek Nafarroako Gobernuaren funts publikoekin mantendutako ikastetxeetan jasotzen duten prestakuntza praktikoan parte hartzen duten ikastetxe eta irakasleei aitortpena egiten diona.
- 509/2013 EBAZPENA, maiatzaren 22koa, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, Iruñeko "Creanavarra" Diseinuko Goi mailako ikastetxe pribatu baimenduari ireki eta jarduteko baimena ematen diona.
- 1151/2013 EBAZPENA, maiatzaren 28koa, Hezkuntza Departamentuko Giza Baliabideen Zerbitzuko zuzendariak emana, Hezkuntza Departamentuaren zerbitzuan, Nafarroako eskualde batean edo ikastetxe jakin batean, ari diren zainzaile funtzionarioen barne mugikortasunaren prozedura arautuko duten jarraibideak onesten dituena.
- 274/2013 EBAZPENA, maiatzaren 28koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatean on line urrutiko modalitatean emanen den Lanbide Heziketako eskaintza ezartzen duena eta onarpen prozedura arautzeko oinarriak onesten dituena, 2013-2014 ikasturterako.
- 278/2013 EBAZPENA, maiatzaren 28koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, zenbait ikastetxe publiko 2013-2014 ikasturteretik aurrera ingeleseko eta frantseseko atal elebidunen programa emateko baimentzen dituena.
- 264/2013 EBAZPENA, maiatzaren 28koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko goi mailako arte ikasketetan kredituak onartu eta transferitzeko sistema ezartzen duena.
- 322/2013 EBAZPENA, ekainaren 14koa, Hezkuntza Departamentuko Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak maiatzaren 28an emandako 274/2013 Ebazpena aldatzen duena. Ebazpen horren bidez Nafarroako Foru Komunitatean on line urrutiko modalitatean emanen den Lanbide Heziketako eskaintza ezarri zen eta onarpen prozedura arautzeko oinarriak onetsi ziren, 2013-2014 ikasturterako.
- 49/2013 FORU AGINDUA, maiatzaren 21ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan ematen diren unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzetako ikasleak ebaluatzeko prozesuan erreklamazioak egiteko sistema ezartzen duena.
- 535/2013 EBAZPENA, ekainaren 7koa, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, Tuterako "Ceneded" kirol irakaskuntzetako ikastetxe pribatu baimenduari ireki eta jarduteko baimena ematen diona, erdi eta goi mailako kirol irakaskuntzak emateko, futbol espezialitatekoak.
- 329/2013 EBAZPENA, ekainaren 18koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko musikako goi mailako ikasketetako irakasleek 2013-2014 ikasturtean ikerketa proiektuak egiteko deialdia arautzen duena.
- 534/2013 EBAZPENA, ekainaren 7koa, Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emana, Mutiloako (Aranguren) "Ceneded" kirol irakaskuntzetako ikastetxe pribatu baimenduari ireki eta jarduteko baimena ematen diona, erdi eta goi mailako kirol irakaskuntzak emateko, futbol espezialitatekoak.
- 55/2013 FORU AGINDUA, ekainaren 19koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, 2013-2014 ikasturterako testuliburuak doan eskuratzeko programa finantzatuko duen administrazioaren ekarpenaren gehieneko zenbatekoa finkatzen duena.

**Estatuko Aldizkari Ofiziala**

- 961/2012 ERREGE DEKRETUA, ekainaren 22koa, Espainiako unibertsitate publikoetan graduiko ikasketa ofizialetara sartzeko baldintzak eta prozedurak arautzen dituen azaroaren 14ko 1892/2008 Errege Dekretua aldatzen duena.
- 999/2012 ERREGE DEKRETUA, ekainaren 29koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arauturiko araubide bereziko hizkuntza ikasketen curriculumaren oinarriko alderdiak finkatzen dituen abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretua aldatzen duena.
- 1190/2012 ERREGE DEKRETUA, abuztuaren 3koa. Errege dekretu horren bidez aldatzen dira Lehen Hezkuntzako gutxieneko ikasketak ezartzen dituen abenduaren 7ko 1513/2006 Errege Dekretua eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gutxieneko ikasketak ezartzen dituen abenduaren 29ko 1631/2006 Errege Dekretua.
- ECD/1767/2012 Agindua, abuztuaren 3koa, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arauturiko irakaskuntzei dagokien Batxilergo Tituluaren luzapena arautzen duena, Espainiako nazioarteko ataletako programen eta «Bachibac» programen barruan, ikasketak Frantziako lizeoetan egin dituzten ikasleentzat.
- ECD/2000/2012 Agindua, irailaren 13koa. Agindu horren bidez arautzen da oinarriko hezkuntzako ikasketak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradudun titulua eskuratu gabe amaitzen dituzten ikasleentzako derrigorrezko ikasketen ziurtagiri ofiziala eta aldatzen dira, batetik, ekainaren 19ko ECI/1845/2007 Agindua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arautzen duen oinarriko hezkuntzako ebaluazioko oinarriko dokumentuen elementuak eta, orobat, ikasleen mugikortasuna bermatzeko beharrezkoak diren ebaluazio prozesutik eratorritako betekizun formalak ezartzen dituen, eta, bestetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ebaluazioari buruzko irailaren 4ko ECI/2572/2007 Agindua.
- Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Estatu Idazkaritzaren 2012ko irailaren 24ko EBAZPENA, Batxiler eta Baccalauréat titulu bikoitzaren programari buruzko jarraibideak xedatzen dituen 2012-2013 ikasturterako.
- Akats zuzenketa, irailaren 13ko ECD/2000/2012 Aginduarena. Agindu horren bidez arautzen da oinarriko hezkuntzako ikasketak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako gradudun titulua eskuratu gabe amaitzen dituzten ikasleentzako derrigorrezko ikasketen ziurtagiri ofiziala eta aldatzen dira, batetik, ekainaren 19ko ECI/1845/2007 Agindua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arautzen duen oinarriko hezkuntzako ebaluazioko oinarriko dokumentuen elementuak eta, orobat, ikasleen mugikortasuna bermatzeko beharrezkoak diren ebaluazio prozesutik eratorritako betekizun formalak ezartzen dituen, eta, bestetik, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ebaluazioari buruzko irailaren 4ko ECI/2572/2007 Agindua.
- Auzitegi Goreneko Hirugarren Salaren 2012ko ekainaren 5eko epaia, urriaren 26ko 1614/2009 Errege Dekretuko Xedapen Gehigarrietan Zazpigarreneko 7.1, 8, 11 eta 12. artikulua baliogabetzen dituen (errege dekretu haren bidez Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko Lege Organikoak arauturiko goi mailako Arte ikasketen antolamendua ezarri zen). Eta halaber, maiatzaren 14ko 630/2010etik 635/2010era bitarteko Errege Dekretuen izenburuan, artikuluetan eta eranskinetan ageri ziren "gradu" eta "gradudun" esapideak baliogabetzen ditu (errege dekretu horiek Hezkuntzari buruzko maiatzaren 2/2006 Lege Organikoan ezarritako graduiko goi mailako Arte ikasketen oinarriko edukia arautzen dute ikasketa hauetarako: Hezkuntza, Arte Dramatikoa, Musika, Dantza, Diseinua, Zeramika eta Beira eta Kultur Ondasunen Zaintza eta Zaharberritzea).
- ECD/445/2013 Agindua, martxoaren 13koa. Agindu horren bidez aldatzen da abuztuaren 3ko ECD/1767/2012 Agindua, Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak arauturiko irakaskuntzei dagokien Batxilergo Tituluaren luzapena arautzen duena, Espainiako nazioarteko ataletako programen eta «Bachibac» programen barruan, ikasketak Frantziako lizeoetan egin dituzten ikasleentzat.
- 189/2013 ERREGE DEKRETUA, martxoaren 15koa, urtarrilaren 18ko 34/2008 Errege Dekretua aldatzen duena. Errege dekretu horren bidez arautu ziren profesionaltasunaren ziurtagiriak eta hura aplikatuz luzatutako profesionaltasunaren ziurtagiriak ezartzen zituzten errege dekretuak.
- 427/2013 ERREGE DEKRETUA, ekainaren 14koa, goi mailako Musika eta Dantza irakaskuntzekin loturiko Musika eta Arte Eszenikoetako Katedradunen Kidegoko irakaskuntzako espezialitateak ezartzen dituen.
- 428/2013 ERREGE DEKRETUA, ekainaren 14koa, Musika eta Dantza irakaskuntzekin loturiko Musika eta Arte Eszenikoetako Irakasleen Kidegoko irakaskuntzako espezialitateak ezartzen dituen.

## 4.2. Aukera berdintasunerako politikak

### 4.2.1. Ikasleen aniztasunari erantzutea

Aniztasunari erantzuteari buruzko Nafarroako araudi esparrua Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduan jasotzen da. Foru agindu horrek Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen du. II. kapituluaren ikastetxeetan Aniztasunari Erantzuteko Plana prestatzeko irizpideak zehazten dira.

Zein ikasleri eragiten dien.

Aniztasunari Erantzuteko Planak ikasle guzti-guztiei, beraien aniztasunean, eman beharreko erantzuna hartu behar du kontuan. Bereziak, kausa desberdinengatik irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuetan behar bezala aurrera egiteko arazoak dituzten ikasleak hartu behar ditu kontuan, ikasle horiek ohiko jarduerak osatzeko baliabide eta laguntzak beharko dituzte eta.

Ikasle horien artean daude hezkuntza premia bereziak (iraunkorrak zein iragankorrak) dituztenak:

- Egoera sozioekonomiko edo soziokultural ahulean dauden ikasleak.
- Adimen gaitasun handiko ikasleak.
- Desgaitasun fisikoarekin loturiko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak. Horien artean sartuta daude ikastetxe arruntetan erantzuna jasotzen dutenak, berariazko ikastetxeetan erantzuna jasotzen dutenez gain.

100. koadroa - Ikasle kopuru osoaren eta HPBak dituzten ikasleen arteko erlazioa						
	2000	2008	2009	2010	2011	2012
Ikasle kopuru osoa	80.098	94.879	97.022	99.053	100.610	106.462
HPBak dituzten ikasleen kopuru osoa	191	591	618	633	1.436	1.691
HPBak dituzten ikasleen ehunekoa	%0,24	%0,64	%0,63	%0,64	%1,42	%1,59

Aniztasunari Erantzuteko Planaren xedeak.

- Ikastetxeari tresna lagungarria ematea laguntzak planifikatu eta antolatzeko, baliabide pertsonalak lehentasunen arabera banatu ahal izateko eta laguntzak horrelako neurrien beharra duten ikasleen premietara (taldekoetara zein indibidualetara) egokitzeko.
- Hezkuntzak aniztasunari ikasgelan eta ikasgelatik kanpo erantzun diezaion, lehentasunak ezartzeko irizpideen zehaztapena gidatzea; hezkuntza erantzun hori hainbat ekintza koordinatuz emanen da (orientazioa, tutoretza, irakasleen, tutoreen eta arloetako irakasleen jarduna, eta irakasle arrunten eta espezializatuen laguntza).
- Atzerriar jatorriko ikasleen eta egoera soziokultural ahulean dauden ikasleen harrerarako eta inklusiorako neurriak eta jarraibideak ezartzea, irakasle taldeak adostutako Harrera Planaren barruan.
- Ikasturtean zehar agertu daitezkeen premia berriei erantzuteko, aldaketak sartzea ahalbidetzen duen planifikazioa aurreikustea, antolaketa neurri malguak sartuta, irakasle arrunten eta espezialisten esku-hartzeak unean uneko beharren arabera moldatu daitezzen.
- Aniztasunari erantzutearen eraginkortasunaren barneko ebaluazioa gidatzea, eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzea.

Ezgaitasunekin loturiko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzea.

Ikasle horiek nola eskolatu zehazteko erabakiak hartzeko prozesu jakin bat jarraitu behar da, bermatu dadin ikasle bakoitzaren ezaugarrientzat egokiena den hezkuntza erantzuna emanen dela, betiere, testuinguru ahalik eta normalizatuenean.

Oro har, ikaslea ikastetxe arruntetan eskolatzea proposatuko da ikaslearen hezkuntza premia bereziei (HPB) ikastetxeetako ohiko baliabideekin erantzuten ahal bazaie (eskolako orientzailea, Pedagogia Terapeutikoko irakasleak, Entzumeneko eta Hizkuntzako irakasleak eta, hala dagokionean, zaintzailea, fisioterapeuta eta NHBBZko kanpoko laguntzak).

Aldiz, ikaslearen HPBei erantzuteko eta etengabeko banakako laguntza baldintzak eta ikastetxe arrunt batek ezin eskaini dituen ekintza bereziak behar direnean, ikaslea Hezkuntza Bereziko ikastetxe batean eskolatzea proposatuko da. Hori gertatzen da ikasleak egokitzapen oso esanguratsuak behar dituztenean bere adinaren arabera dagokion curriculum ofizialeko arloetan eta, beraz, uste denean ikastetxe arrunt batean bere gizarte integrazioa eta ikasketetako lorpenak minimoak izanen direla.

Eskolatze modalitateak. Antolaketa motak.

Bi modalitate daude. Modalitate horiek curriculumaren egokitze maila desberdinei dagozkie, ikasle bakoitzak behar dituen laguntza mota eta mailaren arabera:

1.- Ikastetxe arruntean / Antolaketa motak:

- Lehentasunezko ikastetxea.
- Garapenaren nahaste orokorrak dituzten ikasleentzako berariazko ikasgelak.
- Haur eta gazteen eguneko ospitaleko terapia- eta hezkuntza-programa.
- Curriculum bereziko unitateak (CBU).
- Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programa Bereziak ikastetxe arruntean (HLKPB).

2.- Hezkuntza Bereziko ikastetxean / Antolaketa motak:

- Hezkuntza Bereziko ikasgela, landa eskualdeetan.
- Hasierako Lanbide Kualifikaziorako Programa Bereziak (HLKPB) Hezkuntza Bereziko ikastetxean.
- Helduarora Igarotzeko Hezkuntza Programak (HIHP).

Eskolatze modalitatea zehazteko irizpideak.

Ikastetxeetako orientatzaileek identifikatuko eta baloratuko dituzte HPBak, eta ikasle bakoitzaren premien arabera eskolatze modalitatea eta jarduera plan egokienak proposatuko dituzte.

Ebaluazio psikopedagogikoaren bidez erabakitzen ahalko dira kasu-kasuan beharrezkoak diren egokitzapenen mota eta maila, baldintzak eta laguntzak (espezializatuak ala ez) eta, beraz, baldintza eta laguntza horiek ohikoagoak ala ezohikoagoak izanen diren. Balorazio hori erabakigarria izanen da eskolatze modalitate bat ala beste, eta modalitate horren barruan antolaketa mota bat ala beste, proposatzeko.

Aniztasunari erantzuteko baliabide arruntak Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan.

A) Haur eta Lehen Hezkuntza.

Ikasleek, orokorrean, denbora guztia ikasgela arruntetan egiten dute, murgiltze eta erantzun normalizatuko prozesu baten barruan.

Lehen Hezkuntzan, arau orokor gisa eta hasierako ebaluazioa ikusirik, ikasturte bateko atzerapen orokorra duten ikasle sartu berriak adinagatik dagokien mailan sartu ordez, urtebete gazteagoen mailan sartuko dira. Ziklo batetik gorako curriculum atzerapena dutenek, beheagoko mailan sartzeaz gainera, beren premien araberrako laguntza jasoko dute.

Bigarren eta hirugarren zikloetan irakasle arruntek, lehentasunez, aniztasunari erantzuteko orduetan, atzeritar jatorriko ikasleen errefortzuak egiten dituzte, harrera- eta irakas-hizkuntza irakasteko programak garatuz, eta curriculum atzerapena dutenentzako laguntza lanak ere egiten dituzte.

B) Bigarren Hezkuntza.

Ikastetxeek, lehenik eta behin, etapa horretan aniztasunari erantzuteko baliabide eta neurri orokor arruntak izanen dituzte. Zuzendaritza taldeek zainduko dute horren premia duten atzeritar jatorriko ikasleei eta egoera ahulean dauden ikasleei erantzuteko programak ezarriko direla.

Hezkuntza erantzunaren neurrien artean dago aukerako irakasgaien eskaintza. Horri esker arlo instrumentaletan curriculumeko erreformazua egin daiteke eta, aldi berean, ikasleen interesen, motibazioen eta gaitasunen aniztasunari erantzun.

Horren premia duten ikasleak aurrez ikusita dauden berariazko neurrietan sartzen ahal dira (Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak, Curriculum Egokituko Programa eta Curriculum Aniztasuneko Programak).

## **4.2.2. Hezkuntza konpentsazioa**

### **4.2.2.1. Atzerritar jatorriko ikasleei erantzutea.**

**Ikasleak gure hezkuntza sisteman sartzeko prozesua.**

#### **1. Ikasle etorkinentzako informazio gida.**

Agiri honen xedea da eskolatzeko adinean dauden haurrekin Nafarroara iristen diren familiei laguntzea, ezagutu ditzaten gure erkidegoak hezkuntzan eskaintzen dizkien aukera guztiak eta horri buruz erabaki ahal dezaten. Hezkuntza sistema eta haren ezaugarriak deskribatzen ditu, ikastetxeen antolaketari buruzko zenbait alderdi azaltzen ditu, ikasleen eskubide eta eginbeharrak azaltzen ditu, eta ikasleentzako eta familientzako interesekoak izan daitezkeen datuak ematen ditu.

Hainbat hizkuntzatan argitaratzen da (gaztelania, frantsesa, ingelesa, errusiera, errumaniera, bulgariera, arabiera, euskara) eta ikastetxeetan familiei aurreneko harrera egiten laguntzen du. Hezkuntza Departamentuan eta webgunean ere eskura dute ikastetxeek, tokiko batzordeek eta zeinahi kontsulta egin beharra duen orok.

#### **2. Atzerritar jatorriko ikasleei harrera egiteko programa**

Ikasle etorkinek arazoak izaten dituzte, hauek adibidez:

- Ama-hizkuntza ez den hizkuntza bat ikasi eta egunero erabili beharra ikasketa prozesu osoan.
- Erreferente kultural desberdinak: eskolak eskainitakoa eta etxean aurkitzen dutena, sarritan bizitzaren eta jarduteko moduaren gaineko bi ikusmolde desberdinetatik datozenak.
- Maila akademiko desberdinak. Batzuetan kurtso bateko edo gehiagoko curriculumeko atzerapena dute, adinagatik dagokienarekiko.
- Herrira edo auzora egokitze arazoak, sozializazioa oztopatzen dutenak: batzuetan ez dute adiskiderik edo beti beren nazionalitateko lagunak egiten dituzte.
- Beren erreferentzia sozialak eta afektiboak hein handi batean galtzen dituzte, horrek dakarren desoreka emozionalarekin.
- Prekarietate ekonomikoaren, langabeziaren, etxebizitza baldintzen eta abarren eragina.

Harrera Programaren lehentasunezko helburua ikasle guztien inklusioa lortzea da, ikastetxe bateko hezkuntza lanean esku hartzen duten guztien parte-hartzearen eta konpromisoaren bitartez. Hezkuntza sisteman lehenbizikoz sartzen diren ikasleei harrera egokia egitea da ikasle horiei garapen pertsonalerako, kulturalerako eta sozialerako espazio bat eskaintzea, ikastetxeek emandako balioen trukearen eta bultzadaren bidez.

“Ikasle etorkinei harrera egiteko programa” (IEHEP) delakoaren xedea irakasleak orientatzea da, programa bera prestatu edo eguneratu, arduradunak eta zuzenean inplikaturako pertsonak zehaztu edo helburuak zehaztzeko orduan.

Proposamen hori Aniztasunari Erantzuteko Planean sartu behar da.

Programak ondoko alderdiak garatzen ditu:

- Hezkuntza erkidegoa kultura arteko hezkuntzan sentsibilizatzea.
- Ikastetxean familiari harrera egiteko orientabideak.
- Hasierako ebaluaziorako eta ikaslea talde bati atxikitzeko orientabideak.
- Ikasgelan harrera egitea.
- Curriculumean sartzeari.
- Antolaketa eta funtzionamendua.

- Kulturen arteko gaitasunak garatzea.
- Estrategia metodologikoak.
- Harrera Programaren autoebaluazioa.

Harrera programa, informazio gida bezala, webgunean eskuragarri dago ikastetxeek erabili dezaten, eta ikastetxeek aldatzen ahal dute programa hori prestatzeaz edo berrikusteaz arduratzen den irakasle taldearen irizpidearen arabera.

### **3. Hasierako ebaluazioa Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Hizkuntza eta Matematika ebaluatzeko protokoloak**

Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzuak **Hasierako ebaluaziorako** protokoloak eskaintzen ditu. Agiri horien xedea da Lehen Hezkuntzako edo DBHko edozein mailatan sartuko diren ikasleen gaitasunak eta ezagutzak ebaluatzeko tresna bat ematea ikastetxeei, hezkuntza prozesuari bermeekin ekiteko, eta curriculum atzerapena aurreikusi eta gutxitzeko.

Osotara 16 ebaluazio koaderno dira, curriculumeko Matematika arloa edo Hizkuntza arloa Lehen Hezkuntzako 2., 3., 4., 5. eta 6. mailetan eta DBHko 1., 2. eta 3. mailetan ebaluatzeko. Agiri hauekin irakasleei proben eredu bat ematea da asmoa, kontuan izanik emandako ereduak ikastetxe, ikasgela, ikastalde eta ikasle bakoitzarentzat egokitzen ahal dela.

Koaderno bakoitzaren edukia honakoa da: proben helburuak, edukiak, eduki blokeak, probak aplikatzeko jarraibideak eta curriculumeko Matematika arloa eta Hizkuntza arloa modu egokian ebaluatzeko irizpideak, curriculumeko gaitasunen adierazleen koadroa, talde osoko erregistroa eta hasierako ebaluaziorako eskala.

Matematika ebaluatzeko protokoloak gaztelaniaz zein euskaraz daude eskuragarri.

Agiri horiek guztiak Departamentuaren webgunean daude, interesa dutenen eskura.

### **4. Lehen Hezkuntzako ikastetxeak laguntzeko berariazko programa, egoera soziokultural ahulean dauden ikasleei eta atzerritar jatorriko ikasleei hezkuntza erantzuna emateko**

Egoera soziokultural ahulean dauden ikasleentzako eta atzerritar jatorriko ikasleentzako laguntza neurriak aniztasunari erantzuteko neurri arrunten osagarriak dira, eta haien berariazko premietan dute jatorria.

Neurri horiek Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduan jasotzen dira. Foru agindu horrek Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen du.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe jakin batzuek atzerritar jatorriko eta egoera ahuleko ikasleen kopuru esanguratsua dutenez, Hezkuntza Departamentuak ikastetxe horiek laguntzako irakasleek hornitu ditu. Laguntzako irakasleek irakasle arruntei laguntzen diete curriculumeko atzerapen handia duten ikasleei eta gaztelania ez dakiten ikasleei erantzun egokia ematen.

### **5. Gaztelania irakas-hizkuntza gisa irakastea Lehen Hezkuntzan**

Haur eta Lehen Hezkuntzako ia ikastetxe guztietan laguntzako irakasleak arduratzen dira atzerritar jatorriko ikasleei irakas-hizkuntza erakustez, Nafarroako hezkuntza sisteman hura jakin gabe sartzen badira.

Irakasle hauen lanak etapak berezko dituen curriculumeko alderdien irakaskuntzarekin ez ezik irakas-hizkuntzaren ikaskuntzaren jarraipenarekin du zerikusia. Ikastetxe gehienetan laguntzako irakasleek curriculumeko Hizkuntza arloan eta Matematika arloan (biak arlo instrumentalak dira) atzerapena duten ikasleei laguntzen diete, tutorearen lana osatuz.

### **6. Eskola laguntzako programak eta errefortzua eta laguntza Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan**

#### **Eskola laguntzako programa Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan**

Ikastetxe hauek ematen dute programa hori:

## Lehen Hezkuntza:

101. koadroa - Eskola laguntzako programa Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan. 2010-2011 ikasturteik 2012-2013ra							
	Ikastetxea	2010-2011 ikasturtea		2011-2012 ikasturtea		2012-2013 ikasturtea	
		Taldeak	Ikasleak	Taldeak	Ikasleak	Taldeak	Ikasleak
Andosilla	San Babil IP					2	22
Andosilla	Virgen de la Cerca IP	1	13	1	13	1	12
Agoitz	San Miguel IP	1	9	1	9	1	9
Arguedas	Sancho Ramírez IP	1	7	1	7	1	6
Azagra	Francisco Arbeloa IP	1	12	1	12	1	10
Barañain	Los Sauces IP	2	26	2	26	2	24
Bera	Sagrado Corazón IZP	1	10	1	10	1	11
Berriozar	Mendialdea IP	1	12	1	12	1	12
Burlata	Hilarión Eslava IP	2	27	2	27	2	25
	Regina Pacis IZP	1	6	1	6	1	7
Cadreita	Teresa Bertrán de Lis IP	1	12	1	12	1	13
Caparroso	Virgen del Soto IP	2	23	2	23	2	22
Cárcar	Virgen de Gracia IP	1	11	1	11	1	12
Zarrakaztelu	Virgen de la Oliva IP	1	10	1	10	1	8
Castejón	Dos de Mayo IP					1	7
Cintruénigo	Otero de Navascués IP	2	25	2	25	2	28
Corella	José Luis Arrese IP	1	13	1	13	1	16
Cortes	Cerro de la Cruz IP	1	12	1	12	1	12
Lizarra	Remontival IP	2	16	2	16	2	19
Fitero	Juan de Palafox IP	1	9	1	9	1	11
Funes	Elías Terés IP	1	11	1	11	1	9
Irurtzun	Atakondoa IP	2	20	2	20	2	20
Lodosa	Ángel Martínez Baigorri	1	10	1	10	1	11
Martzilla	San Bartolomé IP	1	10	1	10	1	10
Milagro	Ntra. Sra. del Patrocinio IP	1	12	1	12	1	8
Iruña	Rochapea IP	1	12	1	12	1	12
Iruña	Cardenal Ilundáin IP	1	12	1	12	1	9
Iruña	Doña Mayor de Navarra IP	1	12	1	12	1	12
Iruña	Ermitagaña IP	1	16	1	16	1	14
Iruña	García Galdeano IP	1	9	1	9	1	15



**SARRERA**

Iruña	José M <sup>a</sup> Huarte IP	1	12	1	12	1	12
Iruña	Nicasio de Landa IP	1	8	1	8	1	7
Iruña	San Francisco IP	2	30	2	30	1	13
Iruña	San Jorge IP	3	36	3	36	2	37
Iruña	Vázquez de Mella IP	1	12	1	12	1	11
Iruña	Víctor Pradera IP	2	23	2	23	2	30
Azkoien	Juan Bautista Irurzun IP	1	8	1	8	1	10
San Adrián	Alfonso X el Sabio IP	1	10	1	10	1	10
Sartaguda	Nuestra Señora del Rosario IP	1	8	1	8	1	8
Sarriguren	Sarriguren IP	1	8	1	8	1	12
Tafalla	Marqués de la Real Defensa IP	1	11	1	11	1	12
Tutera	Elvira España IP	1	10	1	10	1	13
Tutera	Griseras IP	1	12	1	12	1	14
Tutera	Virgen de la Cabeza IP	2	24	2	24	2	21
Valtierra	Félix Zapatero IP	1	12	1	12	1	11
Alesbes	El Castellar IP	1	12	1	12	1	13
Atarrabia	Lorenzo Goikoa IP	1	12	1	12	1	11
34 herritako 47 ikastetxetan						57	651

Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua.

**Bigarren Hezkuntza**

102. koadroa - Eskola laguntzako programa Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. 2010-2011 ikasturtetik 2012-2013ra							
Herria	Ikastetxea	2010-2011 ikasturtea		2011-2012 ikasturtea		2012-2013 ikasturtea	
		Ikasle kopurua	Taldeak	Ikasle kopurua	Taldeak	Ikasle kopurua	Taldeak
Berriozar	Berriozarko DBHI	23	2	23	2	21	2
Burlata	"Ibaialde" BHI	22	2	22	2	18	2
Leitza	"Amazabal" BHI	9	1	9	1	7	1
Iruña	"Navarro Villoslada" BHI	24	2	24	2	15	2
Iruña	"Padre Moret" BHI	26	2	26	2	32	2
Iruña	"Plaza de la Cruz" BHI	14	1	14	1	23	1
Tafalla	"Sancho III el Mayor" BHI	11	1	11	1	28	4
Viana	"Bideko" DBHI	22	2	22	2	21	2

Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua.

103. koadroa - BHlantzako errefortzu eta laguntza programa – PROA, 2010-2011 ikasturteik 2012-2013ra							
Herria	Ikastetxea	2010-2011 ikasturtea		2011-2012 ikasturtea		2012-2013 ikasturtea	
		Ikastalde kopurua	Ikasle kopurua	Ikastalde kopurua	Ikasle kopurua	Ikastalde kopurua	Ikasle kopurua
Azagra	Azagako DBHI	1	6	1	8	1	10
Barañain	Barañaingo BHI	1	7	1	12	1	8
Burlata	Ibaialde BHI	2	10	2	10	2	10
Berriozar	Berriozarko DBHI			2	13	2	13
Corella	Alhama BHI			1	11	1	7
Cintruénigo	La Paz DBHI			1	13	1	11
Lizarra	Lizarralde BHI			2	10	1	10
Martzilla	Marqués de Villena BHI			1	15	3	45
Iruña	Basoko BHI			1	4	1	4
	Julio Caro Baroja BHI			2	9	2	14
	Padre Moret-Irubide BHI			1	13	2	28
	Pedro de Ursúa BHI			3	20	2	14
Azkoién	Ribera del Arga BHI			1	9	1	12
San Adrián	Ega BHI			1	8	1	8
Tafalla	Sancho III el Mayor BHI			1	7	2	10
Tutera	Benjamín de Tudela BHI			1	10	2	18
	Valle del Ebro BHI			1	12	1	19
<b>13 herriako 17 ikastetxetan</b>				<b>23</b>	<b>184</b>	<b>26</b>	<b>232</b>

Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua.

## 7. Hizkuntzan murgiltzeko programa, DBHn eskolatutako atzerritar jatorriko ikasleei irakas-hizkuntza irakasteko

Programa eskualdeko baliabidea da.

104. koadroa - Hizkuntzan murgiltzeko programak, 2012-2013 ikasturtea			
Eskualdea	Hizkuntzan murgiltzeko programa duten ikastetxeak	Irakasle kopurua	Ikasle kopurua
<b>Sare publikoan</b>			
Iruña eta Iruñerria	Barañain: Barañaingo BHI	1	4
	Uharteko: Uharteko BHI (14 urtetik gorakoentzako ikasgela)	1	3
	Iruña: Basoko BHI	1	2
	Iruña: Julio Caro Baroja BHI	1	7
	Iruña: Padre Moret-Irubide BHI	1	6
	Iruña: Plaza de la Cruz BHI	1	4
Nafarroako gainerako eskualdeak	Lizarra: Lizarralde BHI	1	4
	Martzilla: Marqués de Villena BHI	1	6
	Azkoién: Ribera del Arga BHI	1	3
	San Adrián: Ega BHI	1	3

	Tutera: Valle del Ebro BHI	1	5
	Cintruénigo: La Paz DBHI	1	5
<b>12 ikastetxe publiko</b>		<b>12</b>	<b>52</b>

Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua.

**105. koadroa - Ikastetxeei laguntzeko programen laburpena, Lehen Hezkuntza eta DBHn, egoera soziokultural ahulean dauden ikasleei eta atzerritar jatorriko ikasleei hezkuntza erantzuna emateko.**

Programa			2010-2011	2011-2012	2012-2013
Lehen Hezkuntza	EAIL	Egoera ahulean dauden ikasleei laguntza ematen dieten ikastetxeak	20	61	61
	ELPLH	Eskola laguntzako programa Lehen Hezkuntzan	50	46	42
Bigarren Hezkuntza	HMPA	Hizkuntza murgiltzeko programa atzerritarrentzat	18	19	12
	ELPBH	Errefortzu eta laguntza programa Bigarren Hezkuntzan	16	17	17

Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua.

### 8. Portugalgo Hizkuntza eta Kultura Programa.

Programa hau Europar Batasunak sortu zuen Portugalgo, Angolako, Brasilgo, Cabo Verdeko eta abarreko jatorri portugeseko ikasleen hezkuntza premiei erantzuteko.

Programaren helburu nagusia da ikasleen nortasuna sendotzea, langile eta immigrante portugesen seme-alaben erreferentzia linguistikoak eta kulturalak mantentzea eta, orobat, Espainiako ikasleengan beste kultura batzuekiko interesa eta errespetua sustatzea.

#### Egindako jarduerak

- Programako irakasleekiko koordinazioa eta baterako ekintzak ezartzea.
- Kultura agregatuarekin eta beste autonomia erkidego batzuetako teknikariekiko koordinatzea.
- Programako ikastetxeetako zuzendaritza taldeekin elkarriketak egitea.
- 2012-2013 ikasturtean programa honetan irakasle bat bakarrik izan da. [Lehen Hezkuntzako bi ikastetxetan jarduerak finkatu dira](#): Rochapea HLHIPn (publikoa) eta Esclavas del Sagrado Corazón ikastetxe itunduan; eta Bigarren Hezkuntzako ikasmaita batean ezartzea lortu da, Julio Caro Baroja BHI.
- 2012-2013 ikasturtean zehar programak zuzenean 359 ikasleri eskaini die arreta. Horietatik 44 jatorri portugesekoak edo portugesez hiztunak ziren, 177 espainiarrak eta 138 beste nazionalitate batzuetakoak.

#### Balorazioa

Programa ezarrita dagoen ikastetxeak oso pozik daude hezkuntza arretarekin eta landutako kultura arteko balioekin.

Jatorri portugeseko familiek "beren herrialdeko enbaxadore bat" aurkitzen dute programan eta gizartean sartzen laguntzen die. Irakasleek Portugalgo hizkuntzaren eta kulturaren ikasketa hasi edo finkatzen dute, eta Portugalgo hizkuntza eta kultura hezkuntza erkidegoan kultura arteko loturen sustatzaile eta erreferente bihurtzen dira.

#### 9. Errumaniako Hizkuntza eta Zibilizazio Programa.

Programa Errumaniako Hezkuntza, Ikerketa eta Gazteria Ministerioak eta Espainiako Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak 2007ko uztailaren 16an izenpeturiko deklarazio komunaren babesean sortu zen.

Nafarroan 2012-2013 ikasturtean ezarri zen.

Honako helburu hauek ditu:

- Errumaniar jatorriko ikasleek beren ama hizkuntza erabil dezaten sustatzea.

- Errumaniako historiaren eta kulturaren mugari nagusiak ezagutzea.
- Nortasun propioak garatzea europar balioen testuinguru barruan.

Jarduerak eskola ordutegitik kanpo egiten dira, astean bi saio, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, DBHko eta Batxilergoko taldeetan lan eginez.

Egindako jarduerak

- Proiektua hedatzeko ekintzak.
- Zuzendaritza taldeekin harremanak, bisitak eta elkarrizketak programa ezartzeko.
- Lehenbiziko ikasturte honetan irakasle errumaniar bat izan da. 4 ikastetxetan eman ditu eskolak (Lehen Hezkuntzako 3 eta Bigarren Hezkuntzako 1; 2 Iruñean, 1 Barañainen eta 1 Lodosan) eta osotara 90 ikaslek jaso dituzte eskola horiek, 6 taldetan.

Balorazioa

Jardueren antolaketari eta funtzionamenduari buruz oso balorazio positiboa egin dute zuzendariek edo zuzendaritza taldeek.

Errumaniar familiek ere gogobetetasun maila altua adierazi dute eta lankidetzan aritu dira seme-alabei beren ama hizkuntzako atazak egiten laguntzeko jardueretan.

#### 4.2.2.2. Aldi baterako hemen dauden ikasleak

106. koadroa - Aldi baterako hemen dauden ikasleak, 2012-2013 ikasturtea		
Herriak	Ikastetxeak	Ikasleak
6	6	25

Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua.

Nafarroako nekazaritza kanpainetara (mahats biltzea eta zainzuria) datozen sasoikako langile familietako seme-alaben hezkuntza premiei erantzuten saiatzen da programa.

#### Egindako jarduerak

Aldi baterako hemen dauden ikasleak eskolaturik dauden ikastetxeei diru-laguntza ematea (liburuak, koadernoak, eskola txangoak, etab.).

Ikasle hauek komunitate honetako 6 ikastetxetan matrikulatu dira. Matrikulatutako ikasleak 25 izan dira. Ekinaldiak, bi: bata, zainzuria biltzea, eta bestea, mahatsa.

#### Balorazioa

Egoera honetan dauden ikasleak gero eta gutxiago dira komunitate honetara datozen familiek beren jatorrietako herrietan uzten dituztelako eskola garaian dituzten seme-alabak.

#### 4.2.2.3. Ospitalizaturiko ikasleak, 2012-2013 ikasturtea

107. koadroa - Ospitalizaturiko ikasleak. 2012-2013 ikasturtea					
	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH	Derrigorrez koaren ondokoa	Gutzizkoak
Virgen del Camino ospitaleko arretak	160	182	56	-	398
Haur eta gazteentzako Eguneko Ospitaleko eta Ospitaleko Unitate Psikiatrikoko arretak	-	7	45	18	70

Etxeko arretak	7	12	23	-	42
<b>Guztira</b>	<b>167</b>	<b>201</b>	<b>124</b>	<b>18</b>	<b>510</b>

Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua.

#### 4.2.2.4. Egoera ahulean dauden ikasleak dituzten ikastetxe publiko eta itunduetarako laguntza ekonomikoak

108. koadroa - Egoera ahulean dauden ikasleei laguntzeko diru-laguntzak. 2012-2013 ikasturtea					
Xedapenaren epealdia Ebazpena	Ikastetxe onuradunak		Ikasle onuradunak		Guztira
	Haur eta Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	Haur eta Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	
64E/2012 Ebazpena Ikastetxe publikoak <sup>52</sup>	106	30	5.427	1.494	137.500 €
255/2012 Ebazpena Ikastetxe itunduak <sup>53</sup>	360 laguntza ordu 60 ikastetxe				649.446,80 €
763/2012 Ebazpena Ikastetxe itunduak <sup>54</sup>	51		1.440		413.000 €
430/2013 Ebazpena. Secretariado Gitano fundazioa					18.000 €
<b>Laguntzak, guztira</b>					<b>1.217.946,8 €</b>

Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua.

#### Hezkuntza Berezirako berriazko laguntzak

109. koadroa - Hezkuntza Berezirako Nafarroako Gobernuaren bekak eta laguntzak. 2012-2013 ikasturtea					
	Eskaerak		Emandakoak		Emandako zenbatekoa, guztira (eurotan)
	G	E	G	E	
Haur Hezkuntza	95	33	21	10	24.385,50
Lehen Hezkuntza	121	60	32	10	31.076
Hezkuntza Berezia	80	50	73	41	60.335,50
DBH	25	4	1	0	1.064
GMHZ	0	0	0	0	0
EMHZ	2	0	0	0	0
Batxilergoa	1	1	0	1	450
HCLKPB	12	6	7	3	3.708
BCU	4	6	3	3	4.559
GNO	34	14	31	13	8.962
<b>Guztira</b>	<b>374</b>	<b>174</b>	<b>168</b>	<b>81</b>	<b>134.540</b>

Iturria: Antolamenduaren eta Aukera Berdintasunaren Zerbitzua.

<sup>52</sup> Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleei laguntzeko, ikastetxe publikoei esleituriko diru-laguntzak.

<sup>53</sup> Egoera ahulean dauden ikasleei laguntzeko, laguntza-irakasleen orduak kontratatzeko esleituriko diru-laguntzak.

<sup>54</sup> Egoera sozioekonomiko ahulean dauden ikasleei laguntzeko, ekipamendu pertsonalerako eta eskola jantokirako ikastetxe itunduei esleituriko diru-laguntzak.

Aurreko koadroan bildutako Hezkuntza Bereziko laguntzak ondoko ebazpen honek arautu ditu: 53/2013 Ebazpena, otsailaren 12koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2012-2013 ikasturterako Hezkuntza Bereziko beka eta laguntzak emateko deialdia onesten duena.

### 4.2.3. Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna

Hezkuntza Departamentuko Baterako Hezkuntzako taldeak (Hezkuntzako Parte-hartzearen, Irakasleentzako Arretaren eta Bizikidetzaren Atalaren mende dagoenak) unibertsitatez kanpoko ikastetxeetarako eta irakasleentzako prestakuntza diseinatzen eta garatzen du, etapa eta maila guztietako ikaskuntza eta irakaskuntza prozesuetan zein ikastetxeen antolakuntzan eta ikastetxeen eta hezkuntza erkidegoaren arteko harremanetan berdintasuna txertatzeko.

Ahozko hizkuntza irakastea: praktika Altsasuko Institutuan	On-line erako ikastaroa (Bertaratu beharreko 2 saio)	50	21	18	18	100	
Ahozko hizkuntza irakastea (lantaldea)	On-line erako ikastaroa (Bertaratu beharreko saio 1)	35	4	4	4	100	
Euskara sustatzeko bideak: ahozkoa eta motibazioa	On-line erako ikastaroa	50	22	20	18	90	
Euskara sustatzeko bideak: ahozkoa eta motibazioa	On-line erako ikastaroa	50	31	24	21	87,5	
<b>Informazioaren eta komunikazioaren teknologietako ikastaroak</b>							
Wikiak	On-line erako ikastaroa	15	35	29	21	72,41	
Google baliabideak	On-line erako ikastaroa	25	66	52	44	84,6	
Interneteko baliabide berriak aztertzen	On-line erako ikastaroa	15	27	16	12	75	
<b>Guztira</b>		<b>445</b>		<b>340</b>	<b>275</b>		

Iturria: Euskararen Irakaskuntzarako Baliabide Zentroa (EIBZ). Euskara Atala.



#### 4.3.4. Lanbide Heziketa

Espanian, 5/2002 Lege Organikoak eta 2/2006 Lege Organikoak ezarritako esparruaren barruan, Lanbide Heziketaren ereduaren erabateko eraldaketa gertatzen ari da. Nafarroan, hezkuntza sisteman Lanbide Heziketa antolatzeke eta garatzeko prozesua 54/2008 Foru Dekretutik aurrera arautu da.

Herrialde garatuenak, Europar Batasunekoak zein Europar Batasunetik kanpokoak, aldaketa estrategikoak sartzan ari dira, lanerako kualifikazioa eta prestakuntza ekoizpen sektoreen eskarrietara eta langileen beharretara egokitzeko. Ildo honetan, Nafarroak uste du langileen lanbide kualifikazioak gure erkidegoaren garapen ekonomikorako garrantzi estrategikoa duela; eta, horregatik, ezinbestekoa dela Lanbide Heziketaren sistema behar bezala prestatzea, Kualifikazioen Esparru Europarretik etorritako eronkei erantzuteke eta Lanbide Heziketako titulu berriak ezarri eta hobetzeko.

Nafarroan, Lanbide Heziketako ikasketa berriak garatzeko prozesuak bi erreferente argi ditu. Lehenengo erreferentea Estatu mailakoa da. Alderdi desberdinetatik Estatuaren arau esparruari egindako ekarpenekin du zerikusia. Gisa horretakoak dira, hain zuzen ere, ondoko hauek: energiaren eta uraren sektoreko kualifikazioen diseinua, lanbide horren barruan planteatutako Lanbide Heziketako tituluak, gaitasunak egiaztatzeke prozedura arautzekei buruzko proposamenak prestatzen dituzten lantaldeetako elkarlana, lanbide orientazioa, kualifikazioak berrikusteko eta eguneratzeko metodologia egokien gainean ari diren lan batzordeetan parte hartzea, eta abar.

Bigarren erreferentea Nafarroako esparruan garatzen diren jarduerak eta proiektuak dira. Bigarren ardatz honek funtsezko protagonismoa hartu du azken ikasturteotan, gure erkidegoan Lanbide Heziketaren sistema garatzekeri dagokionez. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da Nafarroan Lanbide Heziketa garatzeko eta Kualifikazioen Sistema Nazionala ezartzeko jarraibideak ezartzen dituen 2005eko apirilaren 4ko Nafarroako Gobernuaren Erabakia. Erabakian, besteak beste, esaten da Nafarroako Kualifikazioen Sistema ezartzeko eta garatzeko prozesuan elementu kritikoak direla Nafarroako Ikastetxe Integratuaren sorrera eta lanbide gaitasuna egiaztatzeke prozesuak. Halaber, ikasketak planifikatzeko politika irmoak aurrera eramaten ari dira, Lanbide Heziketako titulu ofizial berriak onetsita, eta berrikuntza teknologikoekin, azpiegituren modernizazioarekin eta ekintzaitzarekin zerikusia duten proiektuak burutzen ari dira.

2012-2013 ikasturtean, aurrerapen hauek gertatu dira gorago aipatutako alderdietan:

##### 1. Ikastetxe integratuak.

Nafarroako Foru Komunitateko Lanbide Heziketako ikastetxe integratuak irailaren 4ko 63/2006 Foru Dekretuak arautzen ditu. Foru dekretu horretako xedapen gehigarrietan bigarrenak baimena eman zuen 2006-2007 ikasturteetik aurrera ikastetxe integratu politeknikoaren proiektu pilotu esperimentalak abian jartzeko. Hezkuntzako kontseilariaren urriaren 3ko 119/2006 Foru Aginduaren bidez ikastetxe batzuk ikastetxe integratu politeknikoaren proiektu pilotu esperimentala garatzeko izendatu zituzten, honako hauek: "Donapea" Ikastetxe Integratu Politeknikoa, "Virgen del Camino" Ikastetxe Integratu Politeknikoa, "ETI" Ikastetxe Integratu Politeknikoa eta Energia Berriztagarrien Goi Mailako Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua.

2010-2011 ikasturtean amaitutzat jo zen ikastetxe integratuaren proiektu pilotu esperimentala, eta onartu zen 198/2010 Foru Agindua, abenduaren 1ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe integratu publikoak izendatzen dituen eta Nafarroako ikastetxe integratu publikoaren sarea sortzen duena.

2012-2013 ikasturtean, Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 24ko 58/2013 Foru Aginduaren bidez, Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe integratu publiko batzuk izendatu eta Nafarroako ikastetxe integratu publikoaren sareari erantsi zitzaizkion:

Ikastetxe integratu politeknikoak

"Donapea" Ikastetxe Integratu Politeknikoa

"Virgen del Camino" Ikastetxe Integratu Politeknikoa

"ETI" Ikastetxe Integratu Politeknikoa

Lizarrako Ikastetxe Integratu Politeknikoa

Tafallako Ikastetxe Integratu Politeknikoa

"FP Sakana LH" Ikastetxe Integratu Politeknikoa

## Ikastetxe integratuak

Energia Berriztagarrien Goi Mailako Ikastetxe Integratua

Nekazaritza eta Basogintzako Ikastetxe Integratua

"Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa-ESTNA" Ikastetxe Integratua

"María Ana Sanz" Administrazio, Merkataritza eta Informatika Ikastetxe Integratua

"Hezitzaile Eskola" Ikastetxe Integratua

"San Juan – Donibane" Ikastetxe Integratua

2012-2013 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko lehenbiziko ikastetxe integratu pribatua izendatu da, Hezkuntzako kontseilariaren urtarrilaren 3ko 1/2013 Foru Aginduaren bidez, izen honekin:

"Politécnico Salesianos" Ikastetxe Integratu Pribatua

2012-2013 ikasturtean zehar ikastetxe integratu horiek bereizten dituzten jarduerak burutu dira, hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako eta enplegurako lanbide prestakuntzako eskaintza bateratua eginez, ikastetxe horien parte-hartzea duten nazioarteko proiektuak sendotu dira, 2011-2012 ikasturtean hasi zen ekintzailtza gaitasuna sustatzeko berrikuntza ildo zabaldu da eta Lanbide Heziketaren esparruko gainerako ildo estrategikoak indartu dira.

2013. urtean aurreikusita dago Nafarroako Foru Komunitatean bigarren ikastetxe integratu pribatua izendatzea eta ikastetxe integratuen sare publikoa handitzea.

### 2. Gaitasunaren egiaztatpena.

Laneko esperientzaren edo prestakuntzako bide ez-formalen bitartez eskuraturiko lanbide gaitasunak ebaluatzeko eta akreditatzeko prozedura, Lanbide Kualifikazioen eta Lanbide Heziketaren Sistema Nazionalaren tresnetako bat, uztailaren 17ko 1224/2009 Errege Dekretuak arautzen du.

2012-2013 ikasturtean azpimarratzekoa da Hezkuntza Departamentuak eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak batera egin duten deialdia, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak abenduaren 14an emandako 313/2011 Ebazpenaren bidez arautua. Ebazpen horren bidez 2012rako deialdia egiten da, Nafarroako Foru Komunitatean, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionaleko zenbait kualifikaziori lotuta dauden lanbide gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzeko, osotara 480 posturekin. Deialdi honetan sartutako lanbide profilak eta eskaintako postuak ondokoak dira:

- Osasun Larrialdia. 30 postu.
- Soldadura eta Galdaragintza. 30 postu.
- Sukaldaritza eta Gastronomia. 30 postu.
- Haur Hezkuntza. 90 postu.
- Mendekotasuna duten Pertsonentzako Arreta. 270 postu.
- Igeltserotzako laguntzailea. 30 postu.

Ondoren, bitan gehitu da postuen eskaintza. Lehenengoan, ekainaren 21eko 390/2012 Ebazpenaren bidez, 210 postu gehiago sartu ziren Mendekotasuna duten Pertsonentzako Arretako lanbide profilaren eskaintzan. Bigarrenean, martxoaren 12ko 124/2013 Ebazpenaren bidez, 90 postu gehiago sartu ziren Mendekotasuna duten Pertsonentzako Arretako lanbide profilaren eskaintzan, eta 35 postu gehiago Osasun Larrialdietako lanbide profilaren eskaintzan.

Guztira 825 ikaspostu eskaini ziren lanbide profil guztietarako.

Prozesu horietan Hezkuntza Departamentuaren Lanbide Heziketako sareko ikastetxe hauek parte hartu dute: "Virgen del Camino" IIP, "FP Sakana LH" IIP, "Burlada FP" BHI, "Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa-ESTA" II, "Hezitzaile Eskola" II, "ETI" IIP, Tafallako IIP, "Ribera del Arga" BHI, "Lekaroz-Elizondo" BHI eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren "Iturrondo" Prestakuntza Zentroa. Horri esker lanbide gaitasunak ebaluatzeko eta egiaztatzeko prozeduraren eskaintzaren lurralde-hedadura handitu ahal izan da.

### 3. Ekintzailtza sustatzea

2012-2013 ikasturtean ekintzailtza gaitasuna sustatzeko berrikuntza ildo garatu da. Aurreko ikasturtean sartu zen ildo horren helburua Lanbide Heziketako ikasleengan ekintzaile espiritua sustatzea eta garatzea da. 2012-2013 ikasturtean metodologia berri bat diseinatu da, tresna eta guzti. Metodologia hori Lanbide Heziketako zazpi ikastetxe integratutan saiatu da "Enpresa eta ekimena" moduluaren

bitartez. Proiektu honetan parte hartzen ari diren ikastetxe integratuak eta heziketa zikloak ondokoak dira:

Ikastetxe integratua	Heziketa zikloa
Tafallako IIP	Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria Sistema Elektrotekniko eta Automatizatueta goi mailako teknikaria
"Virgen del Camino" IIP	Sistema Elektrotekniko eta Automatizatueta goi mailako teknikaria Metalezko Eraikuntzetako goi mailako teknikaria
Lizarrako IIP	Sareko Sistema Informatikoen Administrazio goi mailako teknikaria Mekanizazioko teknikaria
"Donapea" IIP	Automozio goi mailako teknikaria Analisien eta Kalitate Kontrolaren Laborategiko goi mailako teknikaria
"María Ana Sanz" Administrazio, Merkataritza eta Informatika II	Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapeneko goi mailako teknikaria Web Aplikazioen goi mailako teknikaria
Energia Berriztagarrien Goi Mailako II	Energia Eraginkortasuneko eta Eguzki Energia Termikoko goi mailako teknikaria
"Donapea" IIP	2012-2013 ikasturtean ikastetxe hauek, Lanbide Heziketaren Zerbitzuarekin lankidetzan, metodologia diseinatu eta beren tresnak prestatzen aritu dira: ikasturtea programatu, plataforma eraiki, plataformarako edukiak prestatu eta aukeratu, jarduerak diseinatu eta programatu dituzte.
"Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa - ESTNA" II	

2013-2014 ikasturtean metodologia berri hori Lanbide Heziketako ziklo guztietara hedatuko da "Enpresa eta ekimena" moduluen bitartez. Horretarako, 2013an goi mailako 16 zikloren curriculumak aldatzen ari dira, "Lanerako Prestakuntza eta Orientazioa" eta "Enpresa eta ekimena" izeneko moduluak bigarren kurtsoan batuz. Lanbide Heziketako titulu hauek ari dira aldatzen:

- Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria
- Analisien eta Kalitate Kontrolaren Laborategiko goi mailako teknikaria
- Energia Eraginkortasuneko eta Eguzki Energia Termikoko goi mailako teknikaria
- Energia Berriztagarrietako goi mailako teknikaria
- Metalezko Eraikuntzetako goi mailako teknikaria
- Fabrikazio Mekanikoaren Arloko Produkzioaren Programazioko goi mailako teknikaria
- Automozio goi mailako teknikaria
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria
- Sareko Sistema Informatikoen Administrazio goi mailako teknikaria
- Eraikuntza Proiektuetako goi mailako teknikaria
- Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapeneko goi mailako teknikaria
- Web Aplikazioen Garapeneko goi mailako teknikaria
- Elikagaien Industriako Prozesuetako eta Kalitateko goi mailako teknikaria
- Bero eta Fluido Instalazioen Mantentze-lanetako goi mailako teknikaria
- Sistema Elektrotekniko eta Automatizatueta goi mailako teknikaria
- Sukaldeko Zuzendaritzako goi mailako teknikaria

Aurreikusita dago 2013-2014 ikasturtearen hasieran erdi mailako 16 heziketa zikloren curriculumak aldatzen hastea, bigarren kurtsoan "Enpresa eta ekimena" modulua sartu ahal izateko.

Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalak (LKKN) Lanbide Heziketako tituluak diseinatzeko Estatuak erabiltzen duen oinarriko erreferentzia ematen du. Estatu osoan da aplikagarria LKKN, eta ekoizpen sisteman identifikatutako kualifikazioek eta horiei lotutako prestakuntzak osatzen dute. Horrek Lanbide Heziketa ekoizpen sistemara egokitzea errazten du.

Berriki onetsi diren lanbide kualifikazioak, enpresei egokituak daudenak, izan dira titulu berrien oinarria. Estatu mailako enpresa eta erakundeetako adituz osatutako taldeek lanbide gaitasun nagusiak definitu dituzte, betiere, etorkizunari begira.

Ondoren, antzeko lana egin da Nafarroan, tituluak egokitzeko gure lan-, gizarte- eta ekonomia-egoerara, Hezkuntza Departamentuak planteatu duen ikuspegi didaktikoari eta antolaketara, eta aukera estrategiko komenigarrienera. Gainera, tituluaren xedea benetako profesionalak prestatzea denez, eta ez bakarrik teknikari onak, tituluetako bakoitzaren egituraren hainbat lanbide kualifikazio eta oinarritzko prestakuntza osagarri sartu dira, enplegu aukera zabalagoak eta prestakuntza pertsonal sendoagoa lortzeko.

Nafarroako LHko tituluaren egituraren eta curriculumaren garapenaren egoera, ikasturtez ikasturte antolatua, ondokoa da:

Lanbide Heziketako tituluak, 2013ko abuztura bitartean onetsitakoak:

**2008. urtea** (5 titulu, 2 erdi mailakoak eta 3 goi mailakoak)

- 92/2008 FD. Sukaldaritza eta Gastronomiako teknikaria
- 94/2008 FD. Mekanizazioko teknikaria
- 93/2008 FD. Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria
- 95/2008 FD. Analisisien eta Kalitate Kontrolaren Laborategiko goi mailako teknikaria
- 118/2008 FD. Energia Eraginkortasuneko eta Eguzki Energia Termikoko goi mailako teknikaria

**2009. urtea** (8 titulu, 5 erdi mailakoak eta 3 goi mailakoak)

- 42/2009 FD. Karrozeriako teknikaria
- 43/2009 FD. Osasun Larrialdietako teknikaria
- 44/2009 FD. Instalazio Elektriko eta Automatikoetako teknikaria
- 45/2009 FD. Kimika Lantegiko teknikaria
- 46/2009 FD. Soldadura eta Galdaragintzako teknikaria
- 47/2009 FD. Metalezko Eraikuntzetako goi mailako teknikaria
- 48/2009 FD. Fabrikazio Mekanikoaren Arloko Produzioaren Programazioko goi mailako teknikaria
- 73/2009 FD. Automozioiko goi mailako teknikaria

**2010. urtea** (6 titulu, 4 erdi mailakoak eta 2 goi mailakoak)

- 48/2010 FD. Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria
- 49/2010 FD. Sistema Mikroinformatikoetako eta Sareetako teknikaria
- 50/2010 FD. Sareko Sistema Informatikoen Administrazioiko goi mailako teknikaria
- 51/2010 FD. Telekomunikazioetako Instalazioen teknikaria
- 52/2010 FD. Administrazio Kudeaketako teknikaria
- 58/2010 FD. Farmazia eta Parafarmaziako teknikaria

**2011. urtea** (14 titulu, 6 erdi mailakoak eta 8 goi mailakoak)

- 203/2011 FD. Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapeneko goi mailako teknikaria
- 204/2011 FD. Elikagaien Prestakuntzako teknikaria
- 205/2011 FD. Ibilgailu Automobilen Elektromekanikako teknikaria
- 206/2011 FD. Eraikuntza Proiektuetako goi mailako teknikaria
- 207/2011 FD. Web Aplikazioen Garapeneko goi mailako teknikaria
- 215/2011 FD. Lorezaintzako eta Lore-lanetako teknikaria
- 216/2011 FD. Nekazaritza Ekologikoko Ekoizpeneko teknikaria
- 217/2011 FD. Jatetxe Zerbitzuetako teknikaria
- 218/2011 FD. Elikagaien Kalitateko goi mailako teknikaria
- 219/2011 FD. Bero eta Fluido Instalazioetako goi mailako teknikaria
- 220/2011 FD. Sistema Elektroteknikoetako goi mailako teknikaria
- 224/2011 FD. Sukaldeko Zuzendaritzako goi mailako teknikaria
- 225/2011 FD. Energia Berriztagarrietako goi mailako teknikaria

226/2011 FD. Nekazaritza eta Abeltzaintzako Ekoizpeneko teknikaria

**2012. urtea** (12 titulu, 4 erdi mailakoak eta 8 goi mailakoak)

81/2012 FD. Bidaia Agentzietarako eta Ekitaldien Kudeaketarako goi mailako teknikaria

82/2012 FD. Mendekotasuna duten Pertsonentzako Arretarako teknikaria

83/2012 FD. Automatizazioko eta Robotika Industrialeko goi mailako teknikaria

84/2012 FD. Zurgintza eta Altzarigintzako teknikaria

85/2012 FD. Estetika Integraleko eta Ongizateko goi mailako teknikaria

86/2012 FD. Estetika eta Edergintzako teknikaria

87/2012 FD. Oihan eta Natur Ingurunearen Kudeaketako goi mailako teknikaria

88/2012 FD. Mantentze-lan Elektromekanikoko teknikaria

89/2012 FD. Mekatronika Industrialeko goi mailako teknikaria

90/2012 FD. Paisajismoko eta Landa Inguruneko goi mailako teknikaria

91/2012 FD. Hertz Protesietako goi mailako teknikaria

92/2012 FD. Telekomunikazio eta Informatika Sistemetako goi mailako teknikaria

**2013. urtea** (11 titulu, goi mailakoak)

Turismoko Ostatuen Kudeaketarako goi mailako teknikaria

Administrazioko eta Finantzetako goi mailako teknikaria

Gizarte, Kultur eta Turismo Jardueren Sustapeneko goi mailako teknikaria

Nazioarteko Merkataritzako goi mailako teknikaria

Diseinuko eta Altzari-hornikuntzako goi mailako teknikaria

Garraio eta Logistikako goi mailako teknikaria

Mantentze-lan Elektronikoko goi mailako teknikaria

Marketin eta Publizitateko goi mailako teknikaria

Jatetxeko Zerbitzuen Zuzendaritzako goi mailako teknikaria

Argazkigintzako Arte Plastikotako eta Diseinuko goi mailako teknikaria

Abeltzaintzako eta Ingurumen Osasunerako Asistentziako goi mailako teknikaria

Titulu horien guztien egitura eta curriculuma prestatzeko abiapuntu bezala hartu dira irakasle taldeek egindako proposamenak eta gure erkidegoko, Estatu mailako, eta Europa mailako ikerketa sektorial eguneratuak.

Aipatutako titulu guztiak ondoko arauen esparruaren barruan daude: Lanbide Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 5/2002 Lege Organikoa; Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoa; Estatu mailan hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako ikasketak antolatzen dituzten errege dekretuak eta titulu horietako bakoitza onesten duten errege dekretuak; eta 54/2008 Foru Dekretua, maiatzaren 26koa, Lanbide Heziketaren antolamendua eta garapena arautzen dituena Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sisteman.

Jarduera ildo berria da araubide bereziko kirol ikasketen garapena, ikasketa horien antolamendua ezartzen duen urriaren 24ko 1363/2007 Errege Dekretua aplikatuz. Ikasketa horiek abenduaren 28ko 248/2011 Foru Dekretuaren bidez arautzen dira Nafarroan.

2012. urtean, erdi mailako kirol ikasketen hasierako zikloko multzo komunaren formazioa diseinatu da eta kirol teknikari tituluaren amaierako zikloko multzo komuna garatzen ari dira. Jarduera ildo berri horri jarraituz, 2013. urtean Mendi Ertainetako Kirol-teknikari tituluaren curriculuma garatu da.

## 5. Berrikuntza teknologikoa Lanbide Heziketan

Azken urteotan, Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketaren Zerbitzuak berrikuntza teknologikoaren ildo estrategikoa hartu du eta berrikuntzarako sare baten bidez Lanbide Heziketako ikastetxe guztiak koordinatzen ditu. Horrela, azkar eta sistematikoki eguneratzen da teknologia sortu berrien eta berritzaileen sarrera Lanbide Heziketako ikastetxeetan. Horrek guztiak teknikari gaituak prestatzea du helburu, Nafarroako enpresen garapenean eta berrikuntzan parte hartu dezaten.

Bi ekintza nagusi eramaten dira aurrera:

A) Lanbide Heziketako ikastetxeen ekipamenduen gaineko ekintza:

- Nafarroarentzat estrategikoak diren teknologia sortu berriak sartzea Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetan.

- Ikastetxeak Lanbide Heziketako titulu berrien edukietara teknologikoki egokitzea.

- Segurtasun araudia betetzen ez duten ekipoak ordezkatzeko.

B) Berrikuntza proiektuen deialdiak, enpresen eta Lanbide Heziketako ikastetxeen arteko itun estrategikoaren ardatz izaki:

Ikasturte honetan "Sierra de Leyre" BHI eta "Ega" BHI Europa mailako "PIA2" berrikuntza proiektuan parte hartzen ari dira. Proiektu horren xedea da Lanbide Heziketan aplikatzeko proiektuen kudeaketan oinarrituriko ikaskuntzarako metodologia bat probatzea.

2013an Lanbide Heziketako berrikuntza eta ekintzailtza proiektuetarako deialdia onartu da, 100.000,00 euroko diru hornidurarekin, Europako Gizarte Funtsarekin kofinantzatuta, aurkeztutako proiektuen artean hautatutako bost (gehienez) garatzeko.

136. koadroa - Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetao ikasleak. 2012-2013 ikasturtea	
Ikastetxe integratuak	Ikasleak
"ETI" IIP. Tuteria	967
"Donapea" IIP. Iruña	805
"Virgen del Camino" IIP. Iruña	660
Lizarrako IIP	405
Tafallako IIP	409
"FP Sakana LH" IIP. Altsasu	114
"María Ana Sanz" Administrazioa, Merkataritza eta Informatikako II. Iruña	618
"Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa - NALETS" II. Iruña	606
Nekazaritza eta Basogintza II. Iruña	255
Energia Berriztagarrien Goi Mailako II. Imarkoain	134
"Hezitzaile Eskola" II. Iruña	463
"San Juan – Donibane" II. Iruña	243
"Politécnico Salesianos" II pribatua. Iruña	559
<b>Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetao ikasleak, osotara</b>	<b>6.238</b>

Iturria: Lanbide Heziketaren Zerbitzua. Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala

Hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako titulazioak / heziketa zikloak

137. koadroa - Eskaintako Lanbide Heziketako titulu eta ziklo kopurua, 2008-2009 ikasturtetik 2012-2013 ikasturtera						
Ikasturtea	Erdi maila (teknikaria)		Goi maila (goi mailako teknikaria)		Guztira	
	Desberdinak <sup>57</sup>	Ziklo kopurua <sup>58</sup>	Desberdinak	Ziklo kopurua	Desberdinak	Ziklo kopurua
2008-2009	31	77	46	80	77	157
2009-2010	32	78	46	86	78	164
2010-2011	34	87	48	92	82	179

<sup>57</sup> Lanbide Heziketako titulazio desberdinak.

<sup>58</sup> Nafarroako ikastetxeetan eskaintako ziklo kopurua (ziklo bera ikastetxe batean baino gehiagotan eta modalitate desberdinetan ikasten ahal da).

2011-2012	32	84	47	89	79	173
2012-2013	32	84	48	91	80	175

Iturria: Lanbide Heziketaren Zerbitzua. Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala

### **4.3.5. Hezkuntza erkidegoaren parte-hartzea**

#### **4.3.5.1. Nafarroako Eskola Kontseilua / Hezkuntzako Batzorde Nagusia**

Nafarroako Eskola Kontseilua, azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen bidez sortua, hezkuntza erkidegoaren parte-hartze organo gorena da Nafarroako unibertsitatez kanpoko ikasketen planifikatzeari dagokionez. Bertan, hezkuntzarekin zerikusia duten sektore nagusiak daude ordezkatuta.

Eskola Kontseiluaren eginkizunik garrantzitsuena da Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitatez kanpoko hezkuntza arautuko duten arauen egitasmoak aztertzea eta horien gainean eztabaidatzea, eta adostutako zuzenketak Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea. Gainera, hezkuntzaren alderdi adierazgarri buruzko ikerketak eta txostenak prestatzen ditu, eta Estatuko Eskola Kontseiluan parte hartzen du.

Eginkizunak:

- Hezkuntza Departamentuak igortzen dituen arauen egitasmoak aztertzea eta horiei buruz eztabaidatzea, irakaskuntzaren programazio orokorreko alderdi ezberdinen gainean legez ezinbestekoak diren irizpenak prestatzeko. Hauen inguruko egitasmoak dira:
- Hezkuntzarekin loturiko gaiei dagokienez, Nafarroako Gobernuak onetsi beharreko erregelamendu exekutibo orokorrenzako egitasmoak edo foru legeentzako aurreproiektuak.
- Planifikazio orokorrerako printzipioak, oinarriak eta irizpideak, ikastetxeen sorrera, aldaketa, kentzea eta lurralde banaketari dagokienez.
- Ikastetxeen eta ikastetxeetako langile eta ekipamenduen ezaugarri buruzko araudi orokorra.
- Ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatu itunduen eta diruz lagunduen finantzaketari buruzko irizpide orokorrak.
- Hizkuntza ereduen ezaugarri eta ezarpenari buruzko xedapen orokorrak.
- Bekei eta ikasketetarako laguntzei buruzko printzipio orokorrak.
- Eskolaz kanpoko jardueri eta zerbitzu osagarri buruzko araudi orokorra.
- Hezkuntza gaietan Estatuarekin edo beste autonomia erkidego batzuekin lankidetzak hitzarmenak edo akordioak egiteko egitasmoak.
- Hezkuntzaren kalitatea hobetzea edo desberdintasun sozial eta indibidualak konpentsatzea helburu duten xedapenak.
- Txostenak egitea Hezkuntza Departamentuak eskatutako gaien gainean.
- Bere ekimenez ikerketak eta proposamenak egitea, irakaskuntzaren programazio orokorrarekin lotutako bestelako gaiei buruz, eta goragokoei igortzea.
- Urtero hau bezalako txosten bat prestatzea Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren egoerari buruz.
- Urtero Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardueren memoria prestatzea.
- IDEA aldizkaria prestatzea eta kaleratzea.
- Eskola kontseiluen topaketen jardunaldiak antolatzea.
- Estatuko Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren eta erkidegoetako eskola kontseiluen parte-hartze batzordearen saioetan parte hartzea.

## 2012-2013 ikasturtean egindako jarduera garrantzitsuenak

Osoko bilkuraren saioak	7
Batzorde iraunkorraren saioak	6
Emandako irizpenak	19
Bere ekimenez egindako txostenak	Nafarroako Bigarren Hezkuntzako ikasleek ikasmila errepikatzearen gaineko ikerketa (egiten ari da):
Argitaratutako aldizkariak	39. zk.: Eskola arrakastarako faktoreak. 40. zk.: Eskola emaitzak eta hobekuntza planak.
Jardunaldiak	Nafarroako Eskola Kontseiluaren XIV. Jardunaldia: "Eskolak behar dituen irakasleak".
Nafarroako Eskola Kontseiluaren arratsaldeak. Hezkuntzari buruzko eztabaidak	- "Familien parte-hartzea hezkuntzan". - Hezkuntza ebaluazioak. Nafarroako hezkuntzaren kalitatea. - Arte ikasketak.
Parte-hartzea	Nafarroako Gazteriaren Plan Integrala.
Estatuko eta erkidegoetako eskola kontseiluen Parte-hartze Batzordea eta Estatu mailako topaketak	Parte-hartze Batzordeko eta Batzorde Delegatuko 12 bilera (egun bat baino gehiagokoak).
Autonomia erkidegoetako edo Estatu eskola kontseiluen ekitaldiak	5 ekitalditara joatea

**4.3.5.2. Ikastetxeko eskola kontseiluak****Eskola Kontseiluetarako hauteskundeak**

Azaroaren 2ko 215. NAO n ebazpen hauek argitaratu ziren:

- 656/2012 EBAZPENA, urriaren 19koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetako eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.
- 655/2012 EBAZPENA, urriaren 19koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Bigarren Hezkuntzako institutu etako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutu etako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.
- 654/2012 EBAZPENA, urriaren 19koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Arte Irakaskuntzen ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.
- 653/2012 EBAZPENA, urriaren 19koa, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialetako eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.

Ebazpen horien V.7 atalak zera dio: "Sektore batean aurkeztutako hautagai kopurua berritu beharreko ordezkarien kopuruarekin alderatuz gero berbera edo txikiagoa bada, Hauteskunde Batzordeak besterik gabe aldarrikatuko ditu aurkeztu diren hautagaiak".



138. koadroa - Eskola kontseiluatarako hauteskundeak ikastetxe publikoetan. 2012-2013 ikasturtea									
	Ikastetxe kopurua	Irakasleak		Gurasoak		Ikasleak		Administrazioko eta zerbitzuetako langileak (AZL)	
		Bozketak?		Bozketak?		Bozketak?		Bozketak?	
		Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez	Bai	Ez
Lehen Hezkuntza									
Eskola kontseilua 1. aldiz hautatu dute	1	1	0	1	0			1	0
Eskola kontseilua berritu dute	130 <sup>(1)</sup>	77	53 <sup>(2)</sup>	46	84 <sup>(3)</sup>			22	108 <sup>(4)</sup>
Sektoreak osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere	5	1	4	2	3			1	4
Bigarren Hezkuntza									
Eskola kontseilua berritu dute	21	7	14 <sup>(5)</sup>	8 <sup>(6)</sup>	13 <sup>(7)</sup>	10	11 <sup>(8)</sup>	2	19 <sup>(9)</sup>
Sektoreak osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere	4	1	3	0	4	1	3	1	3
Helduen Hezkuntza									
Eskola kontseilua berritu dute	1	0	1			1	0		
Sektoreak osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere	1	0	1			0	1	0	1
Arte eskolak									
Eskola kontseilua berritu dute	1	0	1	0	1	0	1	0	1
Kontserbatorioak									
Eskola kontseilua berritu dute	2	0	2	1	1	1	1	1	1
Hezkuntza Berezia									
Sektoreak	2	1	1	1	1	0	2	0	2

osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere									
--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

(1) 2012-2013 ikasturtean Haur eta Lehen Hezkuntzako 135 ikastetxek eskola kontseiluaren erdiren bat berritu behar zuten. Ikastetxe horietako 5ek ez dute aktarik bidali; beraz, azterketa gainerako 130 ikastetxeen gainean egin da.

(2) Ikastetxe horietakoren batean ez da bozketarik egin eskola kontseiluko parte den irakaslea zuzenean ikastetxeko zuzendaria delako. Gainerakoetan ez da bozketarik egin aurkeztutako hautagaien kopurua bete beharreko postu hutsen kopuru bera edo gutxiago delako.

(3) Ikastetxe horietakoren batean ez da bozketarik egin eskola kontseiluaren parte den gurasoa (aita edo ama) guraso elkarteak zuzenean izendatutakoa delako. Gainerakoetan ez da bozketarik egin aurkeztutako hautagaien kopurua bete beharreko postu hutsen kopuru bera edo gutxiago delako.

(4) AZLen sektorea ez da Lehen Hezkuntzako ikastetxe hauetan guztietan berritu behar, 2. erdia berritzea dagokien ikastetxeetan soilik berritu behar da.

(5) Ikastetxe horietakoren batean ez da bozketarik egin, kasu batzuetan, aurkeztutako hautagaien kopurua eta bete beharreko postu hutsena berberak direlako eta, beste batzuetan, aurkeztutako hautagaiak bete beharreko postu hutsak baino gutxiago direlako.

(6) Bozketak egin baziren ere, nabarmenezkoa da sektore honek ikastetxe guztietan duen parte-hartzearen ehunekoa oso baxua dela.

(7) Ikastetxe hauetatik batzuetan berberak izan dira aurkeztutako hautagaien kopurua eta bete beharreko postu hutsena; beste batzuetan hautagaiak gutxiago izan dira bete beharreko postu hutsak baino.

(8) Ikastetxe hauetakoren batean hautagaien kopurua eta bete beharreko postu hutsena berberak izan dira; batzuetan hautagaiak gutxiago izan dira eta beste batzuetan, berriz, ez da hautagaitzarik aurkeztu.

(9) Ikastetxeren batean aurkeztutako hautagaien kopurua eta bete beharreko postu hutsena berberak dira, beste batzuetan, aurkeztutako hautagaiak bete beharreko postu hutsak baino gutxiago dira eta ikastetxe batzuetan ez da hautagairik izan.

139. koadroa - Eskola kontseiluetarako hauteskundeak ikastetxe itunduetan. 2012-2013 ikasturtea									
		Irakasleak		Gurasoak		Ikasleak		Administrazioko eta zerbitzuetako langileak (AZL)	
		Bozketak		Bozketak		Bozketak		Bozketak	
		BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ	BAI	EZ
Eskola kontseilua berritu dute <sup>(1)</sup>	45 <sup>(2)</sup>	23	22	21	24	18	14	16	23
Sektoreak osatu dituzten ikastetxeak, berritu beharrik ez badute ere	1	0	1	0	1	0	1	0	0

(1) Ikastetxeetako bitan gainera hezkuntza-arreta osagarriko langileak sartu dira.

(2) 2012-2013 ikasturtean Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzako 52 ikastetxe itunduk eskola kontseiluaren erdiren bat berritu behar zuten. Ikastetxe horietako 7k ez dute aktarik bidali; beraz, azterketa gainerako 45 ikastetxeen gainean egin da.

Ondorioak:

Ikastetxeetako eskola kontseiluak bi urtean behin erdika berritzen dira. Ikasturte honetan, 2012-2013an, berritu den ikastetxe kopurua aski da baloraziorako lagin adierazgarritzat jotzeko.

Ikasturte honetatik lortutako datuetatik ondorio hauek atera ditzakegu:

Eskola kontseilua berritu behar duten ikastetxeen ehuneko esanguratsu batean ez da bozketarik egin aurkeztu diren hautagaitzen kopurua bete beharrekoena bezainbestekoa edo txikiagoa izan delako.

Bozketak egin diren tokietan, parte-hartzearen ehunekoa oso txikia da gurasoen sektorean. Interesgarria izanen litzateke parte-hartzea sustatzea eta gurasoei bozketak erraztea ikastetxeetako eskola kontseiluetan.

Eskola kontseilua berritzera beharturik ez badaude ere, ikastetxe batzuetan diote kontseiluaren osaera osoa mantendu nahi dutela eta, hartara, sektoreetako edozeinetan sortutako postu hutsak betetzeko prozedurari ekiten diote.

### **4.3.5.3. Parte-hartze sozialerako beste bide batzuk**

#### **- Gurasoen Mahaia**

Nafarroako Foru Komunitateko Ikasleen Gurasoen Mahaia Hezkuntzako kontseilariak maiatzaren 28an emandako 79/2008 Foru Aginduaren bidez sortu zen. Aurrerago, foru agindu hura otsailaren 4ko 14/2010 Foru Aginduaren bidez aldatu zen, ikasleen gurasoen elkarteak biltzen dituzten federazioen bitartez guraso elkartearen parte-hartzea hezkuntzaren esparruan indartzeko xedez.

Kide anitzeko organo bat da, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemari dagozkion gaien gainean informatzeaz, aztertzeaz, eztabaidatzeaz eta jarraipena egiteaz arduratzen dena. Hautazko izaera du, hots, ez du erabakiak hartzeko eginkizunik, eta bere ondorioak eta proposamenak ez dira lotesleak Hezkuntza Departamentuarentzat.

Ikasleen Gurasoen Mahaiaren helburua da Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza sisteman interes sozial berezikotzat harturiko gaietan ikasleen aita, ama edo legezko tutoreen elkartearen lankidetzaren eta parte-hartzearen, horiek parte diren federazioen bitartez.

Ondoko kideek osatzen dute:

- Hezkuntzako kontseilaria, mahaiburu.
- Hezkuntza Departamentuko zuzendari nagusiak; horietako bat, Hezkuntzako kontseilariak izendatua, buruorde ariko da mahaiburua eginkizunak betetz hura falta denean.
- Hezkuntza Departamentuaren bi ordezkari, Hezkuntzako kontseilariak izendatuak landu beharreko gaien arabera.
- Nafarroako Foru Komunitatean familia gehien bazkidegurik dituzten ikasleen gurasoen elkartearen federazioetako ordezkari bana, seira iritsi arte, betiere federazio horiek Hezkuntza Departamentuko Elkartearen eta Federazioen Zentsuan egon behar dutelarik.

2012-2013 ikasturteko bilerak eta landutako gaiak:

2012ko urriaren 24an

- Ikasturte hasierari buruzko argibideak
- LOMCEren aurreproiektuari buruzko argibideak

2013ko apirilaren 18an

- Programa eleanitzei buruzko argibideak
- LOMCE
- Bizikidetzaren batzordeak, eskola egun jarraitua.

#### **- Irakasle elkarteak eta sindikatuak**

- CCOO: Comisiones Obreras

- FETE- UGT: Unión General de Trabajadores
- ANPE: Asociación Nacional de Profesionales de la Enseñaza.
- CSI-CSIF: Confederación de Sindicatos Independientes y Sindical de Funcionarios.
- FSIE-SEPNA: Federación de Sindicatos Independientes de Enseñanza.
- STEE-EILAS: Euskal Herriko Irakaskuntzako Langileen Sindikatua
- AFAPNA: Nafarroako Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Elkarte
- LAB: Langile Abertzaleen Batzordea
- ELA / STV: Eusko Langileen Alkartasuna
- APS: Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Elkarte
- USO: Unión Sindical Obrera

## - Ikasleen gurasoen federazioak eta konfederazioak

2012-2013 ikasturteko jarduera nagusiak

140. koadroa - Nafarroako CONCAPAK egindako jarduera nagusiak. 2012-2013 ikasturtea	
Jardueraren izenburua	Hartzaileak
Berako Sagrado Corazón Ikastetxea "Pantailen erabilera eraginkorra: telebista, bideo-jokoak, Internet, mugikorra" Isabel Rincón	Familiak eta herritarrek, oro har
Ntra Sra del Huerto Ikastetxea "Neska-mutikoen azturak heztea" Sonia Rivas	
Ntra Sra del Huerto Ikastetxea "Aitona-amonak, biloben zaintzaile lanaldi osoan" Francisco Guillén	
Ntra Sra del Huerto Ikastetxea "Nola lagundu gure seme-alabei eskola jazarpenaren aurrean" Marcos García	
Ntra Sra del Huerto Ikastetxea "Elikadura osasungarria gure seme-alabentzat" Itziar Zazpe	
Ntra Sra del Huerto Ikastetxea "Pantailen erabilera eraginkorra: telebista, bideo-jokoak" Sonia Rivas	
Ntra Sra del Huerto Ikastetxea "Gurasoen rola, seme-alabek eskolan arrakasta izateko giltzarria" Fernando Carbajo	
Santísimo Sacramento Ikastetxea "Munduko biztanleriaren mitoak" Alban d'Entremont	
Santa Luisa Marillac Ikastetxea "Arrakastaz heztea: nola uztartu askatasuna eta autoritatea" Sonia Rivas	
Carmelitas Vedruna Ikastetxea. "Laneko eta familiako bitzta bateratzea, nahi eta ezin" Idoya Zorroza	
Maristas Ikastetxea "Pantailen erabilera eraginkorra: telebista, bideo-jokoak, Internet, mugikorra" Isabel Rincón	
Carmelitas Vedruna Ikastetxea. "Nola erabili telebista, bideo-jokoak eta Internet. Ona da nire seme edo alabak mugikorra erabiltzea?"	

María Rosario Sádaba	
Santísimo Sacramento Ikastetxea "Arrakastaz heztea: nola uztartu askatasuna eta autoritatea" Sonia Rivas	
Santa Luisa Marillac Ikastetxea "Nola saiatzen dira hedabideak gu menderatzen?" Alex Navas	
XI. Eskola-familia topaketak	
Interneten eta sare sozialen gaineko jardunaldiak (Europar foroa)	
Sare sozialen gaineko II. jardunaldia	
XXXI. Familiaren festa	
Iturria: CONCAPA-Nafarroa.	

<b>141. koadroa - HERRIKOAK egindako jarduera nagusiak. 2012-2013 ikasturtea</b>	
<b>Jardueraren izenburua</b>	<b>Hartzaileak</b>
1.- Batzarren funtzionamendua.	Guraso elkarteen eta familien prestakuntza
2.- Eskola kontseiluak.	
3.- Bizikidetzarako dekretua.	
4.- Eskolaldia.	
5.- Bullying-a, eskola jazarpena.	
6.- Oinarrizko gaitasunak.	
7.- Eskola arrakasta sustatzea.	
8.- Hezkuntza ziklo batetik hurrerengora igarotzea.	
9.- Erantzukizuna garatzea.	
10.- Zer egin dezakegu arreta arazoekin?	
11.- Anai-arreben arteko jeloskortasuna eta norgehiagoka.	
12.- Arautzea, sexualitatearen gainean hezteko.	
13.- Ikasketekiko motibazioa handitzea.	
14.- Autoestimua nola hobetu.	
15.- Erabakiak hartzen ikastea.	
16.- Sare sozialak gainbegiratzea eta kontrolatzea.	
17.- Haur Hezkuntzan hastea.	
18.- Nire semeak/alabak ez du jaten.	
19.- Haurren oldarkortasunari aurrea hartzea.	
20.- Nire semeak/alabak ez du kasurik egiten.	
21.- Sare sozialen gaineko ikastaroa.	
22.- Prentsa oharrak eta prentsaurrekoak.	Komunikabideak
23.- CEAPAREN jardueretan parte hartzea.	HERRIKOAKo zuzendaritzako kideak
24.- Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardueretan parte hartzea.	HERRIKOAKo zuzendaritzako 2 kide
25.- 0-3 urteko plataforma.	HERRIKOAKo zuzendaritzako kideak
26.- Gurasoen Mahaia.	HERRIKOAKo zuzendaritzako 2 kide
27.- Zuzendaritzaren bilerak.	HERRIKOAKo zuzendaritza batzordea
28.- HERRIKOAKo kideen batzarra.	Guraso elkarteak

29.- Liburuen batzordea, testuliburuaren doakotasuna.	HERRIKOAKo zuzendaritza batzordea
30.- Beken batzordea, hezkuntza administrazioarekin.	HERRIKOAKo zuzendaritza batzordea
31.- Hezkuntza itunen batzordea, hezkuntza administrazioarekin.	HERRIKOAKo zuzendaritza batzordea
32.- CAN Fundazioa, "Zeuk aukeratzen duzu: zeuk erabakitzen duzu" ekimena, 16999 zk.	Guraso elkarteak eta gizartea oro har
Zenbat ikastetxetara joan den: 78 Zenbat saio eman diren: 152 Emandako gaiak: 39 Prestakuntzan parte hartu dutenak, guztira: 2709 Prestakuntzako aurrez aurreko orduak: 228 Ikasleei Lehen eta Bigarren Hezkuntzaren gaineko prestakuntza eman zaie.	
CEAPAREN eskola bidaiariaren gaineko ikastaroa - Eskola kontseiluak, Aragoiko federazioa Hartutako prestakuntza - Nola motibatu - Ikasle helduei arreta ematea Adimen emozionala Federazioaren hitzaldia, "Gazteak eta herritartasuna" gaiaren gainean, Unesco katedraren eta NUPen udako ikastaroan	

Iturria: HERRIKOAK

<b>142. koadroa - SORTZENek egindako jarduera nagusiak, 2012-2013 ikasturtea</b>	
<b>Jardueraren izenburua</b>	<b>Hartzaileak</b>
<b>LOMCEren aldaketa nagusiak hezkuntza sisteman: informazio hitzaldiak hamabost ikastetxetan baino gehiagotan.</b>	<b>Gurasoak, irakasleak eta ikasleak.</b>
<b>Ez dut zigortu nahi. Hitzaldia.</b>	<b>Gurasoak eta irakasleak.</b>
<b>Ez zaitetz nahasi sarean: sare sozialak. Solasaldia.</b>	<b>Gurasoak.</b>
<b>Taldearen jazarpena eta presioa. Zer egin dezakegu? Solasaldia.</b>	<b>Gurasoak.</b>
<b>Gurasoen eta seme-alaben arteko harremana. Solasaldia.</b>	<b>Gurasoak.</b>
<b>Festa Villatuertan, D ereduaren herri guztietara zabaltzea eskatzeko.</b>	<b>Gizartea, oro har.</b>
<b>Festa Txantrean euskal herri-eskola berriaren alde, euskal curriculum ardatz modura hartuz.</b>	<b>Gizartea, oro har.</b>
<b>Aurrematrikulazioa D ereduan egiteko kanpaina</b>	<b>Gizartea, oro har.</b>
<b>Herri-eskolak mantentzearen eta berrirakitzaren aldeko kanpaina. Parlamentuak onarturiko dekalogoak aplikatu zedin eskatu zen.</b>	<b>Alderdi politikoak eta Nafarroako Gobernuak.</b>
<b>Kalitatezko irakaskuntza publikoaren aldeko mota orotako mobilizazioak, hartara, LOMCEren eta Nafarroako Gobernuak ezarritako murrizketen kontra.</b>	<b>Gizartea, oro har, alderdi politikoak eta Nafarroako Gobernuak.</b>
<b>Euskaraz Mintza programa, eskola ordutegian euskara aisialdian erabil dadin bultzatzeko, programa hori eman zen 19 ikastetxe publikoekin elkarlanean.</b>	<b>Lehen Hezkuntzako ikasleak.</b>
<b>Material pedagogikoa sortzea: Unitate didaktikoak Ipuinak Proiektuak</b>	<b>D ereduko ikastetxeak, ikasleak eta gurasoak</b>
<b>D ereduko guraso elkarten koordinazioa</b>	<b>D ereduko guraso elkarteak</b>
<b>Sakanako ikastetxeen arteko topaketa Arbizun.</b>	<b>Sakandarrak.</b>

Iturria: SORTZEN

143. koadroa - FAPACENAk egindako jarduera nagusiak, 2012-2013 ikasturtea	
Jardueraren izenburua	Hartzaileak
Ikastaroa: "Krisi garaietan zure ezkon-harremana hobetzeko gakoak"	Ikasleen gurasoei eta hezitzaileei zuzendua
Ikastaroa: "Krisi garaietan zure ezkon-harremana hobetzeko gakoak II"	
Hitzaldia: "Familian komunikatzeko hamar arauak"	Ikasleen gurasoei zuzendua
Familia orientazioko ikastaroa: "Lehen urratsak"	Haur Hezkuntzako 1. mailako ikasleen gurasoei zuzendua
Familia orientazioko ikastaroa: "Lehen elkarrizketak"	Haur Hezkuntzako 2.eko eta 3.eko ikasleen gurasoei zuzendua
Familia orientazioko ikastaroa: "Nola hezi gure seme-alabak afektibitatearen eta sexualitatearen esparruan?"	Lehen Hezkuntzako 4.eko ikasleen gurasoei zuzendua
Familia orientazioko ikastaroa: "Nerabezaroaurrea"	DBHko 1.eko ikasleen gurasoei zuzendua
Kultur irteera Zaragozara	Ikasleen gurasoei zuzendua
Ongintzako afarria eta zozketa Eguberritan	
Haur txokolatada	Haur Hezkuntzako ikasleen gurasoei zuzendua
Familien festa ikasturte bukaeran	Ikasleen gurasoei zuzendua

Iturria: FAPACENA

144. koadroa - FACCBRITISH-TIL-Ak egindako jarduera nagusiak, 2012-2013 ikasturtea	
Jardueraren izenburua	Hartzaileak
Halloween: marrazki lehiaketa, antzerkia ingelesez.	Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasle guztiak
Antzerkia ingelesez: Marco Polo	
Antzerkia ingelesez federazio barruko eskoletan: askotariko antzezlanak, hezkuntza zikloari egokituak.	

Iturria: FACCBRITISH-TIL-A

### Ikasleen gurasoen elkarreentzako eta federazioentzako diru-laguntzak.

145. koadroa - Ikasleen gurasoen elkarreentzako eta federazioentzako diru-laguntzak, 2009tik 2013ra						
Urtea	Guztira	Elkarreak				Federazioak
		Publikoak		Itunduak		
		Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa	
2009	244.500	169	140.607	45	47.393	56.500
2010	218.000	157	114.534	33	29.966	73.500
2011 <sup>59</sup>	0	179	0	31	0	0
2012	78.200	129	27.288	28	10.712	40.200

Iturria: Hezkuntza Antolamenduaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua

<sup>59</sup> Deialdia bertan behera utzi zen.

146. koadroa - Ikasleen gurasoen elkarteak, 2009tik 2013ra												
Federazioa	HERRIKOA			CONCAPA			SORTZEN			FACBRITHIS TIL-A		
	Elkart e kop.	Kideak, osotara	Esleitutak o zenbatek oa (eurotan)	Elkart e kop.	Kideak, osotara	Esleitutak o zenbatek oa (eurotan)	Elkart e kop.	Kideak, osotara	Esleitutak o zenbatek oa (eurotan)	Elkart e kop.	Kideak, osotara	Esleituta ko zenbatek oa (eurotan)
2009	148	29.000	27.735	43	20.500	15.690	37	7.120	8.896	7	1.444	4.177
2010	150	29.500	23.000	44	22.300	26.531,85	36	8.572	17.451,98	8	1.597	6.516,17
2011	152	32.000	0	44	23.400	0	39	8.278	0	8	1.600	0
2012	166	32.000	19.250	44	22.300	9,911	42	9.797	7.896	9	1.750	3.143

Iturria: Hezkuntza Antolamenduaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua

### 4.3.6. 0-3 urteko zikloa ezartzea

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan azpimarratzen da Haur Hezkuntza borondatezkoa dela eta hezkuntza-asmoa duen eta ez nahitaez eskola-asmoa duen bi ziklotan antolatutako etapa modura hartzen da.

Lege horrek, 15. artikuluan, administrazio publikoak premiatzen ditu poliki-poliki lehen zikloko ikaspostuen eskaintza handitzera, administrazioen artean koordinatzera, eta ezartzera zein baldintzatan egin daitezkeen hitzarmenak toki entitateekin, beste administrazioekin eta irabazi asmorik gabeko entitate pribatuekin. Halaber, hezkuntza administrazioek Haur Hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza edukiak zehaztu behar dituzte eta ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak arautu, irakasleko ikasle kopuruari, instalazioei eta ikaspostu kopuruari dagokienez.

Ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretuak egutegi bat zehazten du hezkuntza sistemaren antolamendu berria ezartzeko. Errege dekretuko 4. artikuluan esaten denari jarraituz, Haur Hezkuntzako lehen zikloa ezarri aurretik eta, betiere, 2007ko abenduaren 31 baino lehen, Haur Hezkuntzako lehen zikloa ematen duten zentroek bete beharreko baldintzak ezarri behar zituzten hezkuntza administrazioek.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitatean honako foru dekretua onetsi zen: 28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituen.

Nafarroako Gobernuak foru dekretu honen bidez lortu nahi du Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak kalitatezko hezkuntza guneak izatea, haurrei edo hiru urtetik beherakoei, familiekin batean, beren nortasuna eta gaitasunak garatzeko prozesu ezin hobea eskaintzeko, ongizate eta segurtasuneko esparru batean.

Horrekin batera, Nafarroako Gobernuaren nahia da ikastetxeak Foru Komunitateko aniztasun geografiko eta kulturalari egokitutako zerbitzua izatea, antolaketa malgua izanen duena, familiei erantzuteko gai izanen dena, familiako eta laneko eginbeharrak bateratzeko erraztasunak emanez.

Aipatutako foru dekretu horrek, hezkuntza edukiez gainera, ezartzen du zein izanen diren Haur Hezkuntzako zikloa emanen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak ikasle-irakasle ratioari, instalazioei eta ikaspostu kopuruari dagokienez. Gainera, haur eskola publikoak sortzeko prozedura ezartzen da, eta Haur Hezkuntzako ikastetxe pribatuak baimentzeko prozedura.

Era berean, hiru urteko trantsizio aldia ezartzen da, ikasketa hauek ezarri zirenetik hasita (2008-2009 ikasturtea) 3 urtetik beherako haurrak hartzen dituzten ikastetxeak, dekretuak indarra hartzen duenean, eskatutako betebeharrei egoki daitezten eta, udal titulartasuneko ikastetxeei dagokienez, ikastetxea sortzeko eskaera egin dezaten eta, ikastetxe pribatuei dagokienez, hura baimentzeko eska dezaten.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren eta martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuaren babesean onetsi zen 107/2010 Foru Agindua, ekainaren 29koa, Hezkuntzako kontseilariak emana. Foru agindu horren bidez udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa eta ekipamendua finantzatzeko asmoz, Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen artean lankidetzak hitzarmenak sinatzeko oinarriak ezarri ziren.



Oinarri horietan ezartzen dira modulu aplikagarriak eta Hezkuntza Departamentuak eta toki entitateek ikastetxeen finantzaketan nola hartzen duten parte.

Trantsizio epe hori iragana izanik ikastetxe askok sortzea edo baimentzea eskatu gabe, beharrezkoa zen kalitatea eta segurtasuna bateratuko zituen zerbitzuaren ohiko jarraipena bermatuko duen araudi berria.

Abuztuaren 7an indarra hartu zuen uztailaren 25eko 72/2012 Foru Dekretuak, hots, martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretua aldatzen duenak. Dekretu honek hiru urteko aldi iragankor bat ezartzen du martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuak indarra hartu baino lehenago Haur Hezkuntzako lehen zikloa ematen ari ziren eta ordura arte sortzerik edo baimena lortzerik izan ez zuten ikastetxe publikoek eta pribatuek sorrera edo baimena eskatzeko, izan ikastetxe publiko edo pribatu, eta martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretu horretan ezarritako beharkizun orokorretara egokitzeko; jardunean segi dezakete baldin eta uztailaren 25eko 72/2012 Foru Dekretu berriko lehen xedapen iragankorreko beharkizunak betetzen badituzte.

Haur Hezkuntzako lehen zikloa emateko eskaturiko titulazioei dagokienez, otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretuan ezarritakoa biltzen du eta unitate bakoitzeko ratioak hiru urteko epe baterako aldatzen ditu.

Gainera, foru dekretu berriak onartzen du badirela haurrei arreta emateko modu berriak eta diru-laguntzak emateko berariazko araubidea xedatzen du, sortu gabe egonik ere, proposamen pedagogikoari eta haurrei arreta zuzena ematen dieten profesionalen titulazioei dagokienez beharrezkoak diren beharkizunak betetzen dituzten udalen jabetzapeko ikastetxeetarako.

Aipatutako foru dekretu horrek indarra hartzearen ondorioz, eta postu publikoen eskaintzaren gehikuntza sustatzeko eta haien finantzaketa errazteko, Hezkuntzako kontseilariaren abuztuaren 27ko 79/2012 Foru Agindua onetsi zen. Foru agindu horren bidez ezarri ziren Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen artean lankidetzaz hitzarmenak izenpetzeko oinarriak, udal titulartasuneko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeen kudeaketa finantzatzeko asmoz.

Ekainaren 29ko 107/2010 Foru Agindua indarrak gabe uzten duen foru agindu horrek diru-laguntzen kudeaketa arintzeaz gainera, diru-laguntzetarako araubide desberdinak ezartzen ditu, bereizketa eginez sortutako ikastetxeen eta Hezkuntza Departamentutik diru-laguntzak jadanik jasotzen zituzten sortu gabeko ikastetxeen artean.

Azken horientzat, diru-laguntza deialdi bat argitaratu da. Honela, Hezkuntza Departamentuak udal titulartasuneko ikastetxeen finantzaketan laguntzen jarraitzen du, hala, ikastetxe horiek 0-3 urteko ikasleei arreta emateko kalitatezko zerbitzua eskaintzen jarraitu ahal dezaten.

### **4.3.7. Hizkuntzak ikastea**

#### **4.3.7.1. Atzerriko hizkuntzak**

#### **Hezkuntza Departamentuak sustatuko ikaskuntza programak atzerriko hizkuntzetan.**

Atzerriko hizkuntzetan ikasteko programa eleaniztunetan indarreko curriculumak bi hizkuntzatan edo gehiagotan koordinaturik ematen da. Programa horiek Haur Hezkuntzako bigarren zikloan hasten dira eta Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan ematen zaie jarraipena.

Horien artean daude Haur eta Lehen Hezkuntzako ingelesez ikasteko programak (IIP), HKKMren eta British Councilen arteko hitzarmenari atxikirik ikastetxeak barne, Bigarren Hezkuntzako ingeleseko eta frantseseko atal elebidunak eta, 2013-14 ikasturtetik aurrera, alemanez ikasteko programak (AIP) eta Batxilergoko titulazio bikoitzaerako Bachibac programa.

A ereduko ikasleek, gainera, euskara ikasten dute.

IIP programetan ingelesez gutxienez curriculumeko %35 ematen da (10 saio) A/G ereduan. D ereduan, berriz, %18 (5 saio) Haur Hezkuntzan eta %21 eta %28 artean Lehen Hezkuntzan.

Bigarren Hezkuntzan atzerriko hizkuntzan ikasteko programetan, MEC-BC-n eta ingeleseko eta frantseseko atal elebidunetan, hizkuntzakoak ez diren irakasgaiak ematen dira ingelesez edo frantsesez. Ikasleak ikasketa mota hauetan sar daitezke DBHko 1. mailan, behar den hizkuntzan duten jakite-maila zein den gutxi gorabehera neurtu ondoren.

147. koadroa - Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan programa eleaniztunak ematen dituzten ikastetxeak. 2012-2013 ikasturtea <sup>60</sup>				
Ikastetxea Lehen Hezkuntza	Programan ikasten duten ikasleak			Zein kurtsotara arte ematen den
	HH	LH	Guztira	
Elvira España IP (Tutera)	176	341	517	LH 6
Cardenal Ilundáin IP (Iruña)	222	494	716	LH 6
Azpilagaña IP (Iruña)	133	214	347	LH 6
Añorberko IP	19	33	52	LH 5
Lorenzo Goikoa IP (Atrrabria)	182	132	314	LH 3
José M. <sup>a</sup> de Huarte IP (Iruña)	72	82	154	LH 3
Catalina de Foix IP (Zizur Nagusia)	152	192	344	LH 3
Camino de Santiago IP (Zizur Nagusia)	156	131	287	LH 3
Doña Mayor de Navarra IP (Iruña)	216	185	401	LH 3
Hilarión Eslava IP (Burlata)	136	74	210	LH 2
Beriaingo IP	120	66	186	LH 2
San Miguel IP (Noain)	212	117	329	LH 2
Otero de Navascués IP (Cintruénigo)	281	204	485	LH 2
Remontival IP (Lizarra)	170	92	262	LH 2
Huertas Mayores IP (Tutera)	196	49	245	LH 1
Ermitagaña IP (Iruña)	137	45	182	LH 1
San Francisco Javier IP (Elizondo)	80	26	106	LH 1
Buztintxuri IP (Iruña)	255	64	319	LH 1
Sarrigurengo IP	363	75	438	LH 1
Rochapea IP (Iruña)	157	0	157	5 urte
Griseras IP (Tutera)	122	0	122	4 urte
Monte San Julián IP (Tutera)	110	0	110	4 urte
Mendillorri IP (Iruña)	84	0	84	4 urte
Iturrama IP (Iruña)	59	0	59	4 urte
Los Sauces-Sahats IP (Barañain)	80	0	80	4 urte
Luis Gil IP (Zangoza)	84	0	84	4 urte
San Juan IP (Irunberri)	20	8	28	LH 1
Mendialdea I IP (Berriozar)	126	0	126	4 urte
San Juan de la Cadena IP (Iruña)	30	0	30	3 urte
El Lago de Mendillorri IP (Iruña)	25	0	25	3 urte
Eulza IP (Barañain)	42	0	42	3 urte
Urraca Reina IP (Artaxoa)	23	0	23	3 urte
Félix Zapatero IP (Valtierra)	19	0	19	3 urte
Blanca de Navarra IP (Lerín)	14	0	14	3 urte
Virgen del Soto IP (Caparros)	30	0	30	3 urte
Alfonso X El Sabio IP (San Adrián)	63	0	63	3 urte
Santa Bárbara IP (Elo)	15	0	15	5 urte
Juan de Palafox IP (Fitero)	23	0	23	3 urte

<sup>60</sup> Eredu hau ezin da ikastetxe pribatu-itunduetan aplikatu.

Cerro de la Cruz IP (Cortes)	26	0	26	3 urte
Nuestra Señora del Rosario IP (Sartaguda)	11	0	11	3 urte
<b>Guztira</b>	<b>4.441</b>	<b>2.624</b>	<b>7.065</b>	
<b>Bigarren Hezkuntza, ingelesa</b>				
<b>Ikastetxea</b>	<b>Ikasleak</b>		<b>Ezarpn maila</b>	
Benjamín de Tudela BHI	231		DBH 4	
Valle del Ebro BHI (Tutera)	171		DBH 4	
Plaza de la Cruz BHI (Iruña)	154		DBH 4	
Toki Ona BHI (Bera)	136		DBH 4	
Ega BHI (San Adrián)	96		DBH 4	
Ibaialde BHI (Burlata)	63		DBH 4	
Eunate BHI (Iruña)	166		DBH 4	
Pablo Sarasate BHI (Lodosa)	59		DBH 4	
M. de Villena BHI (Martzilla)	94		DBH 4	
Basoko BHI (Iruña)	78		DBH 4	
Padre Moret-Irubide BHI (Iruña)	127		DBH 4	
Zizurko BHI	359		DBH 4	
Navarro-Villoslada BHI (Iruña)	192		DBH 4	
Ribera del Arga BHI (Azkoien)	87		DBH 4	
Alhama BHI (Corella)	77		DBH 4	
Reyno de Navarra DBHI (Azagra)	31		DBH 2	
Julio Caro Baroja BHI (Iruña)	32		DBH 2	
Bardenas Reales DBHI (Cortes)	14		DBH 2	
Barañaingo BHI	40		DBH 1	
<b>Guztira</b>	<b>2.207</b>			
<b>Bigarren Hezkuntza, frantsesa</b>				
Toki Ona BHI (Bera)	9		DBH 4	
Mendaur DBHI (Doneztebe)	56		DBH 4	
Eunate BHI (Iruña)	69		DBH 4	
Benjamín de Tudela BHI	190		DBH 4	
Valle del Ebro BHI (Tutera)	98		DBH 4	
Zizurko BHI	136		DBH 4	
<b>Guztira</b>	<b>558</b>			

Iturria: Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzua

lazko ikasturtearen aldean, ikasleak gehitu egin dira. Honela: Lehen Hezkuntzako ingelesean 1.764 gehiago, Bigarren Hezkuntzako ingelesean 255 eta Bigarren Hezkuntzako frantsesean 130 gehiago.

## Ikasturtearen barruan ingelesean murgiltzeko English Week programa Lehen Hezkuntzako 4.eko eta 5.eko ikasle taldeendako.

148. koadroa - Hizkuntzan murgiltzeko English Week programako ikasle parte-hartzaileen kopuruaren eta aurrekontu orokorraren bilakaera, 2008-2009 ikasturtetik 2012-2013 ikasturtera					
	2008-2009 (Lehen Hezkuntzako 5.a eta 6.a)	2009-2010 (Lehen Hezkuntzako 4.a eta 5.a)	2010-2011	2011-2012	2012-2013
<b>Ikasle parte-hartzaileak</b>	1.300	1.450	2.175	1.950	2.025
<b>Eskabideak, guztira</b>	2.100	2.300	2.697	2.425	2.772
<b>Esleitutako gastua</b>	217.500	216.000	337.125	272.991	272.991

Iturria: Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzua

## Mintzapraktikako laguntzaileak ikastetxe publikoetarako

149. koadroa - Mintzapraktikako laguntzaileen kopuruaren bilakaera, 2008-2009 ikasturtetik 2012-2013 ikasturtera					
<b>Izangaiak</b>					
Hizkuntza	2008-2009	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2012-2013
Ingelesa	40	37	42	38	30
Frantsesa	3	3	7	2	0
<b>Guztira</b>	<b>43</b>	<b>40</b>	<b>49</b>	<b>40</b>	<b>30</b>
<b>Ikastetxeak</b>					
HLHIPak	36	39	41	68	48
DBHlak eta BHLak	17	39	31	20	13
<b>Guztira</b>	<b>53</b>	<b>78</b>	<b>72</b>	<b>88</b>	<b>61</b>

Iturria: Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzua

### 4.3.7.2. Euskara

#### Eskolatzeko hizkuntza ereduak:

Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan euskararen sartzea eta erabiltzea arautzen duen maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuak, Euskarari buruzko Foru Legea garatuz, A, B eta D hizkuntza ereduak definitzen ditu.

A hizkuntza ereduan gaztelaniaz ematen da irakaskuntza eta euskara irakasgai bezala izaten da, maila, etapa eta modalitate guztietan.

B hizkuntza ereduan zati batean euskaraz ematen da irakaskuntza, gaztelania irakasgai bezala izaten da eta irakasgai batean edo gehiagotan ere irakas-hizkuntza gaztelania da, ikasketen, zikloaren edo etaparen arabera.

D hizkuntza ereduan irakaskuntza osorik euskaraz ematen da, gaztelaniako irakasgaia izan ezik.

Aurrekoek gain, hizkuntza eremuaren arabera, bada G izeneko beste eredu bat, non ez dagoen ez euskarazko ez euskararen irakaskuntzarik.

Aipatutako foru dekretuan eremu euskaldunerako A, B eta D ereduak baimentzen dira eta, beraz, nahitaezkoa da euskararen irakaskuntza; eremu mistorako A, B, D eta G ereduak baimentzen dira eta eremu ez-euskaldunerako A eta G ereduak.

Edonola ere, hezkuntza sisteman sartzean hizkuntza eredu jakin bat aukeratzaren dute ikasleek, eredu horretan berean jarraitu beharko dute eskolatze garai osoan. Aldaketarik egin nahi bada behar den ikastetxearen baimena behar da, Departamentuaren aurrean gora jotzeko errekurtsioa sartzeko aukera galarazi gabe. Egoera ez da bera etaparen bukaeran edo etaparen barnean egin nahi bada.

## Hizkuntzaren errefortzurako programak eta jarduera osagarriak eta eskolaz kanpokoak euskaraz

Irakaskuntza euskaraz ematen duten D eta B ereduak edo euskara irakasgai modura ematen duten A ereduak ikastetxeei zuzenduak.

### - Bertsolaritza irakaskuntzan

Zuzeneko 30 eskola orduko programa, Lehen Hezkuntzako azken zikloko ikasleendako. Helburua ahoz komunikatzeko gaitasuna hobetzea da.

- Ikastaldeak, guztira: 72.
- Parte-hartzaileen kopurua: 1.368.
- Kostu ekonomikoa: 32.800 euro.

### 4.3.8. Europar Batasuneko hezkuntza programak

Europar Batasuneko hezkuntza programa batzuk zentralizatuak dira eta beste batzuk deszentralizatuak. Zentralizatuak zuzenean Europako Hezkuntza Programen Erakunde Autonomotik (EHPEA) kudeatzen dira eta besteak, deszentralizatuak alegia, Europako Hezkuntza Programen Erakunde Autonomoaren (EHPEA) bidez kudeatzen dira autonomia erkidegoekin lankidetzan. Azken horien artean dago EIP (Etengabeko Ikaskuntzarako Programa).

EIPren helburua da programan parte hartzen duten Europako herrialdeen artean trukea, lankidetzeta eta mugikortasuna erraztea, mundu mailan kalitatearen erreferentzia bihurtu daitezen.

EIP zehazki azpiprograma hauen bidez garatzen da:

- Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzuak kudeatuak:
- COMENIUS (Eskolako hezkuntza, Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara)
- GRUNDTVIG (Helduen Hezkuntza)
- IKASKETA XEDE DUTEN EGONALDIK (Hezkuntzako kudeatzaileak).
- Online senidetzeen eTwinning programa Europako ikastetxeen artean, Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara.
- Hezkuntza Departamentuko beste zerbitzu batzuek kudeatuak:
- ERASMUS (Unibertsitatea eta Lanbide Heziketa)
- LEONARDO DA VINCI (Lanbide Heziketa)

150. koadroa - Comenius eta Grundtvig Europako hezkuntza proiektuak. 2012-2013 ikasturtea		
	EHPEAk onartutako eskaerak	EHPEAk eslehitutako zenbatekoa
<b>COMENIUS</b>		
Irakasleen etengabeko prestakuntzarako mugikortasunerako laguntzak	46	69.000
Pestalozzi lantegiak	2	3.000
Prestatzeko bisitaldiak	1	1.500
Comenius eskola arteko elkarteak	4	74.000
Comenius Regio elkarteak	1	32.475
Hizkuntza-laguntzaileak, Comenius	4	18.400
Hizkuntza-laguntzaileak ikastetxeetan hartzea, Comenius	3	17.700

Ikasleen mugikortasuna, Comenius (IMC)	2 ikastetxe (6 ikasle osotara)	24.000
<b>GRUNDTVIG</b>		
Etengabeko prestakuntzarako mugikortasunerako laguntzak	7	10.712
Ikaskuntza elkarteak	2	34.000
Laguntzaileak, Grundtvig	0	0
Prestatzeko bisitaldiak	2	3.000
Bisitaldiak eta trukeak	0	0
Ikasketa xede duten bisitaldiak	10	15.000
<b>eTWINNING</b>		
eTwinning senidetzeak	23 proiektu onartuak	Programa honek ez du inolako gasturik eragiten

Iturria: Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzua

Europako Parlamentuko eta Kontseiluko Erabakia, 2006ko azaroaren 15koa (1720/2006/CE Erabakia), Europako Batzordeak 2009ko urriaren 15ean Aldizkari Ofizialean argitaratua.

#### Beste ekimen batzuk

- Atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan eta ikaskuntzan berritzaileak diren esperientziei Europako Zigilua sariak.
- Hizkuntzen Europar Portfolioa.
- Komunikazio gaitasuna hobetzeko proiektu pilotua.
- Europass
- European Shared Treasure (EST): Europako datu-basea, helburu duena Comenius, Leonardo eta Grundtvig elkarten artean egindako jardunbide egokiak eta esperientziak biltzea.
- Europako Kontseiluak hezkuntzako profesionalen artean etengabeko prestakuntzarako emandako beka programa.
- Irakasleen prestakuntzarako Europako Kontseiluaren Pestalozzi lantegiak.
- Egonaldi profesionalak.
- Prestakuntzako nazioarteko ikastaroak.

151. koadroa - Europako programak Lanbide Heziketan: "Leonardo Da Vinci" eta "Erasmus"					
Ikasturteak	2008-2009	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2012-2013
<b>Leonardo da Vinci programa</b>					
Ikasleak	117	98	149	120	90
Irakasleak	5	6	6	6	6
Bestelako proiektuak (kop.)	2	2	3	5	5
<b>Erasmus programa</b>					
Ikasleak	46	56	70	70	32

Iturria: Lanbide Heziketaren Zerbitzua. Berrikuntzaren, Enpresaren eta Lanbide Heziketa Nazioartekotzearen Atala

### **4.3.9. Ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzea**

#### 4.3.9.1. Ikasleen oinarrizko gaitasunen hobekuntza planaren diseinua.

Ikastetxeek ikasleen oinarrizko gaitasunen eta errendimenduaren hobekuntza planak diseinatzen jarraitu zuten, egindako ebaluazioen emaitzetatik abiatuta. Ikastetxeek beren hobekuntza planetan neurriak sartzeko autonomia izan zuten. Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak planak gainbegiratu ditu eta hainbat bisitaldi egin ditu haien jarraipena egiteko. Ikastetxe bakoitzak bere hobekuntza plana prestatu du bere beharrei eta kanpoko zein barneko ebaluazioetan lortutako emaitzei egokitu.

2012-2013 ikasturtean zehar

#### **Lehen Hezkuntzako hobekuntza planak ezartzearen emaitzak.**

Lehen Hezkuntzako ikastetxeak

Ikastetxeek ebaluazio diagnostikoen eta emaitza akademikoen informazioa erabiltzen dute hobekuntza planak prestatzen segitzeko. Esan daiteke, oro har, ikastetxeak oso inplikaturik daudela hobekuntza planak prestatzeko eta praktikara eramateko lanean.

Aurrekoen jarraipena diren hobekuntza planak prestatu dituzte, eta autonomiaz baliatu dira plan horietan sartzen diren alderdi kopurua eta gaitasunak aukeratzeko. Antza denez, ikastetxeetan ohiko gauza bihurtu da urtero hobekuntza planak prestatzea.

Esan daiteke ikastetxeek dagoeneko gaintu dutela lehenengo fasea, alegia, zehaztapenik egin gabe printzipio orokorrak zerrendatzean zetzana. Oso ikastetxe gutxi daude oraindik maila horretan. Oro har, ikastetxeek ekintzen zehaztapenak eta xehetasunak ematen dituzte hobekuntza planetan, baina askok oraindik ez dituzte adierazleak sartzen: helburuak betetzen diren eta aurreikusitako ekintzak garatu diren ikusteko balio dute adierazle horiek. Kasu askotan, planak gehiago bideraturik daude prozesuetara eta ez horrenbeste emaitzetara. Hezkuntzako Ikuskapenak burututako gainbegiraketan bereziki gogorarazi da planen eragina baloratu ahal izateko adierazle zehatz eta argiak sartu beharra dagoela.

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak

Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak gero eta gehiago ari dira inplikatzen ebaluazio diagnostikoaren analisisan, hobekuntza plana ezartzeko. Hori hala izanik ere, inplikazioa zentratuago dago zuzendaritzan eta ez horrenbeste departamentu didaktikoetan eta irakasleengan. Alderdi honek datozen ikasturteetarako helburuetako bat izan beharko luke.

Oro har, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek aurrekoen jarraipena diren hobekuntza planak prestatu dituzte, eta autonomiaz baliatu dira plan horietan sartzen diren alderdi kopurua eta gaitasunak aukeratzeko. Antza denez, ikastetxeetan ohiko gauza bihurtu da urtero hobekuntza planak prestatzea. Halaber, esan daiteke ikastetxeek dagoeneko gaintu dutela lehenengo fasea, alegia, zehaztapenik egin gabe printzipio orokorrak zerrendatzean zetzana. Oso ikastetxe gutxi daude oraindik maila horretan. Oro har, ikastetxeek ekintzen zehaztapenak eta xehetasunak ematen dituzte hobekuntza planetan, baina ez da orokortu adierazleak sartzeko ohitura: helburuak betetzen diren eta aurreikusitako ekintzak garatu diren ikusteko balio dute adierazle horiek. Planak gehiago bideraturik daude prozesuetara eta ez horrenbeste emaitzetara. Oraindik plan gutxi daude bideraturik emaitza akademikoak hobetzera.

#### **4.3.9.2. Bigarren Hezkuntzako ikasleendako hobekuntza plana. Irakurketa plana**

2012-2013 ikasturtean "Irakurketa eta idazketa hobetzeko planaren" jarduerak Lehen Hezkuntza osoan hedatu dira eta irakasleentzako banakako prestakuntzaren ereduak zabaldu egin da zuzendaritza taldeentzako aholkularitzako eta klustroen prestakuntzarako proposamen batekin. Honela, lehen

“Bigarren Hezkuntzako ikasleen hobekuntza plana” zena taxutu da Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeei irakurketa eta idazketa beren hobekuntza planeko ardatzetako bat bihurtzen laguntzeko baliabide modura.

“Irakurketako tutore taldea” osatu da, lanaldi erdiko liberazioa zuten Bigarren Hezkuntzako lau irakaslerekin. Talde horrek aholkua eta prestakuntza eman die Lehen Hezkuntzako 11 ikastetxetako eta Bigarren Hezkuntzako 7 ikastetxetako zuzendaritza taldeei eta klustroei. Irakurketa eta idazketa hobetzeko mintegi honetan 348 irakasle aritu dira, beren ikastetxearen egoera aztertu dute irakurketari eta idazketari dagokienez eta berariazko prestakuntza jaso dute beren ikasleen irakurmena eta idazmena arlo guztietako ikasgelako jarduera arrunten bidez nola hobetu jakiteko.

Parte hartu duten irakasleek balorazio hau eman dute, batez beste:

Gogobetetasun orokorra	7,91
Mintegiaren helburuak eta edukiak	7,97
Hizlaria	8,54
Erabilgarritasun praktikoa	8,19
Emandako materialak	8,11
Jardueraren antolakuntza	7,75

Gainera, irakurketako tutore talde berak prestakuntza ikastaro hauek eman ditu, interesa zuten irakasleen banakako parte-hartzeari zabalik:

- Irakurtzea, ikasteko: 21 orduko ikastaroa, 26 irakasleek parte hartu dute.
- Idaztea, komunikatzeko: 21 orduko ikastaroa, 15 irakasleek parte hartu dute.
- Irakurketa eta idazketa proiektuen diseinua eta garapena: 21 orduko ikastaroa. 22 irakasleek parte hartu dute.

2012-2013 ikasturtean berritasun bat izan da Irakurketa eta idazketa hobetzeko planean: Irakurmena, idazmena eta ahozko adierazpena lantzeko jardunbide egokien sarien I. deialdia. Deialdi honen bidez, Hezkuntza Departamentuak jendaurrean aitortzen du eta Nafarroako hezkuntza erkidego osoaren aurrean balioesten irakasle askok beren ikasleen irakurmena, idazmena eta ahozko adierazpena hobetzeko egindako lana, eta Haur eta Lehen Hezkuntzako edo Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek bultzatu eta garaturiko proiektu didaktiko gailenak saritu ditu. Sarien lehenengo aldi honetan 14 lan aurkeztu dira osotara, eta horietan 80 irakasleek parte hartu dute.

Deialdiaren oinarrietan aurreikusitako hiru sariak, irakasleentzako diplomak, ikastetxeak lana ezagutarazteko libreki erabil dezakeen “jardunbide egokien etiketa edo zigilua” eta “Blitz-Liburutegiko saga” bildumaren sorta osoa, ikastetxe hauei egokitu zitzaizkien:

- Santakarako “Nuestra Sr<sup>a</sup> de la Asunción” Haur eta Lehenengo Hezkuntzako Ikastetxe Publikoari, “50 años educando” lanagatik.
- Caparrosoko “Virgen del Soto” Ikastetxe Publikoari, “200 años de cuentos. Los hermanos Grimm” lanagatik.
- Tuterako “Valle del Ebro” BHLri, “Para gustArte: Bestiario” lanagatik.

#### **4.3.10. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak zabaltzea.**

##### **4.3.10.1. Teknologia Berriak eta Hezkuntza Programa (PNTE)**

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalaren ardurapean dago, duela hamar urte baino gehiagotik, PNTE bezala ezagutzen den Teknologia Berriak eta Hezkuntza Programaren kudeaketa. Bertan biltzen dira Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) esparruan garatzen dituen hainbat helburu, jarduera, baliabide eta zerbitzu.



PNTE Nafarroako Gobernuaren ekimen berezia da, izan ere, Nafarroako Gobernuaren sare, ekipamendu eta baliabide informatikoen kudeaketa korporatiboan integraturik ez dauden hainbat baliabide sartzen dira PNTEren jarduera esparruaren barruan. PNTEren ezaugarri bereizgarriak hauek dira:

- Berariazko prestakuntza duten langileak (irakasleak eta irakasle ez direnak) ari dira atalaren ardurapeko esparruetan: zerbitzarien administrazioa eta kudeaketa, sareen kudeaketa, aplikazioen garapena, hezkuntza zerbitzuak instalatzea eta kudeatzea, ikastetxe eta irakasleendako laguntza, sareen eta ekipamendu informatikoen mantentze-lanak, eta abar.
- Ikastetxeetako komunikazio sarearen planifikazioa, kudeaketa eta mantentze-lanak, Nafarroako Gobernuko sare korporatibotik kanpo, eta baita hainbat zerbitzurenak ere: DNS, posta elektronikoaren zerbitzaria, web zerbitzariak, aplikazioen eta datu-baseen zerbitzariak eta abar.
- Datu lanketarako bi zentro berezitu administratzea:

EDUCA, Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboarekin partekatua.

PNTE, soilik Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Ataleko langileek kudeatua.

- Irakaskuntzan IKTak curriculumean txertatzeko berariazko ildoen eta programen diseinua eta garapena: IKTen gainerako eta bidezko urrutiko prestakuntza programa, Prestakuntzaren koordinazioa eta plangintza IKT aholkularien bidez, Teknologia berrien proiektuak, Integra IKT-Eskola 2.0, PNTE Apps, web tresnen, esperientzien eta berrien hedapena, etab.
- Hezkuntza Departamentuaren ordezkariak IKTen eta Hezkuntzaren inguruko alderdien gainean eta abarretan hezkuntza administrazio publiko eta pribatuaren artean antolatzen diren proiektuetan, batzordeetan eta foroetan.
- Software librearen eta teknologia irekien lehentasunezko erabilera bere ardurapeko esparru guztietan. Horrekin kostuak asko aurrezten dira eta gure interesen eta beharren arabera hornitzaileak aukeratzeko askatasun teknologikoa dago.

Jarraian Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalaren jarduerako lan ildo edo esparru nagusiak aipatzen dira. Haietako bakoitza labur azaldu edo definitzen da eta kasu bakoitzean datu eta zifrarik adierazgarrienak emanen dira.

#### 4.3.10.2. Konektagarritasuna

Konektagarritasuna funtsezko garrantzia duen faktorea da ikastetxeak, irakasleak, ikasleak eta hezkuntza erkidegoko gainerako kideak Informazioaren Gizartean sartzeko eta eskaintzen dituen produktu eta zerbitzuak eskura izan ditzaten. Konektagarritasun egokirako ezinbestekoa da behar bezala diseinatzea sareen azpiegitura eta topologia, banda zabalera ongi kalkulatzeko, konexio lineen mantentze eraginkorra, eta esparru honetan gertatu daitezkeen arazoaren gainean azkar eta eraginkortasunez esku hartzeko aukera ematen duen sistema. Horregatik ematen dio hain garrantzi handia PNTEk lan ildo horri, jarraian azalduko diren ekimenen eta jardueren bitartez.

#### Ikastetxeen egoera konektagarritasunari dagokionez

la ikastetxe publiko guztiek dute Interneteko banda zabala, teknologia desberdinetako konexio berezietekin:

239 konexio ADSL, FrameRelay edo irrati (WiMax) bidez.

35 konexio zuntz optiko bidez.

Halaber, instalazio hori teknikoki bideragarria den egoitzetan zuntz optiko bidezko konexioak zabaltzen joan dira 2008. urtetik aurrera. 2013ko irailaren 1ean, zuntz bidezko konexioa izanzen duten ikastetxeak 40 izanen dira, denak Iruñerrian eta inguruko herrietan.

#### Trenza proiektua

PNTEk epe luzerako hartu duen helburua ikastetxeen konektagarritasun unibertsala da, hau da, irakaskuntzarako edo kudeaketarako edozein espaziorik izan dezala sareko eta Interneteko konexioa. Helburu hori lortzeko tresna nagusia kableatu egituratuko Trenza proiektua izeneko da. Proiektu horren bidez ikastetxeei sare kableatuaren azpiegitura zentralizatua ematen zaie: komunikazio armairua, urrunetik kudeatu daitezkeen elektronika, segmentazioa azpisareetan, proxy-suebaki zerbitzaria eta, zenbait kasutan, zerbitzari bereziak (aplikazioetarako, fitxategietarako, segurtasun kopietarako, etab.).

Kableatu egituratuko Trenza proiektua zabaltzearen ondorioz, 2013ko irailaren 1erako ia guztiz osaturik gelditu da instalazio mota hori gomendagarria den ikastetxeen katalogoa (100 ikasleak gorako ikastetxeak). Salbuespenak oso gutxi dira eta horretarako arrazoiak ere bereziak, esate baterako, eraikuntzan zaharberritzeko lanak egin behar dituzten ikastetxeak edo beste egoitza berri batzuek ordezkaturiko dituzten ikastetxeak izateagatik. Horren ondorioz, Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko 242 ikastetxe publikoetako datu sareen profila ondoko taulan zehazten dena da:

Instalazio mota	Instalazio kopurua
Kableatu egituratuko Trenza proiektua komunikazio armairuarekin, elektronika kudeagarriarekin, sare segmentazioarekin eta suebakiarekin	190(*)
Trenza proiektuaren estandarrekin bat ez datozen sare kableatuak	53 (*)

(\*) Kontuan izan bedi ez dutela zehatz-mehatz bat egiten instalazio kopuruak eta ikastetxeenak, nortasun hori ezartzerik uzten ez duten zenbait egoera daudelako: egoitza berean batera daudenean ikastetxe publiko bat eta DBHI bat, biak ala biak, kableatu egituratu komunarekin; elkarren artean konektatu gabeko bi egoitza dituzten ikastetxeak, bi instalazio desberdinu dituztenak, etab.

Gainera, gero eta handiagoa da konektagarritasunaren eskaria, bai ikastetxeen bai irakasleen aldetik, eta horrek bultzatuta WiFi konexioa instalatu da ikastetxeetako kableatu egituratuko proiektuetan integraturik, base kontrolatzaileen bidez kudeatzen diren haririk gabeko sarbide puntu-multzoen bitartez. Azken urteotan instalazioak egiteaz gainera jadanik daudenak handitu eta hobetu egin dira; ia ehun ikastetxetan Wifi konexioa dute irakasleek eta ikasleek.

### Sarearen gaineko jarduerak

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalaren lanik handienetako bat ikastetxeek egindako eskaerei erantzutea da, ikastetxeen konektagarritasuna hobetzearekin eta sareak handitzearekin eta modernizatzearekin loturik. 2012-2013 ikasturtean zehar, Atalak esparru honetan 150 jarduera baino gehiago egin ditu, honela banaturik:

Jarduera mota	Jarduera kopurua
Ikastetxe sortu berrietan edo jadanik existitzen diren ikastetxeen egoitza berrietan kableatu egituratu integrala zerbitzuan jartzea (Trenza proiektua)	4
Sare handitzeak, WIFI instalazioen handitzeak edo hobekuntzak barne.	30
Konektagarritasuna handitzea ikastetxeetan	8
Bestelako jarduerak: sareko harguneak aktibatzea, sareko harguneen atxikipena aldatzea, sareko elektronika konpontzea edo aldatzea, proxy-suebakia instalatzea edo aldatzea, askotariko konponketak, etab.	Gainerako jarduerak

### PNTE sarean egindako hobekuntzak eta zerbitzu berriak

Azken bi urteetan oso aldaketa garrantzitsuak egin dira PNTE sarearen egitura eta topologian. Sare horren barruan daude Hezkuntza Departamentuaren mende dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoak. Egindako aldaketa nagusiak hauek izan dira:

- PNTEren sare osoko segurtasuna sendotu da. Horretarako, haren arkitektura aldatu da eta zona desberdinak, suebaki berriak eta aktibo/pasibo zerbitzuarekin hornitutako sistema ezarri da.
- Alderantzizko proxy bat instalatu da eta horrekin ikastetxeen arlo lokalean instalaturiko zerbitzariak ikusgarri geratuko dira Interneten eta hezkuntza erkidegoek sartzeko izanen dute instalaturiko zerbitzuetan eta haiendako garatuko diren edukietan.
- Ikastetxeek Internetera ateratzeko duten banda zabalera handitu da RedIris konexioarekin.

Aurreko jardueretan oinarrituriko hainbat proiektu garapen prozesuan daude, ikastetxe publikoen eskura dauden zerbitzuak hobetzeko:

#### 4.3.10.3. Ekipamendu informatikoa

Ikastetxeen ekipamendu informatikoari buruzko eskumena Hezkuntza Azpiegituren Zerbitzuaren mendeko Erosketa Bulegoarena da. Informazio garrantzitsuena txosten honetako 51. eta 53. koadroetan dago.

#### 4.3.10.4. IKTak curriculumean txertatzea

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien eta Proiektuen Ataleko lan ildo nagusietako batek hezkuntzako prozesuetan eta ikasgeletako egunerokotasunean IKTak erabiltzearekin du zerikusia; atalak jarraian deskribatzen diren ekimenak eta jarduerak bultzatzen ditu.

##### Teknologia berrien proiektuak

Ikastetxe publikoetara bideraturiko proiektuak bultzatzen ditu eta haien xede nagusia da IKTen erabileran hezkuntza ikerketa egitea eta IKT baliabideak berekin dituzten hezkuntza materialak sortzea. Proiektu hauen garapenean oso garrantzitsua da ILZetako teknologia berrietako aholkulariek egindako ikuskapena eta, hala behar denean, emandako laguntza eta prestakuntza; aholkulari horiek aipatutako ataleko irizpideekin elkarlan estuan aritzen dira.

152. koadroa - Teknologia berrien proiektuak									
2009-2010 ikasturtea		2010-2011 ikasturtea		2011-2012 ikasturtea		2012-2013 ikasturtea		Guztizkoak	
Ikastetxeak	Irakasl.	Ikastetxeak	Irakasl.	Ikastetxeak	Irakasl.	Ikastetxeak	Irakasl.	Ikastetxeak	Irakasl.
12	105	12	94	13	114	14	143	51	456

Ikasturte honetan Pechakucha esperientziarekin jarraitu da eta, metodologia hori baliatuz, ikasturtearen bukaeran (maiatza-ekaina) proiektuarekin egindako lanaren ondorioak bertaratu nahi izan duten irakasle guztiei aurkeztu zaizkie. Pechakucha formatua 20x20-ko (20 segundoko 20 diapositiba) aurkezpen batean datza.

Esperientzia oso baikorra izan da eta eredu hau nahitaezkoztat jo da aurtengo ikasturteko IKTko proiektuen deialdiko oinarrietako batean. Helburua da hautaturiko ikastetxeek IKT ekimenak hezkuntza erkidegoarekin partekatzea, beste ikastetxe batzuetako irakasleendako baliagarriak izan daitezkeen jardunbide egokien ereduak hedatu eta eskaini ahal izateko.

##### Beste hezkuntza administrazio batzuekin koordinatzea

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalak abiatu dituen ekintzarik garrantzitsuenak ondokoak dira:

- Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministeriotik eta autonomia erkidegoetatik sortutako proiektu eta programetan parte hartzea: Eskola 2.0 programako batzorde teknikoa, edukien, prestakuntzaren eta Agrega proiektuaren batzordeak.

#### 4.3.10.5. Prestakuntza

Irakasleen prestakuntza beste elementu gako bat da, konektagarritasunarekin eta ekipamendu informatikoaren hornidurarekin batera, hezkuntzaren esparruan IKTak sartzeko eta erabiltzeko prozesu guztietan. Horrexegatik dira garrantzitsuak irakasleendako prestatutako ekimenak eta jarduerak, hots, ondoko epigrafean zehazten direnak.

##### PNTEn urrutiko prestakuntza programa

PNTEn urrutiko prestakuntza programa 12 jarduera desberdinez osatu da 2012-2013 ikasturtean. Jarduera horiek, guztiak ere online, hiru prestakuntza ibilbidetan sartuta daude:

- Ofimatikako ibilbidea: 3 ikastaro.
- Irudiko eta multimediamiako ibilbidea: 2 ikastaro.
- IKTak curriculumean integrazteko ibilbidea: 7 ikastaro.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalaren asmoa da datozen urteetan lan ildo hau sendotu eta zabaltzea eta, orobat, testuinguru ekonomikoari egokitutako formula berriak eta eraginkorrak bilatzea. Ildo berri horietako batzuk beherago azaltzen dira.

Online prestakuntzari buruzko datu estatistikoei dagokienez, aipatzekoak dira zenbait zifra esanguratsu (2011-2012 ikasturtera arte):

- Osotara 1.400 irakaslek eman dute izena prestakuntza jardueretan 2012-2013 ikasturtean.
- Aldi horri dagokion parte-hartze tasa (hau da, matrikulatu den online ikastaroa hasten duten irakasleen ehuneko) %85 ingurukoa da. Bestalde, ziurtatze tasa %75 ingurukoa da, irakaskuntza mota hauen batez bestekoak oso gainditzen dituzten ehunekoak. Datuok esanguratsuak dira kontuan izanik urte honetan prestakuntzako plataformaz aldatu dela (Moodleren pasatu da) eta halakoetan litekeena dela hasieran erabiltzen ez jakitea, zailtasunak izatea eta pertsona batzuek prestakuntza uztea.
- PNTEren online prestakuntza programa 1998-1999 ikasturtean hasi zenetik gaurdaino, osotara, 44.213 lagunek parte hartu dute ikastaroetan.

Online prestakuntzarekin zerikusia duten PNTEren etorkizuneko proiektuen artean ondoko hauek daude:

- Ikasturte honetarako abian jarriko da online prestakuntza garatzeko ikasgela birtual berri bat, gaur egungoa ordezkatzeko duena. Ikasgela hau Moodle 2.x plataforman sortu da, PNTEren zerbitzarietan, eta urrutiko prestakuntzako eta autoprestakuntzako ikastaroak sartuko dira bertan. Autoprestakuntzako ikastaro hauek ez dute tutorerik izanen eta irakasleek egiten ahalko dituzte inolako denbora mugarik gabe. Aurreikusita dago halako ikastaroen eskaintza zabala egitea.
- Foro eta baliabideetarako *webinar*-ak edo zuzeneko online saioak gehitzea Moodleko euskarriarekin konbinatuta. Adobe Connect Pro plataformarekin egindako halako saio batzuk egin dira ikasturte honetan. Ikastetxeetan garatu diren esperientzia interesgarriak hedatzea da helburua eta, horretaz gainera, egin dituztenek berek azal ditzatela. Iruditzen zaigu halako prestakuntzak helburu hauek lortzen dituela: kostuak merketzea eta erabiltzaileek beren ikastetxeetarako eredu moduan erabil ditzaketen IKT esperientziak eskuratzea. Zentzu honetan, esan behar da heldu den ikasturterako oraingo plataformaren (Adobe) ordez beste bat (Blackboard collaborate) ezarri nahi dela eta plataforma berria urrutiko prestakuntzaren Moodle plataforman txertatuko dela, haren modulu bezala. Horri esker, irakasleei beren etxetik edo lantokitik, joan-etorriak egin beharrik gabe, prestakuntza saioetan zuzenean sartzeko aukera ematen dieten era honetako *webinar*-ak indartu eta dinamizatu egingen dira.
- Ikasturte honetako zenbait saiotan, ikastetxeetako hizlariak ez ezik, kanpoko hizlariak izan dira irakasleentzako eta ikasgeletan egiten duten eguneroko lanerako interesgarriak diren tresnak edo web aplikazioak ezagutarazteko.
- Hezkuntza arloan IKTEkin zerikusia duten gai berrien arabeko ikastaro berriak urtero sartzeari. Esate baterako, azken deialdietan sareko segurtasunarekin edo hezkuntzako sare sozialekin zerikusia duten ikastaro berriak sartu ditugu, gai horiek irakasleak eta ikastetxeak oso kezkatzen dituzte-eta. Horretaz gainera, aurtengo deialdian PNTEApps ikastaroa gehitu da, irakasleek PNTEApps proiektua ezagut dezaten eta hezkuntza aldetik errendimendu ona ateratzeko gai izan daitezten. Heldu den ikasturterako, ildo berean jarraituz, honelako ikastaroak eskainiko dira: Musika 2.0, Edmodo hezkuntzako sare soziala, Google drive, Google sites eta Web edukiak bilatzea eta sortzea. Datorren urterako beste ekimen garrantzitsu bat Edukiak sortzea eta tutoretza Moodle 2-n izeneko ikastaroa izanen da. Ikastaroa egiten duten irakasleak plataforma horretan ikastaroak sortzeko eta haien tutoretza burutzeko gai izan daitezten da asmoa.

### **Prestakuntza ILZetan**

2012-2013 ikasturteko Irakasleen Prestakuntza Planaren barruan, Irakasleentzako Laguntza Zentroek (ILZ) hainbat prestakuntza jarduera jarri dituzte martxan IKTEi eta IKTak curriculumean txertatzeari buruz. Esparru horri buruzko datuen artean hauek dira azpimarragarrienak:

153. koadroa – Prestakuntza ILZetan				
	2009-2010 ikasturtea	2010-2011 ikasturtea	2011-2012 ikasturtea	2012-2013 ikasturtea
Prestakuntza jarduerak	56	107	105	165
Izen-emateak	812	1.431	1.339	2.859
Ziurtagiriak	644	1.056	672	2.450

Ikasturte honetan Googleko PNTEApps tresnak ezarri direnez, ahalegin berezia egin da haien gaineko prestakuntzan eta ikastetxeetan bertan prestakuntza ekintza kopuru polita egin da. Turrusta erako prestakuntza ereduak izan da. Lehenik, ikastetxeetan sortutako lantaldeen koordinatzaileei eman zaie prestakuntza. Gero, haiek lantaldeetara eraman dute jasotako prestakuntza.

Aurrez aurreko prestakuntzaren beste alderdi garrantzitsu bat izan da ikastetxeetako IKTen arduradunei eman zaien prestakuntza eta gaikuntza, ahal den neurrian ekipoen eta sareen konfigurazio arazoak atenditu eta konpontzen saia daitezzen.

#### 4.3.10.6. Hezkuntza edukiak garatzea

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien eta Proiektuen Atalaren lanaren zati handi batek hezkuntza edukien garapenarekin du zerikusia. Garapen hori Hezkuntza Departamentuak eta bere administrazio unitateek, zein ikastetxeek edo irakasleek aurrera eramaten dute eta, orobat, egiten da beste hezkuntza administrazio batzuen ekimenekin (Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa, autonomia erkidegoak) edo enpresa pribatuarekin elkarlanean.

Jarraian jarduerarik azpimarragarrienak biltzen dira.

- AGREGAn SITNA ikasjolasa sartu da. Bigarren Hezkuntzako lehen ziklorako jolas honek Nafarroako Lurralde Informaziorako Sistema (SITNA) hedatzearekin eta ezagutzearekin zerikusia du.
- Gurbinjuego hezkuntza jolasa Agrega-n sartu da. Jolas horrek Nafarroako nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin zerikusia du eta Fundagro-k egindakoa da, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien eta Proiektuen Atalarekin elkarlanean.
- Online erako prestakuntza programarako edukiak garatu dira. Jarduera honen garrantzia ikusita, txosten honetako behar den epigrafean xeheki azaldu da.
- Gainera, "AGREGA 2" plataformaren bidez aldeztu aurretik garatutako edukien bisualizazioa lantzen ari da (asko hobetu dira plataformaren funtzionaltasun orokorra eta interfazeak).
- Ikasturte honetan Nafarroako Unibertsitate Publikoarekin garatu den lankidetzaren proiektu batean zenbait ikastetxek musikaren arloko curriculumeko arloei loturiko aplikazio bat probatu eta baloratu dute. Aplikazio hori erabat erabilgarri denean Nafarroako ikastetxe guztien eskura izatea dago aurreikusita.
- Gainera, edukiak sortzeko beste iturri bat agiri honen beste puntu batean dagoeneko aipatu ditugun teknologia berrien proiektuak dira.
- Bestetik, PNTEApps ezarri denetik site tematikoak sortzen ari dira ikastetxe asko eta, nolabait, ikasunitate bezala erabiltzen dituzte, liburu digitalak bailiran.

#### 4.3.10.7. Liburu digitalen proiektu pilotua

Aurten, irailean, liburu digitalen proiektu pilotua hasi nahi da. Horretarako Aula Planeta izeneko plataforma aukeratu da eta Integra IKT proiektuaren lehen fasean parte hartzen duten eta, beraz, dagoeneko ordenagailu eramangarriak dituzten zenbait ikastetxetan ezarriko da. Egitasmo honi esker irakasleek curriculumeko arlo nagusietako liburu digitalak izanen dituzte eta baita Planetak digitalizatu dituen beste eduki garrantzitsu batzuk, oso lagungarriak izan daitezkeenak irakasle-irakasleen kontsultetarako.

#### 4.3.10.8. Hezkuntza Departamentuko hezkuntza ataria garatzea

PNTEk bere langile eta zerbitzuekin Hezkuntza Departamentuaren ataria eta hango aplikazioak garatzen, eguneratzen, kudeatzen eta mantentzen laguntzen du. Azkenaldian egin diren jarduerarik adierazgarrienak ondokoak dira:

Webguneak eta web aplikazioak ekoizpen inguru bakarrean integratzeko prozesu baten lehen urrats modura, PNTEren webgunea tresna berri batera (Liferay) osorik migratu da eta oraingo CMS (Infoglu) eta beste aplikazio batzuk ordezkatu ditu. Liferay hizkuntza anitzeko atarien kudeatzailea da eta, horretaz gainera, aukera ematen du web edukien elkarlanerako eta kudeaketarako tresnak antolatzeko, besteak beste, beste aplikazio batzuk integratzekoak edo haietan integratzekoak. PNTEren webgunea web publiko batez eta erkidego pribatu batez ordezkatzeko prozesua osatu da; erkidego pribatu horretan sartzetik izanen dute PNTEren zerbitzuren bat erabiltzen duten Educa-ko jarduneko irakasleek.

Horretaz gainera, ondokoetan lanean jarraitzen da:

- Ikastetxe publikoei aurretik zehaztutako egitura izanen duen webgune publiko bat izateko aukera eskaintzea. Testu bakar batzuk sartzeko aski izanen da Interneten agertzeko.
- Atarien kudeatzailea kautotze sistema zentralizatuan (LDAP) integratzea.
- Epe laburrera edo epe erdira ingurune bakar bat eskura izan daiteke eta hartan kudeatu:
- Webgune publikoak: Departamentukoak, ikastetxeetakoak, irakasleenak (pertsonalak edo erkidegoak).
- Webgune pribatuak: PNTEren kudeaketa aplikazioen eta ikastetxeetako intraneten integrazioa.
- educacion.navarra.es domeinua zerbitzuan jartzea, erabiltzaileentzat lehengoa (pnte.cfnavarra.es) baino argiagoa delako. Domeinua aldatzearekin batera web zerbitzarien izenak ere eguneratu dira eta webguneetako URLak aldatu dira.
- Zerbitzu eta aplikazio berrien garapena. Horien artean aipatzekoak dira praktikak egiten ari diren funtzionarioen nahitazeko prestakuntzarako eskaerak jasotzen dituen web formularioa, Teknologia Berrien proiektuak kudeatzeko eta jarraipena egiteko aplikazioa eta Irakasleentzako Prestakuntza Plana kudeatu eta jendaurrean jartzeko beste aplikazio baten garapena. Halaber, ISEKen gaineko informazioa biltzeko sistema garatu da Ikuskapen Zerbitzurako.
- Hezkuntzako atarian eta Nafarroakoan argitaratutako informazio mota zenbait koordinatzea, bikoizketak eta funsgabetasunak saihesteko.
- Atarian, halaber, PNTEren barruko ParaPnte espazioan sartzeko esteka dago. Haren bidez ikastetxeetako ikasgeletan IKTak txertatzearekin loturiko era orotako berriak, ikastetxeetako esperientziak, ikasgelarako web tresnak, etab. hedatu nahi dira.

#### 4.3.10.9. Informazioa, sistemen administrazioa eta bestelako zerbitzuak kudeatzea, Hezkuntza Departamenturako.

PNTEk, bere ezaugarriak direla medio –berezko langile teknikoak, zerbitzariak dituen unitate tekniko bat eta datu lanketarako zentroa ditu–, Hezkuntza Departamentuari eta Departamentuko ikastetxe eta irakasleei hainbat zerbitzu ematen dizkie. Jarraian zerbitzu horien esparruak azaltzen dira.

##### Informazioaren kudeaketa: EDUCA

*Educa* hezkuntza kudeaketarako web aplikazio zentralizatua da. Hezkuntza Departamentuak 2002-2003 ikasturtetik erabiltzen du. Aplikazio horren bidez eskolatzearekin lotutako datuak kudeatzen dira eta unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko eta itundu guztien hezkuntza kudeaketako ataza ohikoenak egiten dira. 2002-2003 ikasturtean Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan ezarri zen, 2007-2008 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta 2011-2012 ikasturtean Goi Mailako Musika Kontserbatorioetan eta Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialean (NUHEO). Pixkanapixkanaka ezartzen joan da ikastetxe itunduetan (onarpena, hezkuntza premiak, egutegia, etab.) departamentuaren oinarritzko prozesuak kudeatzeko ikastetxe itundu guztiak EDUCAn sartzeko ituna sinatu den arte (25/2011 FORU AGINDUA, otsailaren 10ekoa). Foru agindu horren bidez departamentuaren oinarritzko prozesuak kudeatzeko ikastetxe itundu guztiak EDUCAn sartzeko dira.

PNTE arduratzen da aplikazioaren programazioaz eta mantentzeaz, aplikazioaren kokaleku diren zerbitzariak eta, bestetik, aplikazioa eta aplikazio barruko datuak kudeatzeaz. Ekintza horiez gainera,

*Educa*-ren garapenean beste jarduera batzuk sartzen dira, hala nola, erabiltzaileei prestakuntza ematea, aplikazioa egoki mantentzea eta ikastetxeei eta erabiltzaileei laguntza ematea.

### Hezkuntzako informazioaren kudeaketa: Estatistika.

Berari dagozkion eskumenetan, Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoak, besteak beste, ondokoak egiten ditu:

- Hezkuntzaren estatistika prestatzea Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarentzako eta Nafarroako Estatistika Institutuarentzako. Beken estatistika prestatzea.
- Informazio triptikoa prestatzea.
- Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuarentzako emaitza akademikoen estatistika prestatzea.
- Nafarroako Eskola Kontseiluarentzako datuak lortzea.
- Hainbatengandik jasotako datu eskariei erantzutea: Nafarroako Parlamentua, Arartekoa, sindikatuak, irakasleak, argitaletxeak, etab.
- Datuak lortzea Hezkuntza Departamentuaren antolaketa beharretarako.
- Gobernuko webean datu estatistikoak eguneratzea.

### Sistemen administrazioa.

Legegintzaldi honetan zehar eta sistemen administrazioaren esparruan, zerbitzariak eta haiei lotutako zerbitzuak modernizatzeko anbizio handiko programarekin jarraitu da. Programa horren aurtengo ezaugarri nagusiak ondokoak dira:

- Hezkuntzako datuak prozesatzeko zentroan *blade* zerbitzarien ingurune berria eta horri dagokion biltegia erostea, egiten ari diren proiektu berriak ostatatzeko eta euskarririk gabe gelditu ahala etorkizunean ekipamenduaren eguneratzea prestatzeko.
- EDUCA ingurunerako *blade* zerbitzarien ekipamendu berria erostea eta ekipamendu zaharretik berrirako migrazioa egitea. Ekipamendu berria erosi da zaharra bizitza erabilgarriaren bukaeraraino iritsi delako. Migrazio honetan datu-basea azken bertsiora eguneratzen da.
- Kautotze sistema bakar eta zentralizatua (LDAP/CAS) ezartzea PNTEren erabiltzaileentzako. Sistema hori EDUCA eskola kudeatzeko sistemarekin txertatzen da eta etorkizun hurbilean irakasleek aukera izanen dute kautotze bakarrarekin Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien eta Proiektuen Atalaren mendeko aplikazio eta zerbitzu guztietan sartzeko.
- EDUCAREN garapen ingurune birtualizatua: EDUCAREN garapen taldeko kideek lan eginen dute edonon daudela ere eta ingurunean sartu ahal izateko baliatzen ahalko dira Nafarroako Gobernuaren zuntz sareaz edo horretarako sortuko duen VPN batez.
- Errendimendu handiko idazmahaien birtualizazio ingurunea. Azpiegitura bat sortu da Hezkuntzako datuak prozesatzeko zentroan birtualizaturiko lanpostu informatikoen sorrera eta urrutiko kudeaketa egin ahal izateko. Ezarri da Burlatako Ibaialde Lanbide Heziketako ikastetxean (ikastetxe hori Nafarroako Gobernuaren zuntz sarearen bidez konektaturik dago). Ikastetxe honetan ikasleak beren ekipo birtualizatuan sar daitezke beren etxetik, horretarako sortu den VPN baten bitartez. Kudeaketa eredu hau hedatzen ahal da Nafarroako Gobernuaren zuntz sare bidezko lotura duten ikastetxeetara.
- Irakasleen posta elektronikoa Googleren zerbitzarietara migratzea, *educacion.navarra.es* domeinua mantenduz. PNTEApps proiektuaren zati modura, gure posta zerbitzarietako posta elektronikoko kontuak Googleren zerbitzarietara migratu dira. Irakasleek eta ikasleek *@educacion.navarra.es* motako posta elektronikoa izan dezakete. Posta elektronikoko Google kontuen eta haiei loturiko aplikazioen kudeaketa EDUCAtik autokudeatu daitezke.

### Proiektu berriak

- Linux idazmahaien ezarpena aztertzea modu zentralizatuan kudeaturiko ikastetxeetan. Plangintzaren arabera, 2013-14 ikasturtean halako inguru bat jarriko da martxan. Erabiltzaileek idazmahaietan sartzeko erabiltzaile-izena eta pasahitza eman beharko lituzkete. Kautotzea modu zentralizatuan kudeatuko litzateke eta edozeini aukera emanen litzaioke ikastetxeko edo institutuko edozein ordenagailu erabiltzeko eta haietako edozeinetatik dokumentuetan sartzeko. Hezkuntzako datuak

prozesatzeko zentroan ingurune birtuala ezarriko da, erabiltzaileak beren dokumentuetan etxetik sartu ahal daitezen VPN bat erabiliz.

- Ikastetxeetarako eskuragarri dagoen banda zabalera handitzeko ikerlana.
- PNTEren zerbitzarien barnean kokaturik daude Hezkuntza Departamentuaren eta PNTEren webguneak. Departamentuko atariaren gaineko datu gehiago nahi izanez gero, jo ezazue txosten honetako behar den epigrafera.
- 2013ko irailean, PNTEren zerbitzariak ikastetxeetarako eta hezkuntza zerbitzuetarako 380 web kontu baino gehiago ostatatzen dituzte. Gehienak online aplikazioak dituzten webgune dinamikoak dira; erabilienak hauexek dira:
  - Joomla, hezkuntza atarietarako, gehienak ikastetxeetako webguneak: 95 instalazio.
  - Moodle, ikasgela birtualetarako: 80 instalazio.
  - WordPress eta b2evolution, blogetarako: 76 instalazio (horietako 47 multigunearen konfigurazioarekin) eta 12 instalazio, hurrenez hurren.
- PNTEren zerbitzariak Hezkuntza Departamentuaren eta haren erakunde autonomoen mendeko 12 administrazio unitateentzako eta programetarako 17 webgune ostatatzen dituzte, hauek kasu: Orientazio Atalaren ikasgela birtuala; Lanbide Heziketako Zerbitzuaren irakaskuntzarako online erako ikasgela birtuala; Berdintasunaren Bulegoaren bloga; Berrikuntza Programen Bulegoaren Eskola Bidaia-riren bloga; Berrikuntza Programen Bulegoaren ikasgela birtuala; Eskola Kontseiluaren weba; Euskarabidearen ikasgela birtuala; NHBBZren weba eta ikasgela birtuala; Kalitate Bulegorako Kadinet aplikazioa; Irakasleen Prestakuntza Bulegorako ikasgela birtuala; ILZetako ataria eta aholkularitzetarako blogak, Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzuaren etorkizuneko egoitza, etab.
- PNTEren web zerbitzarien barruan kokaturik daude 135 irakasle baino gehiagoren beste hainbeste webgune. 2010eko martxotik aurrera, aktibatu zen web dinamikoaren zerbitzu berri bat (datu-base batera loturik). Zerbitzu horretan harpideturik dagoen edozein irakaslek bere hezkuntza erabilerarako aplikazioak instalatu eta kudeatu ditzake.
- 2012-2013 ikasturtean zehar irakasleentzako 15 hezkuntza blog inguru prestatu dira PNTEren Multiblog plataforman. 2008ko azaroan funtzionamenduan jarri zenetik plataforma horrek hezkuntzako 190 blogetik gora hartzen ditu, eta horietan 225 irakaslek baino gehiagok parte hartzen dute.
- Ikasturte honetan PNTEk WordPress-ekin eginiko webguneak urrutitik kontrolatzeko eta monitorizatzeko sistema bat jarri du martxan. Balio du zerbitzuan alta emana duten WordPresseko instalazioak gaurkoturik izan daitezen, segurtasun kopiak egin daitezen behar denean, euskarria jaso ahal dezaten, etab. 2013ko abuztu bukaeran WordPresseko 40 instalazio zeuden zerbitzu honetan alta emanda.
- 2012-2013 ikasturtean ia 90 artikulua argitaratu dira ParaPNTE web aplikazioaren plataforman, hezkuntza erkidegoari berriak eta informazioa emateko IKTak hezkuntzan erabiltzearekin loturiko askotariko gaien inguruan.

#### Laguntza eta mantentzea

PNTEk laguntza eta mantentze-lanetako zerbitzuak ematen dizkie ikastetxeei esparru hauetan:

- Arlo lokaleko sareen eta Interneteko konexioaren konfigurazioa eta funtzionamendua.
- Ekipo informatikoen mantentze-lanak. Horri dagokionez, ikus informatika ekipoen mantentze-lanetarako kontratuari buruzko epigrafea.
- PNTEk ematen dituen zerbitzuen funtzionamendua: posta elektronikoa, webguneak ostatatzea, etab.
- PNTEren mendeko beste aplikazio, programa eta sistema informatikoen funtzionamendua.
- 2011ko otsailean, PNTEk jazoerak kudeatzeko berariazko aplikazioa ezarri zuen (GLPI) eta horri esker jazoerak komunikatzeko protokoloak berrantolatu dira. Esan berri diren esparruetako edozeinekin zerikusia duen jazoera baten aurrean, Teknologia Berrien arduradunak edo, ez balego, ikastetxeko zuzendariak baliabide hauetako edozein erabil dezake jazoera horren berri emateko:
  - GLPI, jazoerak kudeatzeko online aplikazioa. Aplikazio honekin ikastetxe bakoitzak ireki dituen jazoeren jarraipena egin dezake. GLPI aplikazioa eskuragarri dago <https://inventario.educacion.navarra.es/glpi> helbidean eta PNTEk horretarako prestatu duten eskuliburuan adierazitakoaren arabera erabili behar da.
- Jazoerak kudeatzeko online aplikazioa ekipo informatikoen inbentarioari lotuta dago; inbentarioa ikastetxe bakoitzak egin behar du. Inbentarioa egiteko, beharrezkoa da agente bat ordenagailu



guztietan instalatzea; agente hori automatikoki inbentarioko zerbitzariarekin harremanetan jarriko da eta ekipoa identifikatzeko datu adierazgarri guztiak bidaliko dizkio eta, hala behar bada, matxuren azterketa ere.

- Euskarri sistemaren posta elektronikoa. Helbideak hauexek dira: [ayuda@educacion.navarra.es](mailto:ayuda@educacion.navarra.es) eta [ayuda2@educacion.navarra.es](mailto:ayuda2@educacion.navarra.es).
- Telefono bidezko komunikazioa euskarri eta mantentze-lanerako zerbitzuarekin. Jazoerak telefonoz transmitituko dira soilik ezin denean online aplikazioan edo posta elektronikoa sartu (esate baterako, Interneteko loturarik ez dagoenean).

PNTERen euskarri taldearen jardura aztertzeko 2012-2013 ikasturteko daturik adierazgarrienak ondokoak dira:

- Laguntza eta mantentze-lanetan zuzenean ari diren Ataleko langileek 5.000 kontsulta, jazoera eta gai inguru tramitatu dituzte posta elektronikoa eta bestelako prozedura telematikoen bidez eta online.
- 2.000 jazoera inguru erregistratu dira GLPI online euskarri tresnaren bidez eta PNTEk indarrean dituen mantentze-lanetarako kontratuen emakida duten enpresek atenditu dituzte. Jazoera hauetako gehienek eskatzen dute ikastetxeetako teknikarien zuzeneko arreta eta honela xehatzen dira:
- Ekipo informatikoen mantentze kontratua: 1.000 jazoera inguru.
- Sareen mantentze-lanak, Nasertic enpresa publikoaren jardura ukitzen duen esparruan: 240 jazoera inguru.
- Sareen mantentze-lanak, PNTERen zuzeneko jardura edo horretarako kontraturiko enpresak ukitzen dituen esparruan: gainerako jazoerak.

### **PNTEApps proiektua**

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak lankidetzaz hitzarmena sinatu zuen Google-rekin. Hitzarmenaren aplikazioak "PNTE Apps" egitasmoari hasiera emanen zion. Egitasmo honen bidez Hezkuntza Departamentuaren mendeko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoen esku utzi dira hainbat komunikazio eta lankidetzaz aplikazio, Google Apps-en oinarrituak, interesgarriak direnak hezkuntza alorrerako eta potentzial handia dutenak jardura didaktikoak gauzatzeko.

"PNTE Apps" proiektuaren elementu nagusia posta elektronikoko Gmail zerbitzua da. PNTEk gaur egun eskaintzen duenak baino askoz ere biltegitate gaitasun handiagoa du, eta erabilgarritasunari eta irisgarritasunari dagokionez ere hobea da. Gmail zerbitzuaren oinarrian "Informatika lainoan" deituriko kontzeptua dago. Internetera konektaturiko zeinahi kokapen edo dispositibotik irisgarri diren zerbitzuetan kokatzen ditu aplikazio informatikoak eta erabiltzaileen datuak eta dokumentuak.

Posta elektronikoko zerbitzu berri hau ondoko aplikazioekin osatzen da: Google Calendar, elkarren arteko egutegiarentzako; Google Docs, agiriak online sortu eta partekatzeko aukera ematen duen zerbitzua; Google Sites, webguneen sorrera erraztu eta edizio eta argitalpen kolaboratiboa egiteko aukera ematen duen tresna; eta Google Groups, posta zerrendak eta eztabaida taldeak sortzeko aukera ematen duen zerbitzua. Zerbitzu horiek euskarria izanen dute. Nolanahi ere, Google-n eskuragarri izanen dira hezkuntza mundurako oso interesgarriak diren bestelako zerbitzuak, hala nola, Google Maps, Blogger, Youtube, Picasa, etab.

Zerbitzu eta aplikazio berri hauek martxan jarrita neurri handi batean aldatu dira gaur arte PNTEk ikastetxeei eta irakasleei eskainitako zerbitzua erabiltzeko baldintzak. Aldaketa nagusiak hauek izan dira:

2012ko irailean irakasleen posta elektronikoko kontu pertsonalak "PNTE Apps"-eko kontu bihurtu ziren eta ofizialak izatera pasatu dira. Beraz, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuarekiko komunikazio guztietan erabili beharko dira, lehentasunez.

2013ko martxoan PNTE Apps-en alta eman zaie Nafarroako Gobernuaren titulartasuneko unibertsitatez kanpoko ikastetxeetan lan egiten duten irakasle guztiei. Orditik, ikastetxe horietan hasten diren irakasle guztiek zerbitzu hori baliatzeko aukera dute, Educa aplikazioan alta ematen zaienetik.

2013ko martxotik aitzina ere, eskatzen duen ikasle orori PNTE Apps kontuetan alta emateko aukera eskaintzen duen funtzionaltasuna aktibatuta da.

154. koadroa - Batez besteko ikasle kopurua ordenagailu bakoitzeko. 2010-2011 ikasturtea					
	Guztira	Guztira	Ikastetxe publikoak	BHko Lanbide Heziketako ikastetxeak	Ikastetxe pribatuak
			Lehen Hezkuntzako ikastetxeak		
<b>Irakaskuntzako eta ikaskuntzako lanetan erabilitakoa<sup>61</sup></b>					
Andaluzia	2,1	2,0	1,8	2,1	2,9
Aragoi	3,3	2,9	2,7	3,3	4,5
Asturiasko Printzerria	3,2	2,8	2,2	3,7	4,5
Balear Uharteak*	2,9	2,6	1,8	4,4	3,6
Kanariak	5,2	4,7	4,8	4,7	8,1
Kantabria	3,5	2,9	2,4	3,5	6,1
Gaztela eta Leon	4,0	3,3	2,8	4,1	6,4
Gaztela-Mantxa	2,6	2,4	1,8	3,5	3,8
Katalunia	4,3	3,6	3,5	3,7	5,8
Valentziako Erkidegoa	6,0	5,2	5,2	5,3	8,7
Extremadura	1,8	1,5	3,6	1,0	7,2
Galizia	3,8	3,5	4,0	3,1	5,5
Madrilgo Erkidegoa	6,9	6,5	7,4	5,9	7,5
Murtziako Eskualdea	6,3	5,5	6,2	5,0	9,9
Nafarroako Komunitatea	5,5	5,1	6,5	4,2	6,3
Euskal Autonomia Erkidegoa	2,4	2,2	1,8	2,8	2,7
Errioxa	3,6	3,2	3,1	3,4	4,6
Ceuta	3,8	3,3	2,4	5,1	6,7
Melilla	4,4	4,4	2,7	8,0	4,8
<b>Guztira</b>	<b>3,5</b>	<b>3,0</b>	<b>2,9</b>	<b>3,2</b>	<b>5,2</b>
<b>Lehentasunez irakaslanerako erabilitakoa</b>					
Andaluzia	2,3	2,1	2,0	2,4	3,2
Aragoi	3,9	3,5	3,0	4,2	5,3
Asturiasko Printzerria	3,7	3,3	2,5	4,6	5,0
Balear Uharteak	3,2	2,9	1,9	5,6	4,0
Kanariak	6,5	5,9	5,8	6,0	10,9
Kantabria	4,4	3,7	2,9	4,9	7,3
Gaztela eta Leon	4,8	4,0	3,2	5,2	7,8
Gaztela-Mantxa	3,9	3,8	2,5	7,2	4,1
Katalunia	5,0	4,1	3,9	4,4	7,1
Valentziako Erkidegoa	7,4	6,4	6,4	6,4	11,1

<sup>61</sup> Batez ere irakaslanerako erabiltzen diren ordenagailuak hartu dira kontuan.

Extremadura	2,2	1,8	4,7	1,2	8,9
Galizia	4,6	4,2	4,9	3,7	6,3
Madrilgo Erkidegoa	8,6	8,1	9,0	7,4	9,2
Murtziako Eskualdea	7,6	6,7	7,3	6,3	12,4
Nafarroako Komunitatea Foru	7,0	6,6	8,0	5,5	7,8
Euskal Autonomia Erkidegoa	2,8	2,7	2,1	3,7	3,1
Errioxa	4,7	4,4	4,1	4,6	5,7
Ceuta	4,7	4,3	3,0	6,6	7,2
Melilla	6,0	6,1	3,8	11,4	5,4
Guztira	4,1	3,6	3,3	3,9	6,2

Iturria: Hezkuntza Ministerioaren "Las cifras de la educación en España" (Hezkuntzari buruzko zifrak Espainian), 2013ko argitalpena.

155. koadroa - Internet-konexioa duten ikastetxeen ehunekoa eta konexio mota.					
2010-2011 ikasturtea					
	Internet-konexioa	Konexio mota <sup>62</sup>			
		Telefono-linea arrunta	RDSI	ADSL	Beste konexio mota bat
<b>Lehen Hezkuntzako ikastetxeak</b>					
Andaluzia	99,9	0,1	4,2	72,6	23,2
Aragoi	99,7	8,6	3,4	89,3	8,2
Asturiasko Printzerria	100,0	14,5	3,3	85,1	21,9
Balear Uharteak	100,0	40,6	6,6	93,4	6,1
Kanariak	100,0	34,7	3,0	92,0	9,1
Kantabria	100,0	16,7	3,8	97,0	3,0
Gaztela eta Leon	100,0	9,6	3,6	95,1	10,2
Gaztela-Mantxa	99,4	12,1	6,2	97,6	9,0
Katalunia	100,0	2,6	1,4	89,0	9,5
Valentziako Erkidegoa	99,5	2,1	1,5	97,5	4,6
Extremadura	100,0	18,9	6,0	72,8	11,3
Galizia	100,0	1,8	5,1	80,2	14,1
Madrilgo Erkidegoa	99,7	12,3	21,1	95,5	3,9
Murtziako Eskualdea	100,0	10,4	15,3	83,9	1,3
Nafarroako Foru Komunitatea	100,0	7,7	8,9	74,0	9,5
Euskal Autonomia Erkidegoa	100,0	0,0	0,0	15,7	91,4
Errioxa	100,0	19,0	5,2	100,0	3,4
Ceuta	100,0	0,0	6,3	100,0	0,0
Melilla	100,0	0,0	0,0	90,9	9,1
Guztira	99,9	8,7	5,6	84,4	14,1

<sup>62</sup> Ikastetxe batek konexio mota bat baino gehiago izaten ahal du.

Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako ikastetxeak					
Andaluzia	100,0	0,4	2,0	77,2	20,4
Aragoi	97,2	3,8	3,8	96,2	1,9
Asturiasko Printzerria	100,0	3,8	3,8	94,9	19,2
Balear Uharteak	100,0	30,7	9,3	98,7	1,3
Kanariak	100,0	29,9	7,8	97,5	4,4
Kantabria	100,0	18,8	12,5	93,8	2,1
Gaztela eta Leon	99,6	7,1	8,8	99,2	4,2
Gaztela-Mantxa	99,5	10,2	8,8	94,9	25,5
Katalunia	100,0	1,1	2,1	92,5	11,0
Valentziako Erkidegoa	97,1	1,4	1,9	92,0	9,6
Extremadura	100,0	8,0	5,1	81,8	35,0
Galizia	100,0	1,4	1,7	83,6	13,4
Madrilgo Erkidegoa	100,0	12,1	20,2	96,7	8,5
Murtziako Eskualdea	100,0	4,4	5,3	95,6	0,0
Nafarroako Foru Komunitatea	<b>100,0</b>	<b>8,8</b>	<b>5,3</b>	<b>80,7</b>	<b>10,5</b>
Euskal Autonomia Erkidegoa	100,0	0,0	0,0	22,8	94,0
Errioxa	100,0	3,8	7,7	96,2	7,7
Ceuta	100,0	0,0	16,7	100,0	16,7
Melilla	100,0	14,3	0,0	100,0	14,3
<b>Guztira</b>	<b>99,5</b>	<b>6,2</b>	<b>5,6</b>	<b>86,2</b>	<b>17,0</b>

Iturria: Hezkuntza Ministerioaren "Las cifras de la educación en España" (Hezkuntzari buruzko zifrak Espainian), 2013ko argitalpena.

156. koadroa - Interneten eta ordenagailuen erabilera 10 urtetik 15era bitarteko adingabeen artean. 2011. urtea							
	Interneten erabiltzaileak, guztira	Interneten erabilera (%tan, Interneten erabiltzaile kopuru osoarekiko)					
		Non erabiltzen den			Zertarako erabiltzen den		
		Ikastetxea	Etxean	Beste toki batzuetan <sup>63</sup>	Eskola lanetarako	Aisialdirako, musika entzuteko, jolasteko ...	Beste xede batzuetarako <sup>64</sup>
<b>Guztira</b>	<b>87,1</b>	<b>68,0</b>	<b>86,9</b>	<b>53,6</b>	<b>95,9</b>	<b>87,2</b>	<b>20,7</b>
Andaluzia	86,0	68,9	80,2	55,0	94,3	82,6	19,2
Aragoi	94,5	72,4	93,5	65,9	99,1	94,6	26,4
Asturias	90,7	60,2	94,7	35,1	95,1	93,9	23,6
Balear Uharteak	83,6	70,3	92,7	48,8	98,7	85,1	28,2
Kanariak	89,7	64,2	84,4	58,7	96,7	76,1	13,7
Kantabria	96,2	59,9	94,2	38,6	93,6	86,5	32,4
Gaztela eta Leon	81,1	77,8	82,4	57,7	97,1	84,6	17,2

<sup>63</sup> Ondoko erabilera tokiak sartzen dira: senitartekoen eta lagunen etxebizitza, zentro publikoak, ziberkafe eta antzekoak, bestelako tokiak, ez daki/ez du erantzuten.

<sup>64</sup> Honen barruan sartuta daude beste erabilera batzuk eta ez daki/ez du erantzuten.

<b>Valentziako Erkidegoa</b>	80,5	64,4	84,6	50,2	87,4	84,6	28,1
<b>Katalunia</b>	92,0	88,6	91,9	54,1	100,0	92,3	22,9
<b>Valentziako Erkidegoa</b>	84,2	54,7	92,1	57,5	95,5	88,9	16,0
<b>Extremadura</b>	84,0	70,1	79,2	53,8	96,3	83,7	19,6
<b>Galizia</b>	88,8	67,0	78,5	67,8	90,6	88,3	24,9
<b>Madril</b>	84,7	49,8	87,7	46,3	97,2	86,3	22,5
<b>Murtzia</b>	81,5	50,1	86,6	52,6	94,8	94,9	12,8
<b>Nafarroa</b>	<b>95,6</b>	<b>82,4</b>	<b>87,2</b>	<b>63,5</b>	<b>95,6</b>	<b>88,0</b>	<b>17,5</b>
<b>Euskal Autonomia Erkidegoa</b>	95,4	77,7	93,8	38,8	95,2	91,8	21,4
<b>Errioxa</b>	82,9	74,1	83,4	50,3	95,0	94,9	13,0
<b>Ceuta</b>	72,7	69,5	92,0	62,3	90,0	84,6	10,1
<b>Melilla</b>	94,7	91,0	82,5	68,4	100,0	85,5	41,7
<b>Sexuaren arabera</b>							
<b>Gizonezkoak</b>	86,3	67,1	87,9	55,8	94,9	88,2	20,3
<b>Emakumezkoak</b>	87,9	68,9	85,9	51,5	97,0	86,1	21,3

Iturria: Hezkuntza Ministerioaren "Las cifras de la educación en España" (Hezkuntzari buruzko zifrak Espainian), 2013ko argitalpena.

### 4.3.11. Eskola kirola

#### 4.3.11.1. Kirola eskola garaian

Araudiarekin lotutako alderdiak

Eskola garaiko kirol jarduerak Nafarroako Kirolari buruzko 15/2001 Foru Legeak arautzen ditu. Bigarren kapituluan "eskola adineko kirola" eta "eskola kirola" kontzeptuen definizioa ematen da:

- Eskola adineko kirol jardueratzat hartuko da antolaturiko kirol ekintza, eskola umeek eta gazteek eskola orduz kanpo egina baldin bada.
- Eskola kiroltzat hartuko da haur eta gazteek ikastetxe guztietan, publiko nahiz pribatuetan, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako maila guztietan, eskola orduz kanpo egiten duten kirola.

Halaber, legearen barruan "Eskola adineko kirola bultzatzeko programak" delakoak sartzen dira, horien helburua izanen delarik eskola hezkuntza integralaren, nortasunaren garapen orekatuaren, baldintza fisikoen eta osasun ohitura prebentiboen osagarri izatea.

Foru legeak esaten du Foru Komunitateko kirol administrazioari dagokiola eskola adineko haurrei zuzendutako kirol jarduerak bultzatzea eta antolatzea, hezkuntza administrazioarekin, toki entitateekin, kirol entitateekin, ikastetxeekin, guraso elkarteekin eta esparru horretan inplikaturiko beste erakunde publiko edo pribatuekin lankidetzan.

Erreferentzia Esparru Autonomikoa

Nafarroako Kirol Institutuak adingabeek kirola egiteko Erreferentzia Esparru Autonomikoa onetsi zuen, 2011ko maiatzean. Agiri horren bidez eskolako ikasleentzako gorputz eta kirol jarduerarako programak sustatzen dituzten guztientzako lantresna bat eratu nahi da eta haren helburua da proiektu horiek izan behar dituzten funtsezko ezaugarriak eta proiektu horiek prestatu eta garatzeko beharrezkoak diren oinarriko ildoak ezartzea.

Bestalde, lehen helburu honekin batera, Foru Komunitatean gorputz eta kirol programa eta jardueretan parte hartzen duten adingabe guztiak babesteko balio behar du.

Funtsean, dokumentu ireki bat da, arloarekin zerikusia duten araudietan (Europakoak, nazionalak, autonomia erkidegoetakoak eta federazioetakoak) aldeztatik kontsultatu ondoren prestatutakoa eta

Foru Komunitateko eskolako kideentzako gorputz eta kirol ekimenen antolaketa eta bilakaera hobetzera bideraturiko ideia guztiak bateratu nahi dituena.

Dokumentu hori prestatzeko kontuan izan da Nafarroako kirolaren errealitatea, hots, eskolan daudenei zuzendutako jardueren eskaintza zabal eta askotarikoa. Ondokoak azpimarratzeko modukoak dira:

- Kirol Administrazioak sustaturiko jarduerak.
- Udaletako Kirol Eskolak, toki entitateek antolaturikoak.
- Lehiaketa ofizialak, kirol federazioek antolaturikoak.
- Irakakuntzako lehiaketak eta jarduerak, kirol entitateek antolaturikoak.
- Kirol modalitate jakin batzuetako irakaskuntza jarduerak, entitate pribatuek antolaturikoak.

Dokumentua [www.navarra.es/home\\_es/Temas/Deporte/](http://www.navarra.es/home_es/Temas/Deporte/) helbidean kontsulta daiteke eta eskolako kideentzako gorputz eta kirol jardueraren sustatzaileak diren kirol agenteek hobetzeko egiten dituzten ekarpenei irekita dago.

Eskola adineko kirol jarduerak Nafarroan

Nafarroako eskola haurrek jasotzen duten eskola jardueren eskaintza, gaur egun, oso zabala dela esan daiteke bai kopuruari bai aniztasunari begiratuta.

Ikastetxeek, kirol elkarteek eta kirol etxeek, kirol federazioek eta administrazioak berak, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren bidez, aisialdiko zein lehiaketazko kirol eskaintza interesgarri askoa aurrera daramate. Era berean, udalek eta kirol mankomunitateek irakaskuntza eskaintza egiten dute, txikienei zuzenduta, kirol eskolen eta aisialdiko lehiaketen bidez.

Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen %75ek diote ohikotasunez kirolen bat egiten dutela. Hala ere, parte-hartze horretan aldeak daude. Askoz sarriago eta gehiago egiten dute kirola mutilek eta, bi sexuetan, 12 urtetik aurrera poliki-poliki behera egiten du ehunekoak. Herri handietan hiriguneetatik urrun dauden herri txikietan baino handiagoa da parte-hartzea. Baina herri txikiak parte-hartze eskasa ez da, pentsa litekeen bezala, parte-hartzaile edo instalazioen faltagatik, jarduerak antolatzeko inplikaturako helduen faltagatik baizik.

Jarraian eskola kiroleko programa nagusiak azaltzen dira:

### 1. Nafarroako Kirol Jokoak

Programa hau 9 eta 18 urte bitarteko Nafarroako ikasleei zuzenduta dago. Urte osoan zehar egiten da, asteburuak lehiaketen eta jardueren bidez.

Administrazioak eskolan sustaturiko kirol programen artean programa hau da bolumenik handiena duena parte-hartzeari, kirol modalitateei, instalazioen erabilerari eta antolaketan parte hartzen duten langile eta eragileei dagokienez. Bertan Nafarroako toki entitateek eta kirol federazioek (31 federaziok) parte hartzen dute eta, horri esker, 22.500 parte-hartzaile baino gehiago ditu programak kiroleko 47 modalitate/espezialitateetan. Programaren helburu nagusiak ondokoak dira:

- Nafarroako herritar guztiei deialdiko kategorietan eta modalitateetan kirola egiteko bide ematea, eta kirolaren prestakuntza eta hezkuntza arloak bultzatzea.
- Parte-hartzaileen ezaugarriak egokitzen zaien kirol jardueren eskaintzea, integrazioa ahalbidetzea eta kirolaren balioak sustatzea.
- Adin horietan ezarpen eskasa duten edo izaera ludikoa duten kirol modalitateak sustatzea.
- Etorkizuneko proiektzioa duten kirol talentuak antzematea.
- Teknikariak prestatzeko plan bat ezartzea, zentzuzko epe batean, klub eta talde parte-hartzaileen arduradunek beren lanak hobeki egiteko prestakuntza hobea izan dezaten.

Gaur egun izan bada jardueraren arduradun diren teknikarien prestakuntzarako plan berezi bat, teknikari horiek eskola taldeak zuzentzeko eta dinamizatzeko gaitzeko.

Programaren eskaintzan sartzen diren kirol **modalitate/espezialitateak** ondokoak dira: urpeko jarduerak (igeriketa hegatsekin), xakea, atletismoa (krosa eta pista), badmintona, saskibaloia, eskubaloia, beisbola, txirridularitza (lur orotako bizikleta, errepidekoa, pistakoa), kirol egokituak, neguko kirolak (iraupeneko eskia), mendi eta eskalada kirolak (orientazioa, ibilaldi neurtuak, eskalada), eskrima, futbola (zelai-

futbola, areto-futbola eta emakumezkoen 8 futbola), gimnastika, golfa, herri kirolak, hipika, judoa eta lotutako kirolak, karatea, igeriketa (igeriketa, igeriketa sinkronizatua eta waterpolo), padela, irristaketa (abiadura eta hockey-a), pilota (esku-pilota, zesta punta, erremontea, goma-paleta, larru-paleta, pala motza eta trinketa), piraguismoa, taekwondoa, tenisa, ping-ponga, arku-tiroa, triatloia (triatloia eta duatloia), bela eta boleibola.

Parte-hartzea edizioz edizio handitzen joan da eta azkenekoan 22.500 lagunek parte hartu dute.

157. koadroa - Parte-hartzea Nafarroako Kirol Jokoetan					
Urtea	2008-2009	2009-2010	2010-2011	2011-2012	2012-2013
Edizioa	XXII	XXIII	XXIV	XXV	XXVI
Parte-hartzea	18.190	19.877	20.661	21.581	22.500

Iturria: Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua.

## 2. Eskoletako kirol kanpainak

Ingurune naturalean egiten dira, ikasturtean zehar, eskola egunetan eta gutxi gorabehera astebete irauten dute. 9.000 ikasle inguruk parte hartzen dute. Kanpaina hauen helburua da jende gutxik egiten dituen kirolak egiten hastea. Kirola egiteaz gainera, kanpaina hauen helburua ere bada ikasleek Nafarroako txoko berriak aurkitzea eta erkidegoko beste eskualde batzuetatik datozen gazteekin elkarrekin egotea. Hori guztia ingurumen arloko gaien sustapena eta sentsibilizazioa ahaztu gabe.

Iraupeneko eskiaren eskola kanpaina.

Belaguan eta Zaraitzun egiten da eta Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei eta eskola adinean dauden ezindu fisiko, psikiko eta sentsorialeiei dago zuzenduta.

2013. urtean XXIX. edizioa egin zen eta 4.255 ikaslek hartu zuten parte. Kanpainetan aitzindariena da eta 29 urte hauetan 116.195 irakaslek eta ikaslek hartu dute parte; "aste zuriaz" ari gara.

Naturan egindako jardueren eskola kanpaina.

Baztanen egiten da eta bertan DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek parte hartzen dute. Urarekin eta natura ingurunearekin zerikusia duten jarduera hauek egiten dituzte: raftinga, piragua, hidrospeeda, arroila-jaitsiera eta harizti batean zintzilik jarritako plataformen zirkuitua, Abentura Parke izenarekin ezagutua. Martxoan, apirilean eta maiatzean egiten da, hiru egunez.

2013. urtean XVII. edizioa egin zen eta 1.890 ikaslek hartu zuten parte. 27 urte hauetan 19.394 irakaslek eta ikaslek hartu dute parte "aste berdea" izenarekin ezagutzen den kanpaina honetan.

Belako eskola kanpaina.

Allozko urtegian egiten da martxoaren bukaeratik uztaile hasiera arte. Optimist eta Vaurient modalitateetan, kanpaina honetan parte hartzen dute Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek eta urritasun fisiko, psikiko eta sentsorialak dituzten ikasleek.

Belaontzi bat ibiltzen ikasten da, oinarrian bada ere. Horrez gainera, natura errespetatzearekin, materiala zaintzearekin eta bizikidetzarekin zerikusia duten jarduera osagarriak egiten dira irakasleekin eta beste ikastetxe batzuetako parte-hartzaileekin.

2013. urtean XX. edizioa egin zen eta 1.559 ikaslek hartu zuten parte. 20 urte hauetan 17.119 irakaslek eta ikaslek hartu dute parte "aste urdina" izenarekin ezagutzen den kanpaina honetan.

Izotz gaineko irristaketako eskola kanpaina.

Jarduera hau Uharteko izotz jauregian egiten da eta bertan biltzen dira Nafarroako eskoletako Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleak eta eskola adinean dauden urritu fisiko, psikiko eta sentsorialak. Urtariletik apirilera bitartean 2 eskola egunez goizez (elkarren jarraian dauden asteetan) egiten dira saioak eta haietan irristaketaren oinarriko teknikak ikasten dira izotzaren gaineko trebetasun,

joko eta jardueren zirkuituen bitartez. Klaseak langile gaitu eta esperientziadunek ematen dituzte eta ikasleak mailaren araberako taldeetan banatzen dira.

2013. urtean VII. edizioa egin zen eta 716 ikaslek hartu zuten parte. 6 urte hauetan 5.084 irakaslek eta ikaslek hartu dute parte kanpaina honetan.

<b>158. koadroa - Eskola kanpainen bilakaera</b>					
<b>Urtea</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>	<b>2011</b>	<b>2012</b>	<b>2013</b>
Eskia	5.127	5.339	5.188	5.171	4.255
Natura	2.065	2.205	2.298	2.118	1.890
Bela	1.471	1.509	1.585	1.583	1.559
Irristaketa	831	739	1.024	821	716
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.494</b>	<b>9.792</b>	<b>10.095</b>	<b>9.693</b>	<b>8.420</b>

Iturria: Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua.

### 3. Eskola kiroleko programa

Kirol jarduera bultzatu, koordinatu eta sustatzeko helburuarekin eta Foru Komunitateko ikasle guztien kirol ibilbidean bide berri bat eratzeko xedez sortu da ekimen hau eta Nafarroako Kirolaren eta Ariketa Fisikoaren Institutuak sustaturiko esperientzia pilotuan oinarritzen da. Esperientzia pilotua 2008-2009 ikasturtean zehar garatu zen.

Aurrekoen programa osagarria da eta kirol ekintzan hezkuntzaren balioak sustatzeko xedea du. Programaren helburu nagusia aisialdiko jarduera fisikoak sustatzea da, nolatan ere, jarduera horiek hezkuntzaren eta aisialdiaren alderdiak uztartu behar dituztelarik. Hala, aztura fisiko bat sortuko da eta adinean aurrera egin ahala haurrek kirola modu jarraituan egitea bultzatuko da eta, ondorioz, bizimodu osasungarria sustatuko da eta haurren obesitatea eta sedentarismoa bezalako fenomenoak saihestuko dira.

Ikastetxea, eta zehatzago esanez Gorputz Hezkuntzaren departamentua, da programa oinarritzen den ardatza. Ikastetxeak prestatu eta praktikan jartzen duen gorputz eta kirol jardueren proiektua departamentu horrek diseinatu, koordinatu eta gainbegiratu du eta ikastetxeko hezkuntza eta kirol proiektuan txertaturik egon beharko du. Horretan guztian ezinbestekoa da ikastetxeko kirol koordinatzailea.

Programaren babesean egiten diren gorputz jarduerak gizarte-integratioko, osasuneko, ongizateko eta jostetako baliabide bilakatu behar dute; horrela, lagungarriak izanen dira pertsonaren prestakuntza eta hezkuntza integralerako eta haren nortasuna garatzeko. Balioak sustatuko ditu, besteak beste, norberaren ahalegina, lana taldean egitea, lankidetzeta, solidaritatea, tolerantzia, etsaiari errespetua izatea, joko garbia eta genero berdintasuna.

Gaur gaurkoz, programaren V. edizioa egin da (2012-2013 ikasturtekoa), unibertsitatekoak ez diren ikasketa arautuetako ikastetxe publiko eta pribatuei zuzendurik.

Egin diren bost edizioetan 18.800 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte programan; azpimarratzekoa da nesken parte-hartze handia, hirurogeita hamar gorputz eta kirol jarduera baino gehiago egin baitituzte.

<b>159. koadroa - Eskola kiroleko Programaren bilakaera</b>		
<b>Ikasturtea</b>	<b>Ikastetxeak</b>	<b>Parte-hartzaileak</b>
2008-2009	10	1.520
2009-2010	14	2.444
2010-2011	24	3.268
2011-2012	28	5.600
2012-2013	41	6.000

Iturria: Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutua.




## 4. Haurren obesitateari aurrea hartzeko kanpaina

“**Jolastu, jan eta jokatu Trankirekin**” haurren obesitateari aurrea hartzeko kanpaina 2005-2006 ikasturtetik hona egiten ari da Nafarroan. Iruñeko eta Iruñerriko lau ikastetxetan (Iturramako Ikastetxe Publikoa, Atarrabiako Lorenzo Goicoa Ikastetxe Publikoa, Iruñeko San Ignacio Ikastetxea eta Iruñeko Liceo Monjardín Ikastetxea –lehenago Urtsulinak–) eginiko proiektu pilotu batekin hasi zen.


2012-2013 ikasturtean duela sei urte kanpaina hasi zuten eta 2001. urtean jaiotako diren ikasleen datu antropometrikoak bildu ziren.

- Liceo Monjardín ikastetxea (lehen Urtsulinak) (esku-hartze taldea)
- San Ignacio Ikastetxea (Jesuitak) (esku-hartze gabeko taldea)
- Iturrama Ikastetxe Publikoa (esku-hartze taldea)
- Atarrabiako Lorenzo Goicoa Ikastetxe Publikoa (esku-hartze gabeko taldea)
- Altsasuko Zelandi Ikastetxe Publikoa (esku-hartze gabeko taldea)
- Etxarri Aranazko Andra Mari Ikastetxe Publikoa (esku-hartze taldea)
- Urdiaingo Ikastetxe Publikoa (esku-hartze gabeko taldea)


Lortutako datuek esaten digute osotara (n=262, 2010. urtean eta 2012. urtean izan ezik -urte haietan 261 eta 259 izan ziren hurrenez hurren) hasieran gehiegizko pisuaren indizea %34,4 zela eta obesitate indizea %11,8. Bost urteren buruan gehiegizko pisua %26,7ra eta obesitatea %3,8ra jaitsi dira eta pisu arrunta hasierako %53,8tik %69,5era pasatu da. **(1. taula)**



Datu horiek esku hartutako ikastetxeetan eta esku hartu gabeko ikastetxeetan eta sexuaren arabera banatuz ikusten da **esku hartutako ikastetxeetako mutilen** artean hasieran gehiegizko pisua %25,4koa zela eta obesitatea %16,9koa. Azterlanaren bukaeran lortutako emaitzen arabera, gehiegizko pisua %27,1ekoa da eta obesitatea %5,1ekoa, eta pisu arrunta hasierako %57,6tik bukaerako %67,8ra pasatu da. Gehiegizko pisuaren gorakada hori gertatu da obesitate kasu batzuk gehiegizko pisuko kasu bilakatu direlako **(2. taula)**. Nesken taldean beherakada ez da hain nabaria abiapuntuan txikiagoa zelako gehiegizko pisua edota obesitatea zuten nesken kopurua; hori hala izanik ere gehiegizko pisua %12tik %10era jaitsi da.



**Esku hartu gabeko ikastetxeen guztizko** datuak aztertuz gero, ikusten da gehiegizko pisuko mutikoak hasieran %20,8 zirela eta %16,7 izaten bukatu dutela eta obesitatearen kasuan, berriz, %9,7tik %4,2ra jaitsi da indizea. Hartara, pisu arrunta %69,4tik bukaeran %79,2 izatera pasatu da (**3. taula**). Nesken kasuan ere gehiegizko pisua zein obesitatea jaitsi dira.



Bukatzeko, esan dezakegu **“Jolastu, jan eta jokatu Trankirekin”** kanpaina Lehen Hezkuntzako sei urteetan aplikatu zaiela Nafarroako 262 haurri eta horrek gehiegizko pisuaren eta obesitatearen indizeetan jaitsiera nabarmena ekarri duela eta, ondorioz, pisu arruntaren indizearen igoera, 1999. urtean jasotako lehengo lagina aztertu zenean ikusi zen bezalaxe.

Azterlan pilotu honen emaitza itxaropentsuek balio beharko lukete epe laburrean ahaleginak haurren obesitatearen kontrako borrokan erabiltzeko edo, bestela esanda, hemendik urte batzuetara heldu direnean gehiegizko gantzarekin lotutako eritasunaren eta hilkortasunaren kontrako borrokan erabiltzeko. Izan ere, lehen bi urteetan lortutako aurretiko emaitzetan oinarrituz, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak, Hezkuntza Departamentuarekin elkarlanean, programaren zati bat egin du –azken lau urteetan eta ikasturte batean edo bitan– Nafarroako beste 27 ikastetxe publikotan eta itunpeko 6 ikastetxetan. Haurren obesitateari aurrea hartzeko programaz baliatu diren nafar neska-mutikoak 1.850 izan dira azken urte hauetan.

Horrenbestez, esan daiteke kanpaina honek eragin positiboa izan duela urteetan zehar eta planteatutako helburua bete dela, hau da, esku-hartze "integrala" egitea eta hartan inplikatzeko irakasleak, familiak, ingurua eta haurrak eta, orobat, **prebentzioa** bultzatzea obesitateari aurka egiteko metodarik onena bezala. Horretarako zenbait material erabiltzen da (irakasleen gida didaktikoa eta haur ipuinak Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzerako) eta horietan elikadura osasungarriarekin zerikusia duten gomendioak ematen dira eta eguneroko bizitzan jarduera fisiko gehiago egin behar dela esaten da.

Nahi izanez gero, material horiek ondoko loturan ikus daitezke:

[http://www.navarra.es/home\\_es/TEMAS/Deporte/Publicaciones/Publicaciones+tecnicas/Campana+de+obesidad+infantil.htm](http://www.navarra.es/home_es/TEMAS/Deporte/Publicaciones/Publicaciones+tecnicas/Campana+de+obesidad+infantil.htm)

Horretaz gainera, ikastetxean beste jarduera batzuk egiten dira, ikasleak, familiak eta ikastetxea oro har zuzenean inplikatzeko dituztenak:

- Lehen Hezkuntzako 1. mailan ikasten ari diren 6 urteko haurrei ikasturtearen hasieran eta bukaeran antropometriak egitea.
- Eskola jantokiko menuen azterketa eta hobetzeko proposamenak.
- Gurasoei hitzaldiak ematea bizimodu osasungarrien gainean, beren seme-alabek ikasgelan landutako edukiak sendotzearen.

Urtero kanpainan egindako lanari jarraipena ematearren, 2009-2010 ikasturtean jarduera osagarri bat abiatu zen, aurreko urtean landutako edukiak sendotzeko helburuarekin. Jarduera hori "**Aste osasungarria**" deitzen da eta Lehen Hezkuntzako 2. mailan ikasten ari direnendako prestatu da, horiek izan baitziren aurreko ikasturtean programan parte hartu zutenak. Proposamen honetan haurrei, irakasleei, jantokiko langileei eta familiei zuzendutako zenbait jarduera sartu dira.

Egiten diren jarduerak ondokoak dira:

- Ikasleentzako:
- Elikaduraren oinarriko kontzeptuak bilduko dituen errefortzuko lantegi teoriko-praktikoa: koloreen lantegia.
- Ipuinen pertsonaien bidez Kamhisibairen teknika San Juan de la Cadena Ikastetxeko ikasleek antzetztea.
- Olinpiada osasungarria, ikasitakoa aplikatzeaz gainera, haurrek askotariko jarduera fisikoak egiteko.
- Ikasleentzako eta haien familientzako: kanape dibertigarriak prestatzeko lantegi praktikoa.
- Interesa duten jantokiko langileentzako eta irakasleentzako:
- Elikaduraren oinarriko kontzeptuen azterketa, inkesta baten bitartez, eta kontzeptu horiek indartzea prestakuntzako solasaldi baten bitartez.

## 6. Bestelako programak

Aipatutako programez gainera, adin txikikoendako jarduerak antolatzen dituzte automobilismo, espeleologia, golf, halterofilia, kick boxing, motoziklismo, piraguismo, arraun eta arku-tiroko federazioek, eta horietan eskola adineko 400 bat kirolari aritzen dira.

Nafarroako Igeriketa Federazioak, zenbait udalekin lankidetzan (batez ere Iruña eta Iruñerrikoak), Eskolako Igeriketa Kanpaina antolatzen du, Lehen Hezkuntzako 2.eko eta 3.eko ikasleei zuzendua. Kanpaina horren helburua da ikasleak ur ingurunean moldatzea (oinarriko maila batean) eta igeriketaren kirol modalitate ezberdinetan (igeriketa, waterpolo, igeriketa sinkronizatua) hastapena ematea. Azken kanpainan 3.000 ikasle inguruk parte hartu dute.

Halaber, Nafarroako Futbol Federazioak futbol txapelketak antolatzen ditu: benjaminen aretoko futbol txapelketan 65 taldek eta 650 ikasleak parte hartzen dute, 10-11 urteko mutilen futbol txapelketan Nafarroa osoko 226 taldek eta 3.300 ikasle inguruk, eta benjaminen futbol 8-ko txapelketan 850 ikasle inguru biltzen dituzten 59 taldek.

Futbito Txiki txapelketa 6 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago eta arau bereziak ditu, lehiaren eta konpetitibitatearen gainetik parte-hartzea eta jolasa indartzeko. 290 talde inguruk parte hartzen dute.

Osasuna Fundazioak Aste Santuko eta udako campusak eta Futbol Eskola antolatzen ditu, 6 eta 12 urte arteko haurrentzako.

Lehiaketa mailan, Eskola Arteko Futbol Txapelketak arrakasta handia du. Nafarroa osoan banatutako ikastetxeetako 59 taldek parte hartzen dute.

#### 7. Eskola adineko kirolari buruzko gomendioak

Nafarroako Eskola Kontseiluak 2009-2010 ikasturtean txosten bat prestatu zuen, bere ekimenez, Kirol Ikasketei buruz, eta txosten hartan eskola adineko kirolari buruzko atal bat agertzen zen. Honako gomendioak eman ziren esparru horrentzat:

1. Jarduera fisikorako eta kirolerako prestakuntza goiz hasi behar da, derrigorrezko eskolatze etapan. Halaber, pertsonaren hezkuntza integralaren zati gisa ulertu behar da, aldi berean aztura osasungarriak eta kirol jarduera ere sustatzen dituen.
2. Kirolak hezkuntza esparru egokia ematen du pertsonen prestakuntzan oso garrantzitsuak diren balio indibidualak eta sozialak eskuratzeko: ahalegina, hobetzea, autoestimua, autokontrola, diziplina, portaera etikoa, ardura, talde lana, inklusioa, elkartasuna, laguntasuna, kooperazioa, tolerantzia, errespetua, berdintasuna... Ondorioz, kirolaren irakaskuntzak eta eskola adineko kirol ekintzak, eskolan eta eskolaz kanpo, balio horiek eskuratzeko sustatu behar dute eta lehentasuna eman kirolaren hezkuntzako eta aisaldiko alderdiei lehiarekin lotutako alderdien gainetik. Eskolak ez ezik, familiek eta kirol jarduerak antolatzen dituzten erakundeek eskola adineko kirol ekintzari buruzko ikuspegi horretan inplikatu beharra dute.
3. Ikasleei zuzendutako jarduera fisikoen eta kirol jardueren eskaintza zabala dago. Hala ere, hainbat arrazoiengatik, Nafarroako ikasle guztiek ez dituzte aukera berak. Programa horiek antolatzen diharduten erakunde publiko eta pribatuak hori kontuan izan behar dute eta kirola egiteko aukerak mugatzen dituzten egoerak konpentsatzen saiatu. Bereziki, gomendagarria dirudi neurriak hartzea ondoko egoerak konpentsatu ahal izateko: ezgaitasuna, baliabide ekonomikoen falta, dinamizazioan inplikaturako pertsonen falta eta kirol instalazioak erabiltzeko aukera falta.
4. Aztertu egin behar da zergatik uzten zaion kirola egiteari 12 urtetik aurrera eta emakumezkoek zergatik duten interes gutxiago kirolean. Sektore horietan jarduera fisikoaren eta kirola egitearen onurak bultzatzeko ekimenei ekitea komeni da.
5. Ikastetxeak eskola kirolaren programen oinarritzko ardatz izan behar du, bere hezkuntza proiektu propioarekin, koherentzia gorderik.
6. Eskola adineko kirolean hainbat lagunek parte hartzen dute entrenatzaile edo begirale gisa, eta pertsona horiek askotariko prestakuntza profilak eta kirol esperientzia dituzte. Eskola kirolean prestakuntza planak sartu beharra dago pertsona horien gaitasuna hobetzeko egiten dituzten lanetarako, bai entrenamenduarekin loturikoetarako bai ikasle taldeak animatzearekin eta zuzentzearekin loturikoetarako. Prestakuntza hori bereziki beharrezkoa da begirale nerabeen kasuan.
7. Ikasleei zuzendutako jarduera fisikoko eta kirol jarduerako programetako alderdi zenbaiten gaineko araudia garatu beharko litzateke; zehaztu egin beharko lirateke zenbait kontu, adibidez, zein baldintza bete behar dituzten, jardueren tipologia, mediku zaintza, segurtasuna edo teknikarien prestakuntza.

### **4.3.12. Hezkuntzako Parte-Hartzea, Irakasleentzako Arreta eta Bizikidetzak**

#### **4.3.12.1. Hezkuntzako Parte-Hartzea eta Irakasleentzako Arreta**

Hezkuntzako Parte-hartzearen, Irakasleentzako Arretaren eta Bizikidetzaren Atala sortu zen beste komunikazio-bide batzuk ezartzeko eta jadanik daudenak bultzatzeko Hezkuntza Departamentuaren eta gizartearen artean, bereziki hezkuntzako agenteekin: familiak, irakasleak, ikastetxeetako zuzendaritza taldeak, ikasleak, elkarteak, udalak eta entitateak, Nafarroako hezkuntzarekin loturiko ekimenak eskaintzeko eta hurbileko eskaera zuzenei erantzuteko asmoz.

Hezkuntzako kontseilariaren Kabineterekin bereziki aritzen da elkarlanean hezkuntzan zuzenean edo zeharka esku hartzen duten agenteekin komunikazioa eta harremanak bultzatzeko, interes orokorreko

hezkuntza mezu, ekimen edo proiektuak zabaltzeko, eta hezkuntzaren -bereziki hezkuntza eraileen, irakasleen eta zuzendaritza taldeen lanaren- aintzatespen soziala sustatzeko.

Familiek eta ikastetxeek buruturiko hezkuntzako lana indartzen laguntzeko hezkuntzako eta herritartasuneko balioak sustatzen eta bultzatzen ditu: errespetua, ordena, ekimena, ahalegina, ongi egindako lana, sormena, gaitasun estetikoa, leialtasuna, hobetzeko nahia, kontsumo arduratsua, frustrazioaren aurreko erresistentzia, elkartasuna, kiroltasuna eta denen onurara bideratutako herritartasun aktiboa, besteak beste.

Ikasturte honetan jarduera hauek egin dira atal honetan:

- a. Hezkuntzako berrien buletin digitalaren argitalpena: 35 ale ikasturtean zehar, astean behin. 8.000 harpidetik gora du (8.047, 2013ko irailean).
- b. Hezkuntza Departamentua sare sozialetan sartzeari: kontuak sortu dira Facebook-en, Twitter-en (5.000 jarraitzaile baino gehiago) eta Pinterest-en, Scoop.it aplikazioarekin (6 “topic”) batera. Denak doakoak eta hezkuntzan aukera handikoak.
- c. Departamentura iristen diren hezkuntza agenteei arreta egitea: familiak, irakasleak, komunikazio-bide desberdinen bitartez: bertaratzea, telefonoa, posta elektronikoa eta sare sozialak (Twitter eta Facebook): 120 kontsulta izan dira eta horietatik 11 espediente ireki dira.
- d. Familia Eskolen 3 edizio antolatu dira, bi lan ildorekin: bata, gurasoei eta hezitzaileei zuzendua (2 edizio) eta, bestea, aurreko ikastaroetara joan diren gurasoak prestatzaile izan daitezten prestatzeko. Burlatuko eta Iruñeko udalekin lankidetzan antolatu dira Familia Eskolen edizio hauek.
- e. Elkarlana, Hezkuntza Departamentuko Gaztelaniaren eta Lurralde Lankidetzaren Atalarekin eta beste erakunde batzuekin (unibertsitateak, fundazioak, antolakundeak, etab.) Jakintzaren Olinpiadak eta antzeko txapelketak antolatzeko, nafar ikasleen bikaintasuna sustatu asmoz, esparru hauetan: Matematikako bi modalitate, Batxilergoa eta DBH, Biologia, Filosofia, Geografia, Kimika, Fisika, Ortografia, Marrazketa Teknikoa, Marrazketa Artistikoa.
- f. Elkarlana, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalarekin, Prestakuntzaren eta Kalitatearen Atalarekin eta bestelako erakunde arteko antolakundeekin (NUP, Iruñeko Planetarioa, Moderna Fundazioa) Zientzia eta Teknologia Berrikuntzarako Ikastetxeen Sarea diseinatu eta sortzeko. Sarea ikasturte honetan abiatu da eta hezkuntzako robotikaren eta haren didaktikaren esparruan zentratu ditu bere jarduerak. Jarduketak:

Creavity Camp, robotikako udako ikastaroa.

1. mailako mintegi-ikastaroa, hezkuntzako robotikari eta haren didaktikari buruz.

Roboten mailegu zerbitzua.

Jardunbide egokien jardunaldia.

Robotika aurreratuko lantegia.

- g. Bi webgune prestatu dira (Hezkuntzako ataria eta Scoop.it) eskolako, familiako eta gizarteko esparruetan hezkuntza balioak lantzeko materialen biltoki moduan.

#### 4.3.12.2. Bizikidetzarako Aholkularitza

Atazak eta eginkizunak (ikus 204/2010 FA, 8. artikulua):

- Aholkularitza eta kasuei arreta ematea
- Ikastetxeei, familiei eta ikasleei emandako aholkuak ondoko hauetan zehazten dira:
- Hiru telefono linearekin (haietako bat doakoa).
- Helbide elektronikoarekin
- Familiakoekin, ikasleekin, irakasleekin eta beste zerbitzuetakoekin elkarriketa zuzenak eginez. Elkarriketa hauek taldean edo bakarka egin daitezke.
- Ikastetxeetara bisitaldiak eginez, aholkua emateko eta elkarlanean aritzeko

- Bidezkoa denean, kanpoko zerbitzuekin koordinatuz (ikastetxeak, gizarte zerbitzuak, osasun mentala, fiskaltza, poliziak, aholkularitza juridikoa...).
- Hezkuntzako Ikuskapenarekin komunikatuz eta koordinatuz.
- Kudeaketak eta haien ondoriozko txostenak eginez.
- Aholkularitza zuzena ikastetxeei.
- 

160. koadroa - Bizikidetzarako Aholkularitza: artatutako kasuak. 2011-2012 eta 2012-2013 ikasturteak								
Ikasturtea	Eskaera kopurua					Erabilitako bidea		
	Guztira	Ikasleak	Familiak	Ikastetxeak	Beste batzuk	Telefonoa	Posta elektronikoa	Aurrez aurrekoa
2011-2012	262	2	77	141	42	179	20	63
2012-2013	311	0	95	153	63	211	25	75

Iturria: Aukera Berdintasunaren, Hezkuntzako Parte-hartzearen eta Irakasleentzako Arretaren Zerbitzua

Aurreko zifra horiei ikastetxeetan egindako zernahi aholkularitza saio gehitu behar zaizkie; saio horiek ikastetxean berean edo telefonoz egindakoak dira eta gaiak askotarikoak, batez ere prestakuntzarekin edo unean uneko gatazkak ebaztearekin lotura dutenak.

### Bizikidetzaren planak

Aholkularitzak bere gain hartzen duen eginkizunetako bat da ikastetxeetako bizikidetzaren planak eta plan horien zehaztapenak eta urteko memoriak diseinatzeari eta aplikatzeari dagokienez sustapen eta orientazio lana egitea. Prestakuntza jardueren bitartez eta irakasleei, bizikidetzaren batzordeei zein bizikidetzako arduradunei telefono eta posta elektronikoko bidez emandako aholkularitza pertsonalaren bidez burutzen da lan hori.

### Bizikidetzaren hobetzeko kanpaina

2013ko abuztuaren bukaeran bizikidetzako seigarren kanpaina inprimatzeko eta banatzeko lanak bukatzen ari dira, zehazki, irakasleentzako gida bat (ikasgelako arauari eta proaktibitateari buruz) eta ikastetxeetan ordezkariek prestatzeko materiala.

### Irakasleen prestakuntza.

Aholkularitza prestatuntza jarduerak sustatzen, diseinatzen, antolatzen eta ematen dira, Irakasleen Prestakuntza Planaren barruan. Prestakuntzan profesional askok parte hartu dute eta haien balorazioa ona izan da. Prestakuntzako 52 jarduera diseinatu dira eta haietako baten bat eman ere bai:

Jardunaldi batzuk, mintegi orokor bat, 6 ikastaro, 5 informazio saio orokor, 18 informazio saio ikastetxeetan, 15 mintegi ikastetxeetan, 6 lantegi.

### Araudia eta haren garapena

204/2010 FA eta 47/2010 FD hedatzen jarraitu da, arau horiek garatzen eta ezartzen laguntzen duten materialekin batera. Era berean, fitxa bat diseinatu da arau horien garapena eta aplikazioa baloratzeko eta Hezkuntzako Ikuskapenera igorri da ikastetxeekin erabil dezaten.

### Genero indarkeriaren diagnostikoa

Bizikidetzarako Aholkularitzak eta Irakasleentzako Arretaren, Bizikidetzaren eta Berdintasunaren Bulegoak elkarrekin burutu dute estatu mailako ebaluazio bat nerabeen arteko berdintasunari eta genero indarkeriaren prebentzioari buruz, Ministerioak eta Konplutentse Unibertsitateak baliozkotu duten tresna informatiko baten bidez, eta Nafarroako 19 ikastetxek parte hartu dute.

### Erakunde arteko parte-hartzea

Aholkularitzaren parte-hartzea edo lankidetzaren duten askotariko programen zerrenda:

- Itxaropenaren Telefonoarekin hitzarmena.
- Ikaskuntza-zerbitzu solidarioaren sustapena.

- Erakunde arteko protokoloa jokaera suizidei aurrea hartzeko.
- Eskola absentismoaren kasuetan jarduteko protokoloa.
- Profesionalentzako gida/hezkuntzaren, osasungintzaren eta gizarte zerbitzuen arteko lankidetzaren protokoloa haur eta nerabeentzako arretari buruz.
- Jarduteko orientazio gida. Zer egin droga kontsumoa antzematen dugunean, irakasleentzako ideiak.
- Bitartekotza sustatzeko puntu neutroko II. taldea.
- Psikologia positiboari buruzko *Comenius*-a.
- Hezkuntza arduratsuko programa.
- Nafarroako Nuevo Futuro elkartearen “Rupturas Educativas” programa.

#### 4.3.12.3. Balioetan hezteko programak

##### Osasunaren sustapena / Osasunerako hezkuntza

Osasunaren sustapeneko / Osasunerako hezkuntzako jarduerak Osasun Departamentuarekin elkarlanean egiten dira, horretarako sortutako batzordeen bidez. Hezkuntza Ministerioko CNII Eren koordinaziopeko Osasunerako Eskolen Europako Sarearekin (SHE Sarea) loturik daude batzorde horiek. Batzorde horietan, Hezkuntza Departamentuaz gain, Osasun Publikorako Institutuko ordezkariak, Droga-mendekotasunaren aurkako Foru Planekoak eta Emakumeari Laguntzeko Zentroetakoak daude.

SHE sarearen (Schools for Health in Europe) kide diren ikastetxeak: 30

Jarduera nagusiak: Ikastetxeei prestakuntza eskaintzen zaie lehentasunezko lan arloen gainean: drogamendekotasunei aurrea hartzea; elikadura, ariketa fisikoa eta bizimodu osasungarriak; hezkuntza sexual eta afektiboa eta bihotz-biriketako bizkortzea. Urtean hiru topaketa egiten dira helburuak bateratzeko, jardunbide egokiak trukatzeko eta, gainera, osasuna sustatzen hiru urtetik gora daramaten ikastetxeei ziurtapena emateko. Dagoeneko Nafarroako 16 ikastetxek lortu dute ziurtapen hori.

Horrez gain, ikastetxeek plataforma batean dituzte osasuna sustatzeko material esanguratsuenak eta jardunbide egokien sorta bat.

Haurren obesitateari aurrea hartzeko eta ohitura onak hartzeko beste ekintza batzuk dira “Fruta eta barazkiak banatzeko kanpaina” eta “Trankiren kanpaina”. Lehena Europar Batasunak sustaturiko proiektua da, Nafarroan Hezkuntza Departamentuak Osasun Departamentuarekin eta Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuarekin lankidetzan egiten duena, eta 2013. urtean Haur Hezkuntzako 100 ikastetxek eta 8.500 ikaslek baino gehiagok parte hartu zuten. Bigarrena, berriz, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuarekin lankidetzan egiten da eta une honetan Nafarroako 26 ikastetxe ari dira kanpaina horretan lanean.

